

Irratia biztuta

Roberto Moso

© **Radio Euskadi**

Argitaratzailea: Radio Euskadi

Egilea: Roberto Moso

Hitzaurrea: Pedro Ugarte

Azalaren diseinua, maketa eta CDa: Alfonso Herrero

Argazkiak: Bernardo Pérez, Carmen Gil,

Jon Etxebarria 'Alkate', Alfonso Herrero

I.S.B.N. 978-84-934412-8-9

Lege gordailua: bi-1580-07

Fotomekanika, imprimaketa

Eta enkoadernazioa: Leitzaran Grafikak

www.leitzaran.com

Martin Ugalde Kultur parkea

Gudarien etorbidea, 8

20140 Andoain-Gipuzkoa

*Carmeni,
ama on eta pertsona hobeari*



*The radio's playing some forgotten song
Brenda Lee's 'Coming on Strong'
The road's got me hypnotized
And I'm speeding into a new sunrise.*

*Irratian aditzen da abesti ahaztu bat
'Coming On Strong' Brenda Lee-rena
Errepideak hartua nauka erabat
eta goizalba berri baterantz noa hegan.*

Radar Love
GOLDEN EARRING



Roberto Moso

Aurkibidea

Hitzaurrea: Irratiko istorioak, <i>Pedro Ugarte</i>	XX
Irratia biztuta	XX
Iskanbila dantza aretoan	XX
1985. Egun bat bizitzan	XX
Kalimotxo denik eta onena	XX
Piano eta olatuetarako kontzertua	XX
Maitagarrien hautsa	XX
Zalantzatsu	XXX
Bilbo, 2000-2-22	XXX
1972. Oporrak Santurtzin	XXX



HITZAURREA

Irratiko istorioak

Roberto Moso-ren lan literarioak badu ezaugarririk hura ezohiko samarra egiten dutena gazteleraz egindako euskal literaturaren panoraman (panorama esan dut?). Izan daiteke izaera ezohiko hori pertsonaiatik bertatik sortzea. Izan ere, Roberto Moso, jakina denez, erabateko pertsonaia bat da, lana eginez gizakiok egunero eraikitzen dugun eta gizartean irauteko balio digun pertsonaia horiek guztiek bezalakoa.

Bada, aipatutako pertsonaia, Roberto Moso, bitxi gertatzen da: ZARAMA talde rock-zale historikoaren liderra, Santurtziko euskalduna eta lanbidez kazetaria, haren profil publikoa ez da guztiz ondo ezkontzen euskal literaturaren panorama nahiko haustu horrekin, non eta gauza gutxi gertatzen den, eta are gutxiago diren, gertatzen diren gauza onak.

Agian horregatik Robertoren ezagutzen diren hiru liburuek [*Cuentos y sucedidos bastos* -1993-, *Flores en la basura* (Loreak zaraman) -2003- eta argitalpen honekin jaiotzen dena, *La radio encendida* (Irratia biztuta)) badute bertute bitxi bat, euskal azpisistema literariotik at sortuak izan direla (azpisistema esan dut? euskal esan dut?) eta beraz, gremioa eratzen dutenen oso bestelako abiaburuetatik. Egiaz, hain gaude nazkatua abangoardiako hitz batzuez (kontrakulturala, marjinala, alternatiboa, outsiders) ezen ia lotsa ematen baituen haiek erabiltzeak, noiz eta, Robertoren liburuekin gertatzen den gisan, berriro ere zentzua dutenean eta egia bat adierazten.

Robertoren literatura dibertigarria izateaz gain, desinhibitua eta bizitasun sakonekoa, bere efektu diabolikoak zabaltzen dituen da, benetako idazlearen lana gidatu behar duten oinarrietako bakar bat ere galdu gabe. Eta izan ere, agian, lehen aipatutako berbakote horien apalespena (kontrakulturala, marjinala, eta abar.) nondik eta erabilera bereizigabetik zetorren, erabiltzen baitzen artista asko erantzukizunetik libratzeko, egindakoak ikusita, eta talentu faltarik agerikoena ezkutatzeko. Alde horretatik, Roberto Mosoren lanaz bai esan daiteke guztiz garaikidea dela, ezarritako arauak zalantzan jartzen dituela eta gauzen gainean begirada kritikoa jartzen duela. Esan daiteke, bai, esatea ez baita funsgabea inola ere. Esan daiteke, bai, egia da eta.

Irratia biztuta lanak Roberto Mosoren aurreko lanaren alderantzia dakar. *Loreak zaraman* lanean 70 eta 80ko hamarkadetako kronika zekarren rockaren ikuspuntutik, eta *Irratia biztuta*-k bigarren kronika eratzen du, baina oraingoan gune narratiboa musikatik komunikabideetara doa. Zera bezala da, Roberto Moso izeneko

pertsonaia publikoak haietako bakoitzean autobiografia zati bat utziko baligu bezala. Edo, bestela esateko, bi liburuek eratuko balute bezala, binilozko disko zahar haien A aldea eta B aldea. Garrantzizkoena, nolanahi ere, hau da, alde biek soinu ona dutela eta irakurle belaunaldi bat islatuta dagoela liburu biak eraikitzen dituzten erreferente sozial eta kulturaletan.

Soilik zalantza bat geratzen da, hitzaurregile naizen honi sortzen zaidana: *Loreak zaraman* lanak ez zuen sekula ezkututzen autobiografia dramatizatuaren izaera, eta *Irratia biztuta* ipuin-liburu itxura duena da. Baina honen orrialdetan barrena ibilita badirudi autobiografia portzentajea askoz handiagoa dela fikzioarena baino.

Liburu honetan zenbat dagoen irudimenetik eta zenbat memoria pertsonaletik jakiteko, beldur naiz bide bakarra legokeela, lerroz lerro aztertzea egilearen asmorik ezkutuenak, baina ez dirudi ahalegin horrek merezi duenik. Izan ere, *Irratia biztuta*-ren onena bertan literaturatik dagoena da, eta literatura, literatura ona, areago dago errealitatea eta fikzioa bereizten duten muga erraz horietatik. Literatura, horren guztiaren ostean dago, bi dimentsioetatik elikatzen den mundu batean, dimentsio altuago bat eratuz. Eta hor dago egilearen trebetasuna mundu geldiezin dibertigarrian gu sartzeko eta lehen unetik bertatik gu konplize errenditu eta erne bihurtzeko, peripezia bakoitzaren lekuko nahi gabeko.

Pedro Ugarte

IRRATIA BIZTUTA

Irratiaren aurreneko ezaguera On Anjelen etxean izan nuen, jada hirurogeigarreneko hamarkada urrun hartan. Agure liluragarria zen, merkataritza-itsasketako kapitain erretiratua, arrazoiren batengatik -seguru asko arreta

ematen niolako- kariño handia zidan. Bakarrik bizi zen alogereko pisu hartan, nire familiakotik bi solairu beherago. Eskailera zahar bateko bizilagunak ginen, baina etxe bakoitza mundu bat zen. On Anjelena aurreko mundu bat zen, ezbairik gabe. Haren koadroak, haren eltzeak, haren tximeleta erako interruptoreak, burugogor, iraun egin nahi zuten zenbait hamarkada atzerago. Telebista ez zen sekula sartu tenplu zaharkitu hartan, usain sarkorragoko eta kolore biziagoko. Sukaldeko leku pribilegiatu batean irrati aparatu handi bat zeukan, botoi urrekarako eta ornamentu xehetasunezkoa, aro espazial betean. Zaharrak istorio biziki interesgarriak kontatzen zizkidan artean, ni galdu egiten nintzen dial bikain haren meandroetan: non mapamundi bat eta handik ateratzen ziren lerro adierazleak ametsezko hiriei zuzenduta: New Delhi, Sydney, Berlin, Melbourne, Mosku. Pentsatzekoa zen gorpila biratu hutsarekin norberak berriak jaso zitzakeela leku exotiko haietatik guztietatik, baina bera ez zen sekula bere estazio gogokoenetik aldentzen, emisore frantsesa zen eta han ahots nekagarri batek abestiak aurkezten zituen. Boleroak, fox-trotak, chachachak, pieza orkestralak, beti bilduta, musikari espektro kutsua ematen zioten ziztu eta parasito amaraunean.

Don Anjel eginahaletan aritzen zen, neuri sarrarazten, gauza guztien gainetik, aurrerapen diruzalearekiko gorrotoa. Nik ez nuen ulertzen oso ongi zer demontre egin zioten fabrikek eta etxe-orratzek hainbeste gorrotatzeko eta batzuetan sumatzen nuen bazela hartan edadetuaren egoskorkeriatik zerbait. Baina arrazoiren bat zeukan gizonak. 1966ko gau batean gas butano zisternaz betetako tren bat lehertu zen Campsako instalazioetatik gertu

portuan eta su-bola handi bat gure buruen gain izan genuen larridurazko ordu luzeetan.

Ehunka familia atera ziren izuturik etxeetatik soinekoa bakarrik hartuta eta katastrofe itzel bat ez gertatzea suhiltzaileen lan gogorrari esker izan zen, orduak eman baitzituzten depositu haiek hozten, haien bizitzak arrisku bizian jarritz. Zer gertatu zen jakin nahian alferrik zebiltzan bizilagun eta senitartekoz bete zen gure etxea. Irratia tragediaz jabetu gabe zegoen eta hala jarraitu zuen, goizalde aurreratuan berri zehaztugabeak erdi esaten hasi zen arte, beti ere esanez *agintariek dena daukate kontrolpean*. Bai horixe. Egun gutxiren buruan neure mutiko begi-niniek betiko grabatu zuten Guardia Zibila ekinean ikusitako lehen aldia, udaletxe aurrean bildutako jende-multzo handi bat banandu baitzuen, hau protestan baitzen depositu haiek zuten arrisku garbiagatik, pertsona haietako asko etxerik gabe geratuak ziren. Irratiak ez zuen eman agintekeria adibide nazkante haren berririk. Informazioaren munduak ez zuen ezusteko handirik, baina beste lurralde batzuetan, irratia artean borrokan ari zen telebista kentzen hasia zitzaion tokiagatik.

Adinagatik, artean ezagutu ahal izan nituen azken irratinobelak eta baita Francis andrearen aholku-programa ere. Beste aldi bateko oihartzunak ziren eta gogoko nituen bisitatzea museoa bisitatzen den gisan. Beste mutiko askok bezala, izan nuen neure idilioa transistorearekin. Garai batean hura zen gelara eramaten nuen laguna, burukoaren azpian jartzen nuena gauza zirraragarriak konta zekizkidan: RADIO LUXEMBURGOko musika programatzen zutenak, -neuretzako- zerutiarra, *Para Vosotros Jovenes* Gonzalo García Pelayo, Carlos Tena eta abarrekin, *Los Cuarenta*

Principales, artean *La Efeeme* zirenean eta Angel Mosterin-ek txantxa genialak egiten zizkionean entzuleriari, *Pasajeros de la Felicidad* Callón-ekin, eta beranduago *Popular 3 Estéreo*, non Félix Linaresek AC/DC pintxatzen zuen eta Jaime Romok historia haluzinagarriak eratzen zituen. Hirurogeita hamarreko hasiera hartan, hain zuzen, deskubritu nituen halaber RADIO PARÍS eta RADIO TIRANA, non bat batean informazio sinestezinak entzuten zenituen “erresistentziaren ekintzei” buruz, zentsurei eta greba deialdiei buruz, tartean gatz eta piper izanik Paco Ibáñez, Víctor Jara edo Pantxoa eta Peio-ren musika. Lagun pribilegiatu batzuek lortzen zuten erbesteko RADIO EUSKADIren emisioak hartzea ere, eta hori ezin zuen egin neure errezeptore txikiak.

Francoren heriotzaren ostean, irratia aurrea hartzen hasi zen informazioan. Hartara jotzen genuen denok zer gertatu zen jakiteko Gasteizko langileen hiltzeketan, Jurramendin edo PCren legalizazioan (belaunaldi gazteei argitzen diet ez naizela ari ordenagailuaz, baizik eta Alderdi Komunistaz).

Aldirik izan bazen irrati betekoa hura soldaduskakoa izan zen. Transistoreei esker laburragoak ziren guardiak eta sakonagoak herriminak. Bitxia da egiaztatzea nola garai hartan modan zeuden abestiak entzuteak berriro jartzen nauen izan nintzen soldadutxo sustatu haren azalean, barrua ikaratzearino.

Mutil lotsati ameslari hura sekula ez zen heldu sikiera etorriko zitzaiona ipuinetan asmatzera ere: rock talde bat errendimendu betean eta aukera bat euskal irrati publiko jaio berrian sartzeko, musika saio bat egitera... ederregia

egia izateko. Neure turuta militarrekin “Fajina”, “erretreta” eta “bandera” jotzen egotetik hilabete gutxira, neure burua ikusi nuen egoitza inauguratu berrian sartzen, zaintzaile izanik ertzaina jarri berriak eta ikurrina tertziopelodun baten aurretik pasatuz. Aurretik eginak nituen nire “saiotxoak” Portugaleteko bi emisore lokaletan, eta handik bota egin ninduten jendetasun gutxi-asko erabiliz. Orain neure eskura neuzkan luxuzko estudio batzuk, fonoteka oparoarekin eta kalkulatu egiten nuen zenbat iraungo ote zuen halako “bolak”. Gaur telebistako guru den Mikel Lejarzak eman zidan aukerak ez zuen asko iraun. Hasi eta hilabete gutxiren buruan oposizioak atera nituen eta kalkulatu ere egin nahi ez dudan ibilbidea hasi nuen.

Aldi honetan era askotako istiluetan korrituz ikusi dut ene burua, erretransmitituz Athleticen gabarraren sarrera, biak irabazi zituenean, marka uzten duten katastrofeak estaliz eta neure begi-ninitik sekula kendu ahal izango ez ditudan hilketa izugarriak. Izen handia duten ia jai ospakizun guztiak ezagutu ditut eta batez ere, “palo” desberdin asko ukitu ditut: gizarte magazinak eta kulturalak, albistegiak, unitate mugikorra, gauekoak, umorezkoak...

Esku artean daukazunak, urte hauetan guztietan gehien landu ditudan bi sail lantzen ditu: kontakizunak eta dramatizazio txikiak. Gerta liteke bat batean historia batek edo bestek zu kokatzea goizaldean kotxez egindako ibilbidean, orain zure “santua” den hori ezagutu ostean, edo loak hartu ezinik zeunden gau hartan, zain eta zain zure semearen jaiotzaren berria noiz helduko, edo ikasten buru-belarri egon beharreko arratsalderen batean, zeure buruari eten bat opatu eta irratia biztu zenuenekoan.

Zuzeneko musika ez bezala, irratian ez dakizu beste aldean zer dagoen. Maiz gauza haluzinagarriak kontatzen dizkirate ni hantxe nengoenekoa, uzkur transistorean, eterraren beste aldean zer gertatzen zen ezjakin.

Ez dakit zer irudituko zaizkizun pieza hauek, baina gura dut jakin dezazun hortxe daudela bildu ahal izan dudan maitasun guztia, irudimen guztia eta sentimenduak partekatzeko gogo guztia. Badaukat konfiantza, sikiera, ez dezazun damu izan liburua erosi izanaz.

ISKANBILA DANTZA ARETOAN

Nire lehengusu Juan Pablok eta Santi *Pechotorok* liskar bat izan zuten 76ko igande beltz batean Young's diskotekan.

Nire lehengusuak 15 urte zeuzkan orduan eta *Pechok* 16. Nik 14 urte neuzkan eta gertaera sinestezin hura hasi zenean nahiago izango nukeen bertan hil, han bertan atoa desagertu. Nire lehengusu Juampa bizi Donostian bizi zen eta ikastegi frantsesean ikasten zuen. Haren notak oso onak ziren, iraingarriak, eta berak itxura apain-aratza zeukan, bista zauritzerainokoa.

Neure haurtzaro guztian, hura behin eta berriro aitatzen zuten eredu gisa: ongi hezia, etorrikoa, atsegina...

kalifikazio on-onak ateratzeaz gain, eskolaz kanpoko jardun sofistikatuak egitea bazeukan, orduan exotiko iruditzen zitzaizkidan izenekoak: informatika, ai-kido, armonia, patinetako hockeya... Familiako ospakizunetan beti izan zuten numero nagusi bat, non Juampak buruz ikasitako poema luze bat erreztatzen zuen, eta ondoren bere ikastetxeko ereserkia kantatzen nire lehengusina Ana Mari-rekin batera. Osaba-izeba, aitona-amona eta gurasoen txaloak bizilagunen patio guztian aditzen ziren eta ni handik joaten saiatzen nintzen, inork kanta nezala esan aurretik, irmo, Athletic-en ereserkia kanta nezala, bazkalosteko numero komikoa eginez.

Inork pentsa dezakeen hori pentsatu aurretik, esan dezadan oso atsegin nuela Juampa nire lehengusua. Jarraitzeko eredu gisa besteek niri jartzea arbuigarria zen, baina ez nion hari errurik egozten, ez. Zeukan curriculum berebizikoa bere kontua zen, betebeharren munduari zegokiona eta beraz, batere interesatzen ez zitzaidan mundukoa.

Hautzaro guztian, bera zen niretzat joko desberdinak zekizkien ahaidea, mago batek bezala margotzen zuena, lehengusina eta izebak sustatzeko txantxa txit dibertigarriak asmatzen zituena. *Lehengusutxo*a berritasuna zen, haren presentzia beti zegoen lotuta familia bilera jendetsuei eta beraz festa, joko, tarta eta kanapeei.

Egurra partitu zen egunean nire lehengusuak zuen adina zehatz nik jakitearen arrazoia hau da: ni baino urte bete zaharragoa da. Bada beste arrazoi bat nire kontrarioaren

urteak gogoratzeko: nire gelan zegoen eta bigarrenez errepikatzen ari zen.

Liskar berezi hark eszenatoki berean jarri zituen nire izatearen antzokian bateraezin ziren bi aktore. Juampa sendiko jai-giroko parte zen, eta Santi beste muturrean zegoen justu: nire kezkarik handiena zen, izua bera haragitua, giza izatea eta bizitza bera arbuiaitzeko arrazoi nagusienetako bat zen.

Institutuan sartu nintzen lehenengo egun zorigaitzekotik bertatik, izan zen nigan zerbait atentzioa benetan eman ziona. Ikastetxean izana nuen ikasle bizimodu atsegina kalbario bihurtu zen “instia” eraiki zutenean eta nire gurasoek erabaki zutenean aski zela hilero dirutzak ordaintzeaz. Bat batean nire burua galdua ikusi nuen pasillo etsai haietan, ez nuen inor ezagutzen eta asko ziren *gogor* izateko bokazioa zuten mutilak. Eskolako nire aurreko aldian ikasle “zail” ziren haiek eredugarri zitezkeen leku berrian. Santi hori zen nire bizitza laburrean aurkitua nuen txarrena. Haren begietan gorrotoa zegoen, ahoan mespretxu irribarrea zegoen beti, ibilerak, presiozko bakero batzuek behartua, txulo-itxurakoak ziren, haren gogoa beroa, eta gainean txima sorta koipetsua zuen, patrikako orrazi batekin errepasatzea maite zuena, besteei bizitza nola izorratu beste asmorik ez zeukan buruan... Ikastetxe berrian sartu aurretik, guztiek bezala, baneukan haren ibileren berri. Berak eta bere koadrilak eskuratua zuten kabroi fama, ondo merezita, haurren irudimenean neurrigabe handitua. Haren ezizenak berak nekez sinisteko bertsioak zekartzan: gehienek zioten adore harrigarria zuela olatu-hormako uretara jauzi egiteko arrezifeen gorenetik,

bularrez. Beste kondaira batek zioen norbait saiatu egin zela labana hari bularrean sartzen eta labana hautsi egin zela. Egia hau zen, bera “Pechotoro” zen; anai txikia, haren berdina txikiagoan, “Pechines” zen.

Ikasturteko lehen egunetan ni ikasle bat gehiago nintzen, hasberri sustatu olde baten baitan murgildua, oharkabean pasatu nahirik, noiz arte eta, modurik zentzugabeenean patuak atentzio foku bat jarri zidan arte niregan, nik sekula biztuko ez nuena. Historia irakasle madarikatu hark behin eta berriz errepikatu zuen errutina pedagogikoa: dorpeari galdetu eta hau umiliatu ostean, beste baten erantzunarekin egurtu; ohitura txepel horrek ondorio bakarra izan dezake: ikasle “distingituari” etsaiak sortzea. Eta hori da hain zuzen ere gertatu zitzaidana. Santik bizkarra uzkurtu zuen mindu itxurarekin eta maisuaren hatz erakuslea nire pertsonatxo umil uzkurrera zuzendu zen, ez nuen behar besteko ernetasuna izan erantzun okerra emateko. Laido haren prezioa oso garesti ordaindu nuen. Hobe nukeen askoz irakaslearen errieta jasotzea, edo zigorra, edo irakasleak zartako bat jotzea, hitz atsegin haiek entzutea baino: “Oso ongi, gutxienez bada inor gela honetan ikasten duena”, eta horrek markatu ninduen hainbat astez eta astez.

-Ea, esadak Pitagorin, zein dok Italiako huriburua?... ea, asmatzen badok gazta bat emango juat eta asmatzen ez badok gaztako bi, bale? Benga... *Pechotoro* eta honen *mariatxiak*, dozena erdi meritudun prest hari heriotzaraino segitzeko, horrelako eskaintzak egiten hasi zitzaizkidan niri oldartzeko aukera zuten bakoitzean.

Nire egoerak etsipen erabatekora egin zuen. Erraz da esatea “etxean esan behar da”, baina itxuraz hain gauza erraza adin horretako parametroekin neurtu behar da. Guraso, irakasle eta ikasleen aurrean kakati gisa agertu aurretik, norberak bere burua engainatu ohi du, egoera hoberantz doala, jada ez zirela hainbeste sartzen zurekin, badela besteren bat antza, gehiago puteatzen dutena. Logika zentzugabe bat aplikatuz pentsatzen duzu libratua izango zarela behar bezala jokatzeko baduzu, hau da, irakaslearen galderei gaizki erantzuten badiezu eta jakina, hatza altxatzen ez baduzu, ikastun zikin batek bezala ikasi duzula erakusteko. Beste umiliazio batek engainutik ateratzen zaituenean, berriz pentsatzen duzu etxean nola esan, baina txibatazorik txikiena gertatuz gero arrautzak erauzteko mehatxuak, egi dirudite hartarako kapaz dela sinisten duzun haren ahotan. Heldu zen unea, ezagutzeko, agian lehenbizikoz, larritasun existentziala zer zen.

Halako estutasuna gainditzeko irudimena baino ez neukan. Gran Cinema-ko arratsaldeko saioek nire ametsik ederrenak elikatzen zituzten: bat batean, egun batez, bost alprojek inguratu egiten ninduten patioko iskin batean eta espero gabe, hostia piloa hartzen zuten erantzun ezinik. Ni Terence Hill nintzen, Bud Spencer, Bruce Lee, 007... ez zuten hura espero, baina izaki hark, itxura batean ahul, autodefentsarako teknika sekretuak ezagutzen zituen eta gai zen –nahi izanda- bat bateko heriotza eragiteko ostiko taxuzko batez. Hodeia lurruntzen zenean, malenkonia eta musika bakarrik geratzen zen. Maletako tokadisko zaharrak, ganbaran abandonatua, bere protagonismo antzinakoa hartu zuen berriro. Nire anaia “goatekeak” antolatzen aspertu zenetik abandonaturiko dozenaka disko

berriz hasi ziren biraka orratz magikoaren pisupean, plastiko zati soil batetik plazer txirbilak ateratzen zituen orratz-pean. Ondoez gau ilunetan, transistore txiki batek laguntzen ninduen benetako mundu puta hegaldatzen, izan ere ez nuen aldirik onena. Nekez izango zen gaurik Radio Luxenburgo eta hasiberri ziren *efeemeak* nire ametsekin nahasten ez zirena egunsentira arte. Rock&Rolla zen nire droga, nire prozac, nire paradisu artifiziala. Arrazoiren batek eraginda, guztiz argitu ez dudana, gitarra distortsionatu haiek, baxu eta bateria koltxoi sendo haien gainean egiten zuten marrua zen oihuka nire neuronek eskatzen zutena, eta horrek baretzen zuen nire bestelako sentsazio mira, eta hark ematen zidan urrundik adoreari eta neure buruarekiko segurtasunari hurreratzen zitzaiona.

Baina horretan ere ez zen falta kezkarik. Nire talde gustukoenek *gaiztoak* zebiltzan billar horietantxe jotzen zuten. Sartzea bururatzen bazitzaidan, *Pecho* eta honen jarraitzaileak edozein unetan ager zitezkeen eta niretzat minutu batzuk hartu. Giro horietan, gainera, etxean jokatzeko zuten. Nire lagun koadrilak babestuta agertzeak ere ez zuen askorik balio, asko jota multzoa osatzen zuen eta hala ni ezkutuagoan pasa. Duro bat-bi abestiko “sinfonola” *I’m The Leader Of The Gang*-en motoekin marruka hasten zenean, delinkuente-gai haiek bero-bero jartzen ziren. Adorea ematen zidan musika hura bera mehatxu bihur zitezkeen. Zer iritzi izango zuten THE SWEET, GARY GLITTER edo SLADE-k hala elkar bultzatzen ikusiko balituzte? Nori zuzenduta zeuden nota haiek, haiei ala neuri?

Fubolinak minadun leku ziren eta zer esanik ez diskotekak. Galbide tenplu haiek, mitologia morbosoa batek inguratuta, goraldirik onena bizi zuten. Neure herriak, urte gutxitan amesgaizto kubista bihurtuta, apenas ezagutzen zuen “zerbitzuak” hitza, haren definizioarekin bat zetorren bakarra parkeko komunak ziren, barru zaildua zutenentzako soilik eramangarri. Halere, boîteak, salafiestak eta bestelako zokoak ilara luzez janzten ziren eta beren ospea ezin eutsizkoa zeramaten Nerbioi ibaiaren ezkerraldeko txokorik aldenduenetara. Galo's, Brisa's, Young's, Delfín Verde, Country, Aloña, Volante... elkarren lehian zebiltzan ostegunetik igandera bitarte trenak ok egiten zituen gazte multzoak erakartzeko. Santurtzi pop espainiar zailaren izar nagusien zirkuituan zegoen eta ez zen arraroa ikustea hormak zikinduta puntako izenekin: MIGUEL RÍOS, EL DÚO DINÁMICO, JUAN Y JUNIOR, LOS BRAVOS, LONE STAR. Ikastegiko patioa burrun-burrunak, ausartenek zabalduta, nerabe-aurrekoen ganbara beroberak astintzen zituzten. “Erreserbatuetan” gertatutako Sodoma eta Gomorra sinesgaitzak kontatzen zituzten, non neskek engainatzen baitzituzten “katxondina” pilulak emanda. Esan ere egiten zen, neska elementu batzuk bazirela “martxa gustatzen zitzaiena” eta sexu egarriz oldartzen zirela bazterretan. Baina behin betiko tentazio oro kentzen zuena liskarrak ziren. Horiek bai ziren sinesgarriak, ikusi besterik ez zegoen zein nolako bizitasunez zihoazen kalean gora gizonezkoen oldeak, hormona astinduak botaz pasaeran. Rock talde errepikaezinen urrezko aldiak neure herritik pasa ziren, ni artean gaztetxoegi nintzela, eta agian baita lotsorregi ere. Baina orduan haiek iritsi ziren.

Burumakur nindoan oinez, munduaren pisua eramanez nire eskolako kottetara, nire bidea inguratzen

zuen murruan karteltzar handi hura itsatsita ikusi nuenean: *Discoteca Young's presenta en directo: THE STORM*. Une haietan huraxe zen nik ikusi nahi nuen taldea. Telebistan agertu ziren, Gonzalo García Pelayo-k aurkezten zuen programa sinestezin batean eta haien eszenaratzea basatiaren gehiegia iruditu zitzaidan. Soilik single bat zeukaten, baina fubolin makinek txirbila ateratzen zioten etengabe: *It's All Right* eta *I Gotta Tell Your Mama*. Sevillarrak ziren eta ingeles makarroniko batean kantatzen zuten eta horrek are estimatuago egiten zituen. THE STORM taldeak gutxi iraun zuen, soldaduska tarteko, baina historiak ez du justizia egin, bat-batean pop zeltiberikoaren mindulinkeria eszenikoa kolpetik hautsi zuten ero haiekin.

Bazkalorduan giroa probatzea erabaki nuen. Sukaldeko mahaian batera eserita geunden, ohi zenez, nire anaia gaztea eta ama. Ni hausnarrean nenbilen gaia ateratzeko modu abilena zein izango, eta bera aurreratu zen berri egundoko bat emanez:

-Juan Pablo lehengusua dator egun batzuk pasatzera, osaba Alvaro ospitalean dago eta gurekin edukitzea eskaini dit hurrengo asteburura arte. Etxean bezala egonaraziko ahal duzue.

Bikain. Oztopo lasterketan hesi kopurua gehitzen ari zen, beldurra uxatu behar nuen, aurpegia txikituko zidatena, sarrerarako dirua lortu –nire asteko pagarekin atarira ere ez nintzen ailegatzen- eta lehengusutxoaren zama eroan, zeinaren bizi-planeta zenbait milioi urte argitara zegoen STORM galaxiatik. Aski lan baneukan koadrilakoak konbentzitzen, haiek ez ziren ni bezain musikalak edo ez

zituzten nire gustu berberak. Nire lagunak makina
pintxa-diskora joaten zirenean gauza ohikoagoak hartzen
zituzten: SUPERTRAMP, ELTON JOHN, NINO BRAVO,
OSKORRI... Nire talde faboritoak ez zituzten aintzat hartzen
eta nire planak, soil, nire buruko osasunaz zalantza
eragiten zien.

-Zure buruaz beste egin nahi duzu. Seguru *Pechoto*
bandak erosiak dituela sarrerak...

Beraz: ezer ez. Urrezko beste aukera bat haizatzen zen
nire muturren aurrean. Nire sentimenduak zuri-beltzak
ziren. Jakin, banekien, estantzi hartan ez sartzeak, dirua
aurreztuko zidala eta seguruenik disgustuak ere bai. Neure
buruari behin eta berriro esatearen poderioz arindu bat ere
senti nezakeen. Baina, bulkada esplika ezin batek berriz
jaurtitzen ninduen infernuko ateetara eta guztiz itxita
sentitzeak frakaso sentsazio zaugarria zekarkidan.

-Zer duk?, arraro hago oso...

Horixe behar genuen. Nire lehengusua neure etxean neuri
galdeketa egiten.

-Arraro? Ez, zer ba?

-Ez zekiat. Hi beti hago barrezka eta berba egitea gustatzen
zaik eta orain han habil isilik...

Ene Jainkoa. Juampa gizajoa bere benetako lehengusua
deskubritzen, eta juxtu bere aita osatzen ari zenean
bihotzeko batetik... haren begiek halako garbitasunez
begiratzen zidaten, hainbesteko ulertezintasunez, ezin izan
nuen dena aitortu gabe utzi. Nire gelan geunden, emisore
musikal bat ari zela fondoan, "Monopoly"aren ustezko
emozioetan murgildu nahian eta berak:

-Noiz duk emanaldi hori?

Eta nik:

-Arratsalde honetan, mmm ... bi ordu barru.

-Nahi baduk joango gaituk. Ondo pasako diagu.

Hala bota zidan, inolako hantusterik gabe, aurpegian gorabeherarik agertzen ez zuela, plana guztiz eskurakoia balitz-edo, parkean paseo bat ematea bezain. Egia esan, nire lehengusua Young's-en irudikatzea erabateko zirkuitulaburra zen, Juan Pablo ondo etortzen zen sendiko urtebetetzeekin, edo Gabonetako Haur-Parkearekin, baina STORMen kontzertu batean...

Egia zera da, handik gutxira ilaran geunden nagusiki gizonezkoz eratutako pelegrin olde eszitatuan. Berak dena erraz jarri zidan. Baimena? "Tira, ezin da denerako eskatu, batzuetan gauzak gurasoek jakin gabe egin behar dira". Dirua? "Lasai, etxean nahiko eman didate egun batzuk pasatzeko". Liskarrak? Jendetzak? "Jarriko gaituk bazter txokoren batean, handik eszenatokia ongi ikusteko eta kito..." Nire lehengusuak, Donostiako eder-orraztuak hainbesteko konfiantzaz hartzen bazuen, zergatik egin behar nuen atzera neuk, proletalgo industrialaren ustezko semeak?

Illaran geundela, bera bezalako elementu baten presentziak magnetismo urduri bat eragiten zuen. Egun euritsua zen eta aukeratutako gabardina, haren betaurreko eta orrazkera aratz harekin batera, egundoko probokazioa zen antza. Nik nabaritzen nuen ilaran atzetik geneuzkan hiru mutilak hartaz ari zirela. Elkarrizketa zati kitzikagarriak heltzen zitzaizkidan: "Begiraiok gabardinadun horri", "emaiok betaurrekoak dauzkan horri". Ez dakit zein ondorio

ateratzen zuten, baina zalantza barik oso dibertigarri zitzaizkien. Ilara astiro zihoan eta ni saiatzen nintzen neurean irauten, tentsio espirala gorantz zihoan, une bat heldu zen jolas maltzurra zena elkarri bultza egitea nire lehengusuaren aldera. Pare bat bultzara izan ziren, ekaitza ote zekarren, baina horretan geratu zen, neska talde zerutiar bat lotu zitzaien erasotzaileei eta gurekiko interes guztia galarazi zieten.

Minutu batzuen buruan lehen aldiz sartu nintzen diskoteka batean. Hastapen bizipenekin gerta ohi denez, oso bizi daukat gogoan itsatsia une hura.

Alferrikako pisuak arropategian utzi ostean ate batienteetarantz zuzendu ginen. Harrera egin zigun infernu distirapean zeuden soslai eszitatuz betetako leize-zuloak. Musika ordura arte ezagutu gabeko ozentasunez ari zen eta grabeek burrun egiten zuten elkarriketa ia eragozteraino. Soinu dorre handi haietan une hartako abesti arrakastatsua ari zen trumoiatsu: *Master Blaster*, STEVIE WONDERena. Juampak eskailera batzuk erakutsi zizkidan eta haietara zuzendu ginen gorputz gogor izerditsuen artean. Ikusgarritasun oneko talaia batean kokatzea lortu genuen. Haraino heltzen zen kirats lodia, ke eta esentzia zorabiagarritz zamatua, dantzako oldearengandikoa. Nire lehengusuak eszitatua eta dibertitua zegoela zirudien. Nik ez nion nire kezka sakonenen berri eman, ez zehatz-mehatz, eta nahiz eta ugari ziren liskargile-koadrilak, inon ez nituen ikusten *Pechotoro* eta bere *Pechetteak*, eta horrek pixkana laxatu egiten zizkidan esfinterrak. Tribuna hartatik xehetasunez ikus zitezkeen estantzian zeuden elementu anitzak eta

haien jokabide bitxiak. Han zebiltzan otso koadrilak
igandetuta disimulu eskasez begiratuz ardi iheskorrei.
Barran jartzen ziren lautadako bakartiak, kubata alboan,
bere unearen zain, *saloon* jarreraz.

Koadrilatxo trinkoetan antolatutako neskak etengabe sartu
eta irteten ziren bainutik, bulkada arraro batek harrapatuta
edo. Itxuraz berdina zen dantzari oldeak ere pistan,
erakusten zuen, ongi behatuz gero, zenbait ñabardura:
azarri hesteratua mokorra astintzen, neska bakarti dibinoa
adatsa astintzen, ipurdi begi-luze maltzurra, mozkor
amorragarria, etxean koreografia txepel bat entseatu duen
neska pareak. Nik, egiaz, ezin nuen ulertu zer ikusten zioten
hain dibertigarri. STORM eszenatokian agertzekoa zelako
izan ezik, zer grazia zeukan hark?

Bero itogarria egiten zuen, oxigenoa eskas zen ke-laino
kirastu hartan, modako musika, “Filadelfia soinu”
jasanezinak burrunba egiten zuen buruko-min gogorreraino
eta edonolako leku aldatzek astindu izerditsua zekarren,
betilunen oldeetan. Zoroetxe hartatik kanpo baziren kaleak
paseatzeko, bankuak esertzeko, tabernak itomenik gabe
kontsumitzeko. Bai, zalantzarik gabe zerbait oso indartsua
eta kitzikagarria zen denak leku batean biltzen zituena,
kontatzeko duin izango zen zerbait gerta zitekeen lekuan,
zerbait horrek agian bazuen ikustekorik lainoki fokuen
artean dirdira egiten zuten praka estu haiekin, nire
begiratua eramana baitzuten, ia nahi gabe, puntu finko
baterantz.

-Kontsumizio bat zeukaagu. Goazak zerbait eskatzera.

Nire lehengusua aspertzen ari zen. Beheratu egin beharko genuen. Ondo pentsatuta agian alkohol pixka batek on egingo zidan egoerari aurre egiteko –“kontzertu” kontu hori garai hartan orkestra sinfonikoetarako bakarrik erabiltzen zen-.

Juamparen esperientzia handiagoari kasu eginez, ikasle festaren bat sikiera ezagutzen baitzuen, onartu nuen txokolate batidoa eta Licor 43 nahasketa gozoegia zanga-zanga sartzea. Hura gogoratze hutsak heste-minak eragiten dizkit, baina neure orduko urdail burdinazkoak apenas nabaritu zuen aldaketarik. Nire buruan bai igarri nuen, bai. Alkohol dosi ezusteko horrek mamuak uxatzen lagundu zidan. Azkenean lortu nuen nire lehengusuaren bromaren batekin barre egitea eta igandeko zonbi oldearekin bateratzea. Hain solte sentitu nintzen, eszenara hurreratzea proposatu nuen holaxe.

Zergatik ez? Seguru asko banda zuzenean ikusteko gogo benetako gehien zuenetako bat izango nintzen. Aurrera egin genuen bultzada harat-honat artean eta dantzarako pistara heldu ginenean zoria alde izan nuen: burrunbaz hasi zen SUZI QUATROren 48 Crash eta biok sentitu ginen animatuta dantza-modukotxo bat entseatzeko.

Tira, gauzak ongi zihoazen. Dasta nezakeen nire lagun –zalantzarik gabe- harrituei kontatuko nien kontakizun bizia: “Ez dakizue, ondo, Young’s-ean egon nintzen eta primeran pasa nuen, batido bat hartu nuen Licor 43rekin eta asko dantza egin nuen eta kontzertua putamadrekoa izan zen”... Ez Juampak ez nik ez genuen dantzaz lasai gozatzen. Egiaz, gozamina, ausartze hutsetik zetorkigun, geure

burua ikustetik guzti baten parte izaten non ez zen nabaritzen -hala geunden gu- gure ageriko gaxtetasuna, are gehiago, zin egingo nuke inguruan geneuzkanetatik gutxik jakingo zutela abestia nik bezala. Notaz nota gure giharrak askatuz zihoazen, mugimenduak pixkatxo bat ausartagoak ziren, gitarreo itxuraren bat eginda eta ahopean korua egiten hasten ginen estribilloaren antzeko zerbait. Politegia egia izateko. Azken akorde rockeroen atzetik DEMIS ROUSSOS madarikatua eta honen *Velvet Morning* eztegia etorri ziren, kolore mozkorraldia ilunpe bihurtu zen. "Agarraoa" hasi zen eta pistak segundo batzuetan erabateko birmoldaketa izan zuen. Buru asaldatuaren oldeak zona hutsik utzi zuen eta tantaka astiro bikote akoplatuek zonalde hondatua birlandatu zuten. Gizonezkoen faunak gaizki disimulatutako bilaketa hasi zuen pieza egokien bila eta neskek diaspora hasten zuten atzeguardia posizioetara. Hura ez zen guretzako egina edo hala uste nuen behintzat nik.

-Dantza eskatuko diagu?

-Hi erotuta hago, begira ze neskak, hauek guztiak gu baino askoz nagusiagoak dituk, ikusi ere ez gaitiztek egiten, ikusezinak gaituk. Gainera mutil-lagunen bat moskea litekek.

-Ez ezak esan txorakeriarik, nahi ez badute ezetz esaten ditek eta kito. Ikus.

Soltura horrekintxe mugitzen zen ene lehengusutxo. Saila tarte labur batez bistatu ostean, mahai baten inguruan alai hizketan zeuden neska lagun koadrila batengana hurreratu zen eta irribarrez eskaini zituen bere zerbitzuak. Eskaintza oso dibertigarria iruditu zitzaien nonbait, zeren kolpetik

denak lehertu ziren barrez. Nolako paloa Juampa gizajoarentzat, ni prestatzen ari nintzen elkartasunezko animoen saioa egiteko, eta une horretan, ni harrituta lagaz, neska bat irribarretsu altxatu zen eta bai!, harekin dantzatuko zela. Hori ez zegoen gidoian. Nire lehengusua irribarretsu dantzan, morena txiki, baina itxurazko batekin eta ni zutabetik begira lelo aurpegiarekin. UMBERTO TOZZIk ilustratzen zuen eszena, oka egin arte errepikatzen zuen kalaka amorragarri harekin: “Te Amo, te aaamo”.

Bakarrik geratzea, minutu batzuetan baino ez bazen ere, ez zen gehien nahi nuena. Pose gogorra eta inguruarekin guztiz ezagutua marrazten saiatu arren, nire izurik handienak itzuli ziren. Diskoteka oro har lurralde makarra zen eta Young’s bereziki haien feudo faboritoetako bat. Sartu ginenetik, bezero bolumena handituz zihoan eta aretoan egotea geroz eta deserosoagoa zen. Kea, lurrin oldarkorren nahasketa eta gradu etilikoak igotzeak temperatura goratzen zuten unetik unera.

Argiak apalduak ziren ilunpera arte “agarraoa” girotzeko eta ispilu bola argi distirak islatzen hasi zen, zirkulutxo zuri euria paseatzen zen zirikalari bazter guztietan. Une batean bistatik galdu nuen ene lehengusua. JANE BIRKINen *Je t’aime moi non plus* abesti zakil-berotzailea entzuten zen, hainbeste hankarte zirraratu zituen eta dantzan zeudenek pista gainezkatzen zuten. Nik ez nekien non kokatu. Azarri hordi batzuek bultza egin zidaten pasatzean eupara pixka batez eta ni ez nintzen seguru sentitzen zutabeen. Bulto ilunen artean zonbi gisa noraezean ibili ostean, serioски pentsatu nuen garaiz ihes egitea. Egia da, emanaldia ikusi gabe geratuko nintzen, baina nork goza zezakeen inguru

hartan? Hala segituz gero ROLLING STONEsek ere ez zuen merezi. Hori gutxi balitz legez, edari melekak hark, dantzaren astinduekin batera, asaldatu samar nindukan. Aldiro iruditzen zitzaidan argi puntu mareatzaile haiek *Pechoto*-ren ezker begia, eskuin belarria edo arrano sudur ezin nahastuzkoa erakusten zidatela. Baina nola joango nintzen ba Juampa han barruan utzita? Hura zoritxarra, ustez bera zegoen nire lurraldean eta ez alderantziz. Garbi zegoen Donostian zuen bizitzak bazituela nik ezagutzen ez nituen aldeak. Hainbesteko soltura diskoteka ezezagun batean ez zen gauza normala. Nahasmen une haietan gaueko lehen liskarra gertatu zen. Lehenbizi neskazko oihu aztoratu batzuk entzun ziren, eta ihes asmo bat. Zerbait bereizi ahal izan nuenerako, bi aurkariak elkarri irainka zeuden eta ttu egiten zuten aurpegiak furiaz ubelduta zituztela, eta beren kohortek indar erakustaldiz aldentzen zituzten. Borrokarietako batek, altu eta kaskailu, zeta gorri ikusteko bat zeukan alkandoran. Harritu egiten nau gogoratzeak areto hartan ez zela inolako ordena zerbitzurik. Zerbitzari batek, moztaka, trinkoa eta zirt-zart handikoa, aretorik bota zituen segundo batzuetan, aginte ganorazkoz eta inori ez zitzaion bururatu txistik esatea.

Eszena hura ikusten buru-belarri nengoen, nabaritu nuenean ezker ipurmasaila estutzen zidan gauza gogor bat. Izu korrante bat jabetu zen nire borondateaz eta nire barrabilak uzurtu zituen miniaturaraino. Bera zen, bai, nire lehengusu pailazoa, begiak lurrunduta eta konbinatu txokolatero horietako bat esku banatan.

-Hik sartu didak sustoa, mongoloa!

-Eskuak okupatuta zeuzkaat... eta ez hadi kexatu, gasolina dakarkiat.

Ez dago esan beharrik arindu handia izan zela. Kezkatzen hasita nengoen beraren dantza uste baino urrunago joana ote zen eta orduan “ilunpean maniobra orkestralak” egiten ari zen. Ikusiak ikusita, ez ninduen asko harrituko. Halako gertaera batek ondo baino hobeto justifikatuko zuen nik abandonatzea, baina, egiaz, putada galanta izango zen.

Nire lehengusu kabroi puskak arratsaldeari ateratzen zion bai zukurik. Arrapaladan hartu ahal izan genituen “puff” batzuetan eserita, Juan Pablok berriz harritu ninduen iragandako minutu luze haien kontakizunarekin. Beraren bertsio arrapaladakoaren arabera, neskak bi bider estutu zizkion titiak bularraren kontra eta ezpaineekin ikuttu zion doi belarri inguruan...

-Leloa nauk, igotzeko esan banio, seguru nirekin batera etorriko zela erreserbatura.

Bekaitza. Sentitu nuena horixe izan zen, bekaitza. Lehengusutxoari ez nion inbidiarik izan sekula -eta ama neurea saiatzen zen bai saiatu- ez eskolaz kanpoko jardunik, ez ohorezko matrikula olderik, ez haren abestien txalorik, ezer ez, baina hainbesteko ausardiaz ezezagun bati dantza eskatzea eta honekin haragizko jarduna egin zezakeela pentsatzea bera... horrek, aitor dut, barrena jaten zidan.

Tragoak arindutako elkarriketa alai hartan, Juan Pablok nik ezagutzen ez nituen gako batzuk sartu zizkidan. Zital halakoak dastatuak zituen zenbait gozamen haragizko, ez

noski *Emmanuelle*-n agertzeko dina, berez ez ziren igurtzi batzuk eta musu iheskorren bat baino; luxuzko palmaresa zen, baina, entzuten zeukan ezjakin harritu harentzat. Gakoa irlandar udaldietan zegoen, nik hura irudikatua nuen tortura didaktiko jasanezinezko baten mende, familia natibo ezin sartuzkoetan.

Lehengusutxoak egundoko solturaz edaten zuen, solte eta “helduta” gutxi-usterik gabe, eta erne, bere balentriak kontatzen ari zela *Lola* pakete bat atera zuen alkandoratik, berez egiten den keinua eginez, eta zigarro bat piztu zuen estibatzaile baten teknika seguruz.

Ez zegoen zalantzarik, odol bereko izan arren, eta kilometro gutxitara bizi arren, bera hiriko mutila zen eta ni, hormigoizko oihan batean bizita, gainera herri bateko mutila nintzen, ikuitzak arrautzak. Arratsaldea aurreratu ahala, Juamparen itxura hain apain hura, hasieran hainbeste arduratzen ninduen, mundutarrago eginez zihoan. Orain orraztu gabea zegoen, apenas geratzen zen gomina arrastorik eta alkandora zeraman izerdi erreka bustita eta zilborreraino irekia.

Juampa, lehen aldiz bere historia laburrean, bere kabuz ari zen lortzen nire amak bere bizitza osoan lortu ez zuena: nire miresmena. Bere egitandi sexual europarren kontakizunen artean, nik soilik ahopean esan ahal izan nuen gezur txikiren bat herriko festetan girotua -jakina-, asmatu ahal izan nuen egiantzekotasunik handienarekin -ez handiegia, beldur naiz-. Oyancas-eko zelaietan gertatu zen balizko zirri haren xehetasunez jakin-mina zuen unean, Mamy Blue-ren melodia sadikoa eten zuen disc-jockey

berritsu batek, “40 Principales” eskolakoa, eta megafoniaz iragarri zuen laster agertuko zirela eszenatokian STORM taldekoak, “Sevillatik beren rock gogorrarekin”.

Ez, hari ez zitzaion erantzun poz oihu berebiziko batekin, ezta zerura altxatako ukabil itsaso batekin ere. Une horretan dantzarik gabe geratu ziren bikoteak nagi atera ziren pistatik amorru aurpegiz.

Kontzertu pentsaezin hura hain ahaltzu egin zitzaidan, batzuetan kosta egiten zait sinistea benetakoa izatea hura. Han ez zen liturgia aurrefabrikaturik ez made in London azken bideoklipetik kopiatutakorik. Rock kañeroa eta ikusgarria *rara avis* zen eta artean kaptazio fasean zegoen. Han geundenetako gutxiengo txiki batek baino ez genuen susmatzen ikusiko genuena, gainerakoek, ohiko olde diskotekeroak, bazuen ikusminik, baina ez mendetasunik. Egun hartan ikusi ahal izan nuen nola banda batek kostata lortzen zuen txaloa, melodia batera kantatu bakoitza, pelbis mugimendu bakoitza, harik eta bis erabat zintzo gorgarria merezi arte eta, pospolotxorik eta zeremonia aurrez prestatutakorik gabe. STORM, izenak ongi zioenez, energia ekaitza zen, erritmo atertu gabeko atseginetan emana. Lau tximadun beren postuak segurtasun osoz betetzen, zeinak abestiak aurkezten zituzten txandaka lehentasuna hartuz eta elkarri hitza kenduz erabateko aurpegiz. Hirurogeita hamargarren hasiera hartan derrigorrezkoa zenez. Bide eman zioten baita ere bateria soloari ere. Berdin zion JUAN BAUren kontzertua izatea edo LA CHARANGA DEL TÍO HONORIOrena. Perkusionistak hiru erredoble segidan lotzen baldin bazekien izorratua hengoan. Solo puta hura baliabide ezin

hobea zen abeslariak atsedean har zezan eta denborak aurrera egin zezan, hala, batakaren trebetasunen erakustaldi astunaren ostean, zetorren edozein abesti esker onez hartzen zen. STORM taldeak ere erabili zuen truku hori, baina beste era batera. Etsitzen hasia nengoen zartako gaindosia izango genuela, eta orduan tipoak salto egin zuen eszenatokitik eta guztiaren aurka bere makilekin errepikatzen hasi zen: baso, mahai, buru, lanpara, foku... hura bai hura! Artistak ezohiko zerbait lortu zuen: emanaldiaren ostean denek zuten mintzagaia... bateriaren soloa!

Jode, Nexus 6 erantzun-emaileak hau zioen Blade Runner-en: *Nik ikusi ditut gauzak zuek sinistuko ez zenituzketenak. Ikusi ditut nabeak erasotzen garretan Oriondik haratago. Ikusi ditut C izpiak dirdirka ilunpetan Tannhäuser-ko Atetik gertu. Une horiek guztiak galdu egingo dira denboran... negar malkoak eurtan bezala. Hiltzeko ordua da.* Bada, nire ere -nago- izorratuko nau ederki hiltzeak, eta zalantzarik gabe esango dut zuzenean ikusi dudala STORM taldea Young's Club-en.

Bai, baina ekitaldia aipagarria izanik ere, ez da hori kontatu behar nuena. Data hura neure gogoan iltzatzekoa zen gertaera bat baino gehiago zirela eta; nahiz eta esanguratsua izan neure lehen kontzertu fundamentuzkoa, ondoren etorri zenak bigarren mailan utzi zuen.

Diskoko argiak berriz piztu eta eszenario aurrean zeudenak sakabanatzen hasi ginenean hasi zen dena. Bat batean ulertu nuen, nire bizitza osoan baino alkohol gehiago edan nuela eta neure lehengusutxoak zeukan piura neurearen

isla baino ez zela. Desmadratuak ginen bai, dantzatuak eta saltatuak eta estribilloak koroa eginak eta ospatuak abestien amaiera berebizikoak. Orain bat-batean bata bestearen aurrean geunden, izerditsu, sinesgaitz, lerdoki barrez, elkarri esan gabe esanez operazioa arrakastatsua izan zela. Aurrez ikusi gabe, lehen ilaran egonak ginen eta orduan burua kafetera bat irakiten bezala zegoen. Bizkarretik helduta bainurantz jo genuen, amonaren etxean egiten genuen bezala, telebistako doinutxo hura kantatuz: “Había una vez un barquito chiquitito que no podía, que no podía navegar”. Hura zen momentu handia, “urtebetetzeetan” gozatzen zuten umeen eta muturra azaltzen zuten gazteen artean. Eta bai, orduan gertatu zen.

Bainura hurreratu ahala, bereiziz gindoazen atean agertzen zen irudia. Txulo plantan zegoen, esku bat aldakan eta bestea markoan pausatua. Laster onartu behar izan nuen horre agerikoa. Barruko korrante batek erraiak korritu zizkidan eta zorabioaren atean utzi ninduen. Bai, bera zen, kaiman hortzak erakutsiz irribarrez, zetorkiona dastatuz delicatessen bailitzan. Itxura batean ezerk ez zion munduan hainbat plazer ematen ezen ni torturatzeak, klaseko galdera madarikatu bati erantzutera ausartzea besterik egin ez nuen alproja ezgauza hain zuzen.

-Goazemak!

Oihukatu nuen izutua Juamparen besotik tiraka. Irteera nola edo hala iristen saiatu ginen, baina laster ikusi genuen eszenatxoa ez zegoela inprobisatuta: bi ohiko morroik bidea eten ziguten atean bertan eta kalera atera gintuzten, zerbitzaririk ordena jartzera etorriko ez zen lekura. Une

haietan izuak erabat gogortu ninduen. Berehala agertu zen *Pechotoro* pausu erlaxatuz eta keinu maltzurrez. Neure lehengusua eta biok erretenituta geunden bi kaikuk bihurritua baitziguten besoa bizkarraldearen aurka eta han pasatzen zen inor ez zen antza esku hartzeko asmotan.

-Ze, moteilek, apur bat ligetan?

Bi konpartsek barre egin zuten txiste on bat entzungo bailuten eta jefeak haserre itxura egin zuen:

-Ze pasatzen da? Ez al dostasue aituten? Gorrak zauzie ala nitaz paso egiten dozue? Hi, lau begi, kontestau, apur bat ligetan?

Makarrak delikatuki hartu zituen nire lehengusuaren betaurrekoak bi hatzekin eta lurrera eror zitezen utzi zuen. Guztiz eror zitezen baino lehen ostiko gogor bat eman zien eta errepideraino bidali zituen parabola eginez aparkatutako kotxeen gainean.

-Oh ene jainkoa! Hau zoritxarra! Zin egingo nuke kristal hautsien hotsa entzun dudala...

Orduan gertatu zen. Algara lerroen eztanda betean, belaun iheskor bat iltzatu zen *Pechotoro* oharkabearen hankartean eta hau bihurkatu zenean ezusteko “o” bat ahoan zuela, Juampak buruko bat eman zion bete-betean aurpegian -bizi bazara- sekula ahazten ez diren horietakoa. Gaiztoetan gaiztoena muturra odoletan zuela ikusteak eta minez bihurkatua, eragin izan zuen bi sikarioen artean eta ihesi abiatu ziren bizkor kalean behera. Nire lehengusuak ez zuen jokaldia errematatu. Ziztu batean ateratzen zuten betaurrekoen bila eta berotu zen egiaztatzean -baietz-birrinduta zeudela. Neure begiak ez zeuden prestatuta

horrelako eszena bat ikusteko. Juampablo bere biktimaren gainera oldartu zen, altxa zuen makarra zorutik paparretik helduta eta behin eta berriro zanpatu zuen han aparkatuta zegoen ibilgailu baten aurka.

-Zeinek ordainduko zidak hau, eh? (plof) zeinek? (plof), lelo bat haiz, aditzen? (plof), leloa (plof)...

Horrelaxe dira gauzak batzuetan. Juampa ezohiko hark, Mohamed Ali-k Sonny Liston nokeatu zuen bezala jardun zuenak, negarrari eman zion betaurrekoen zoria ikusirik. Eta une hartan asko miresten zuen memelo hau, kontsolatzen saiatzen zen, inoiz ikusiko nuela susmatuko ez nuen eszenarik harrigarrienetik urundu ahala. Dardarka neuzkan hankak eta ezin nuen eragotzi sarri atzera begiratzea han segitzen zuela egiaztatzeko: *Pechotero*, piltzar burumakur bat, zoladuratik auhenka.

Horixe dauka bizitzak. Zineak edo literaturak amaiera garbia izan ohi dute ondorioak ateratzeko, eta aldiz, bizitzak aurrera egiten du lehentxeago edo geroxeago dena izorratzeko. Beraz, astelehen hartan ni puteatzen segi zuten, baina, bai, ahaleginaren indarra txikituz joan zen pixkana. Beste inozo batzuk sartzen ziren haren ikusmiran, eta gogaikarria sakabanatzen zen.

Neure lehengusua bere bizimodu donostiarrera itzuli zen, jai-desfileak eta lizeo frantsesa. Hori bai, sekula gehiago ez nintzen trufatu bere eskolaz kanpoko jardueraz, bereziki “ai-kido” hartaz, izan ere, ez baitzen inolako txorrada. Diskotekak ez ziren sekula izan nire aisialdiaren parte funtsezkoa, baina bai rock&rolla, loriazko urteak biziko zituen eta gehiengoaren txaloa jasoko.

Aldiro diskotekaren aurretik pasatzen naiz. Urteak dira ez dabilela. Kate uger batek lokalaren sarrera erdikusten uzten du eta han daude aritu ziren azken banden iragarkiak. Lau tipo daude kamiseta hawaiiarak jantzita eta neska puska bulartsu bat, posterrean duten irribarre zoriontsua denborak egunez egun horiztatzen duela.

1985. EGUN BAT BIZITZAN

Trena leporaino beteta dago neurearen gisako irudi etsigarriez. Euriak txurrusta goibel jausiak sortzen ditu kristal ugerretan eta betiko paisaia nabar herdoilkarek are mehatxagarriago dirudite. Beste asteazken kakazu bat izan zitekeen, baina are txarrago gertatu zen.

Atzo berriz igaro nuen zentzuaren mugak daukan arrasto gorria, “La Herradura”ko nire kideekin gau *hooligan* horietako batean abiatzeko. Ez zegoen aurreikusita. Berez, Santurtzira heltzean, egun luze baten ostean, etxerako itzulbidea hartzean egon nintzen doi, garaiz oheratzeko asmo zintzoz. Txepela. Konturatu nintzenerako, nire oinak galbidearen aldatzean gora zihoazen, *mundu guztiak zure izena dakien* tabernara, *Cheers*-ek zioenez. “Dibertsio pixka bat merezi duk”, esaten nion horrelakoetan neure buruari, “ez da dena lan egitea eta lo egitea izango”. Hala, beste behin ere, ohiko dinamikan sartuta egon nintzen,

rock&roll/Voll-Damm/erre/barre, goizaldean hain emaitza negargarriak ekarri ohi zituen hartan.

Hala, hementxe nago ba. Hartu behar nuen trenaren hurrengoan eta gauza batzuetan esan liteke prehistoria dela: bagoi haietan naturaltasun osoz erretzen zen, erruz, eta “pikak” gogo biziz saiatzen ziren “debalde” bidaiatzen zuten koadrila osoak jazartzen, hauek batzuetan benetako akrobazia ikuskizunak ematen zituzten.

Nire gandua uxatu ahala, ditudan berehalako eginkizunez kontzientzia hartzen noa: hamarretan ohiko prentsaurrekoa Bizkaiko ahaldun nagusiak deituta, Makuak alegia. Itxura batean ez du zertan gauza zailegia izan, grabagailua jartzea da, funtsezkoa apuntatzea eta gero dena albiste bihurtzea ordu bietako albistegirako. Ez da gaurkotasun takikardiak joa, ez da *scoop* aurreikusgarria, ez dut nekatu behar izango galdera gakoak egiten edo titularrak hartzen. Informazioaren neofitoa naiz eta batzuetan galduta egoten naiz oihanetan, lorategi baino gehiago ez bailukete izan behar. Nire bizitza, bestetik, ironiari egindako omenaldia da. Ostegunean egon naiteke lunch bat estaltzen Enpresarien Konfederazioarekin eta larunbatean klase borrokara deika nire rock bandarekin. Bitasun honek egoera esperpentikoetan jartzen nau batzuetan.

Nire kezkarik handiena une honetan denbora da. Martxan doan trenera igo dut eta justu dauzkat minutuak Bilboraino joateko, “apeaderoan” airean irteteko, parkea gezi lez zeharkatzeko, emisorean trasteak hartzeko eta doi-doi leku zehatzean neu kokatzeko. Baina, zerbait hasi da okertzen. Sestao-Urbinagan trena atzeratu egin da berriz irtetea eta

orain, Olabeagan, nire ibilbidearen amaierako geltokirako bat falta dela, geldialdia normala baino gehiago da eta nerbioak bagoiz bagoi dabiltza marmarrean. Horixe, ahots metalizatu batek berretsi egiten du gure susmo txarra: *Bidaiari jaun-andreok, ibilbidean gertatutako arazo larriek eraginda, konboi honek ezin du bere ibilbidea osatu. Mesedez irten zaitezte ahal bezain laster. Eskerrik asko.*

Hasi naiz korrika. Korri egin dut trenbideen gainetik, bidaiari nagiak baztertuz eta errail eta trabesekin tupust eginez. Nire aurkako noranzkoan doazen langile artean noa korrika, atzean utziz garretan dagoen trena, ke pote eta pilotakada artean korrika, gasolina panikoa erabiliz. Harritutako kotxe eta goma-erretze balazta artean noa korrika, neure familiarekiko aipamen mikatzak erasanez. Parkea zeharkatu dut korrika, txakur gorotzek aupatua eta etengabe talka eginez era guztietako tamaina eta koloredun aterkiekin. Korrika noa, bularra besoarekin bateratu eta ziztadaz korritzeari uzteko exijitzen didaten arte. Emisoreko atea bostehun bat metrora dago eta prentsaurrekoa hamar bat minutura. Ez dago dena galduta. Pentsatzekoa den bezala, Kristinak, harreragileak, ezin dio algarari eutsi. Nire itxurak oilasko bustiarena dirudi noski eta ene keinua, zalantza barik, abiadak ematen duen rictus leloaren jabe da. Une batzuen buruan itzuli dira berri txarrak: -Ez da geratzen grabagailurik. Gaur deialdi asko dago. Honekin joaten ez bazara...

Gutik kezka eta irri-kutsu nahasketaz esaten dit. Eskaintzen didana bobina modelo handi-deigarria bat da, nik ezagutu ere ezagutzen ez dudana.

-Begitu, oso erraza dok, botoi honek eskumara, honek ezkerrera eta palankatxo hau on posizioan. Errebobinatu gura badok: hemen, eta entzun gura badok, hemen... barriz esatea gura?

Ez jainkoarren. Arriskatuko naiz, fidatuko naiz ene memoriaz, eta batez ere fortunaz, jakin badakidan arren badela betetzen den printzipio bat kasu hauetan: “Zerbait gaizki atera badaiteke, gaizki aterako da”. Lau mugimendu oso erraz bakarrik memorizatu behar dira. Hark eskujokariaren abileziaz egiten du, ferietako salerosle batzuk ohi duten horrekin berarekin, dena ebakitzen duen labana saltzeko erabiltzen dutena, gero deus ebakitzen ez duena. Ez dago astirik ikastaroak egiteko, beraz hartu dut bizkarrean museoko pieza eta hor abiatu naiz berriro kalera presaka, nire oroimenean eta zorian konfiantza izanik. Sikiera ez nau jefeak ikusi.

“Kontu izan desio duzunarekin, gerta ez dadin betetzea” esan omen zuen txinatarren batek. Horrelako zerbait gertatzen zait niri. Orain bi urte doi, esan balidate nire rock bandak jardun bizia izango zuela eta nire kazetari karrera nolabaitekoak lanpostu finkoa ekarriko zidala irratian, pitonisaz aldatuko nukeen berehala. Baina, egoera astunak maizegi gertatzen dira, ezagunegi ditugu, hodei baten gainean nabilela sentitzeko. Ez, egunez egun gertatzen direnak hodei beltzak dira gehiago, ekaitzak ez badira, eta are gehiago informatiboetan sartu nintzenetik. Hilabete gutxi lehenago ezagutua nuen norberaren saioaren gozoa. Mihise bat zuri, egunez egun bete beharrekoa, nik nahi nituen koloreak erabiliz... elkarriketak, muntaiak, musika, artxiboko soinuak, entzuleekin elkarriketak... eta gainera

soldata... gehiegi, gehiegi goizegi. Dena behera jausi zen, zuzendaritzak, audientzia igotzeko maniobran, Cuarenta Principales-eko ia langile guztiak fitxatu zituenean, “musika eta albisteak” irratia-formula eratzeko asmoz. Nire musikak nola ez baitzetozen ondo aire berriekin, albisteak suertatu zitzaizkidan. Laurogeiko Euskadiko informazio mundu zirrargarria: atentatu egin berriak, hileta suminak, prentsaurreko zaratsuak, kale borrokalari bihurtutako langileak, bandera gerra, “tostartekoak” “armadoreen” aurka... egun bakoitzean beste planeta arrotz batean aurki nintekeen, nekez interpretatzeko gatazka batean, non erraza zen begien bistakoa ikustea eta zaila egiaren errailetan arakatzea, edo hari hurreratuko zitzaion zerbaitetan. Batzuetan etsipenik handienez jausten nintzen: aurreko astean burtsako kaosaren erdian egon nintzen, hara bidalita kontsigna zirikatzaile batekin: Zurrumurrua zabaldu da, gaur burtsan zerbait potoloa gertatuko dela, joan eta jakin zer den". Bai, antza zerbait potoloa ari zen gertatzen, bai, baina zer? Beste hedabideetako nire kideek (zentzu hertsian), ez zeukaten lehentasun gisa niri ezer esatea eta ni trajedun psikopata haien erdian nenbilen ikusezina banintz bezala. Okerrago, enbarazu bat banintz bezala.

Zer esanik ez, nire ezjakintasunak arazoak ekarri zizkidan. Esan ohi denez, (eskerrik asko, Alkate) “barrabilak ebakiz kapatzen ikasten da” eta ni oraindik artaziak maneiitzen ikasten nabil (edo zernahi dela kapatzeko erabiltzen dutena, aspertzen hasia nago alderatze horrekin). Ondorioz, jakina, ez da arraroa batzuetan, niri albiste eskasek lan itzela eskatzea eta intereseko daturen bat hor nonbait geratzea. Burtsaren egunean, esate baterako, ez

zen intereseko ezer gertatu, baina nik pasatzen utzi nion broker jubilatu batek esan zidanari, egun hartan ezagutu nuen hark esandakoari: “Esan didatenez aurrezki kutxak fusionatuko dira”. Beranduago beste kazetari batzuekin komentatu nuen, arlo ekonomikoan “aditu” ziren batzuekin eta dena izan ziren irribarretxoak eta mespretxuak: “Fisikoki ere ezinezkoa da, kale asko egongo lirateke kutxa beraren bi sukurtsal dituen”. Bada, handik egun batzuetara albistea titularretan zegoen eta niri lelo aurpegia geratu zitzaidan, neukana baino gehiago.

Gran Vía egundoko burrunba ari da bihurtzen. Egun berri batera ongietorri egin didan su hartutako trena, urrats kualitatiboa da "Euskalduna"ko langileen etsipenean. Ondorioak katean, ohikoak azken hilabeteetan (polizien esku-hartzea, trafiko mozketak, suhiltzaileak, anbulantziak...) disparatu egin dira gaur paisaia apokaliptikoa eratzeraino, zientzia fikzioko film ezkor batetik aterata bezala. Orroka daude bozinak eta motorrak, eta oinezkoek pausua bizkortu dute tentsio leinua aurpegian dutela. Neuri, koadroa osatzeko, bizkarrean zulatzen ari zait gainean daramadan pisua. Korri egin behar izanda, zer egingo nuke lasta honekin?

“Bizkaiko Foru Aldundia”, “Diputación Foral de Bizkaia”. Hemen da. Zazpi minutuko atzerapena. Kalean dagoen kristoarekin seguru berandu hasiko dela. Eskaileratan gora abiatu naiz erabakimenez. Antza demonioaren tramankulu honek kolpetik galdu du bere pisua.

Kaka zaharra. Benetan galdu dut. Lotura askatu egin da eta tramankulua eskaileratan behera doa boteak emanez. Hiru

bote dira soilik, baina bularrean hartutako hiru labankada lez sentitzen ditut. Ene Jauna! Traje urdin ilunarekiko jaun batek ezustekoa hartu du beragana zetorren poltsa beltz handia ikustean eta heldu egin dio errugbi pilota bati bezala. Azalpenak emateko astirik gabe erauzi diot besoetatik barkamena eskatuz eta berriz ekin diot martxa itsuari. Arrasto lauso bat besterik ez dut batzar aretoa non dagoen. Beiratezko bi ate handi horiek gonbidatzaile dirudite. Bada argirik barruan. Ausardiaz sartu naiz irekitzean kristalek dagiten hots handiak sustatu bide ditu mahai obal handi baten bueltan dauden dozena bat inguru kazetari.

-Barkatu, ba al dakizue non den Makuaren prentsaurrekoa?

Isiltasun hits bat da antza jasoko dudan erantzun bakarra. Azkenean, bat, eguzki ederrak hartuta eta apainduta, nekatu kutsuz da erantzuten hasten:

-Aldundiko prentsaurrekoak Aldundian dira... hau Ogasuna da.

Denek egin dute irribarre maleziaz nire akatsa atzematean. Berriz ateak ixten ditudanean haien barre algarak entzun ditzaket. Egia da, presarekin ez naiz jabetu non sartzen nintzen. Letrero madarikatuak despistatu nau. Berriz jo dut kalera eta egoera txartu da. Orain trafikoa geratuta dago erabat eta gidari batzuk kotxeetatik jaitsi dira etsipen airez. Bozina kontzertuak bat egiten du anbulantzia ezinduenarekin. Zeru ugertsu batek multzoari ematen dio zapaltze aura bat. "Behintzat ez du euririk ari", diot neurekiko beste lasterraldi bati heltzen diodan unean. Orain pisua heldulekutik helduta daramat eta behartuta nago eskuz aldatzera lau urrats egin orduko. Min dut bihotzean,

hauspoa ezinean, nire bizitzako berrehun metrorik luzeenak dira. Azkenean foru jauregiaren aurrean ikusten dut ene burua, baina garbiketa langileen kontzentrazio bat zeharkatu behar dut, harmailadian daude pilatuta.

Hainbesteko erabakimenez egin dut, batzuek oreka galdu dute. Mailak igo ditut entzunez atzeko ziztuak eta aipamen desatseginen bat nire ama maiteaz. Sarrerako ate handiak itxita daude. Okerrenaren zain nago. Saiatu naiz irekitzen, atea eman du arazorik gabe, baina aldundiko polizia batek seko geratu nau juxtu sarreran.

-Nora uste duk hoala?

-Makuaren prentsaurrekora- lortu dut esatea arnas estuan-.

-Prentsaurrekoa? Ordu erdi eta gehiago da hasi dela. Ezin da pasa.

-Zaude. Oso garrantzizkoa da ni hor egotea- esan diot begietara finko begiratuz-. Zin dagit, uzten ez badidazu irratitik kontatuko dut- erantsi dut, sinistu gabe neu naizela hori dioena-.

Hasiera batean txapelgorriaren erreakzioak desafiotik badu, baina pankartako taldearen kontsignak isildu dira eszena ikusita eta azkenean amore eman du.

Eskailera gehiago, ate gehiago. Zein ireki? Non da deialdi madarikatua? Nire arnas itoa eta nire taupadak bere onera etortzen ari direla, urrutian marmar bat nabaritu dut, solemnitaterik zerbait duena.

Gerturatzen noan neurrian, ezagutu uste dut ahotsaren tinbre bat enfatikoa, ahaldun nagusiarena izan daitekeena. Ireki dut pittintxo bat atea eta oraingoan bai: ogibide bereko

kide batzuk daude Jose Maria Makua buru duen mahai itzel distirant batean eserita. Ni gelan sartzeak apur bat eten du bere jarduna eta buruak neure aldera birarazi ditu.

-“Egun on mutil, jesarri zaitez”.

Esan dit diputatuak, patxada ederrean. Baina oraindik ez noa esertzera. Aprobetxatuz nire irudiak interesa galdu duela, asentu libre bakanetako batean eseri naiz, hizlariaren aurkako muturrean eta saiatu naiz diskrezioz nire tresneria guztia poltsatik ateratzen. Nik uste bezala, estalkitzat zegoen karkasa gardena, dezente pitzatu da erorikoan eta bobina biak atera egin dira beren lekutik. Ondo hasi gara. Atera dut aparatua osorik, jarri ditut zintak leku egokian, sartu dut mikrofonoaren larakoa eta neurekiko gogoratu ditut jarraibideak: “Ezker, eskuin, *on*”... ongi. Hautagailu bakoitza mugitzen dut Gutik esan –uste- didan bezala eta ... bai! Vumetroen orratzak badabiltza antza ondo eta pilotutxo gorri batek dio grabatzen ari garela. Eskaileretako deskalabruaren ondoren, mirari bat da. Ongi, Roberto, ongi. Nire artilleria astunarekin hizlariaren ingurumarietara hurreratu aurretik, begiratu azkar bat eman diot. Denek ez naute ikusten antza, salbu eta ulegorri betaurrekodun batek, disimuluz begiratzen du eta aurpegian txantxa pixka bat erakusten du. Agintaria inguratzen duten aparatuak arinak dira oro har: sei edo zazpi grabagailu eskuzko, eta, pare bat Sony portatil mikrofonoarekin. Nire posiziotik kalkulatu dut non jarriko dudan nire trastea eta mikroa eta ekin diot bideari. Saiatu naiz axolagabetasuna, errutina kutsua erakusten. Astun demonioarekin aurrera egin dut, jarri dut mahaian, inguratu dut mikroa bere lekura eta berriro banoa beste muturrera. Eragiketa horretan, ahaldunak begirunez eten du jarduna

nik lan egin dezadan. Boligrafoa eskuan dudala ikusten duenean, eta koadernoan zabalik segi du bere *speech*-a, hainbat kirol talderi emango zaizkien diru-laguntza zerrenda. Lasai arnas hartzeko puntuan nago baina onena (edo txarrena, nola begiratzen zaion) iristear dago. Politikariaren hitzek oihartzuna dute, bat batean, Okerrago, “Rever” daukate. Haren ahotsa segundo batzuetako atzerapenez aditzen da eta erridikulizatua, kasetearen soinu metalikoz. Hasieran harrimen pixka bat baino ez du agertu, baina ondoren nire prentsako kideek duten aztoramenak enbarazu sortu dio antza:

-Ea, mesedez, kendu iezadazu tormentu hau hemendik, egizu fabore.

Esan dit, ez sumindura pixka bat gabe.

- *Ea, mesedez, kendu iezadazu tormentu hau hemendik, egizu fabore.*
- Errepikatu du makinak tonutxo errobotikoz.

Bertan daudenei algara nabarmen bat lehertu zaie eta ni grabagailurantz abiatu naiz zertarako ongi jakin barik. Peter Sellers eta lehen Woody Allen haren gurutzaketa sentitzen naiz. Eman diet botoiei eta palankei errepresio joranez, baina ez dut lortzen hura geratzerik. Alderantziz. Nire mugimenduren batek eraginda txirrikak zoroaren pare hasi dira aurreratzen eta azkenean aparatutik kanpora uzkaileten dira eta orduan deskojonoa jada neurrigabea da. Nire harridurarako –eta arindurako- egiaztatu dut ahaldun nagusia bera barrez lehertzen dagoela aurpegia eskuarekin estaliz. Prentsaurrekoak bost minutu luzeren buruan segituko du. Ordurako pleistozenoko aparatua bazter dago eta moldatu beharra daukat apunteak hartuz, buru-belarri.

Aretoa hutsik dago. Minutu batzuk dira azken kazetaria joan denetik. Bakarrik nago, neure eserlekuan abaildua, traste pitzatu eragabetu bati beha. Leihoa zehar ikus dezaket euria itzuli dela.

Orain arte dena zentzugabekeria izan bada, datorrena kataklismoa izan daiteke. Ea zein ausartzen den orain emisorera itzultzen ahots korterik gabe eta grabagailua hankaz gora duela. Porca Vita.

Juxtu etsipenak eta Titanic sentimendu sakon batek hartzear nautenean, zerbaitek arindu nau. Baten batek eskua jarri du ene sorbaldan, neure izena esatearekin batera.

Bera da. Begirada kristalduna duen ulegorria.

-Barka. Ez dut neuk zinta beharko, prentsa idatzikoa naiz eta, nahi baduzu zeuri pasako dizut...

-Baina... seguru?

-Jakina, beste egun batean akaso aldrebes pasako da, ezta? Aizu, ni ez nintzateke hemen denbora asko geratuko. Une batetik bestera kristorena izango da hemen...

Eta bai. Kalera irten dudanean "kristorena" hor da. Mundua antza erortzen ari da polizia sirena, anbulantzia, suhiltzaile eta bozina haserretu artean. Berriz kortarako bideari heldu diot. Egur partiketa, harriak eta seinaleak okertuta. Kontsigna mikatzak eta euri jasa amorratu batek ke-poteen kea ezabatu nahi du. Baina guztia zait berdin. Bihotz zoriontsua dabilkit taupaka bularrean eta neure ezpainak arkutu dira nahi gabe melodia txepel bat ziztukatzeke.

Grabagailua hautsita dago, bai, baina, ikusi al duzu ze Kristo dagoen kalean? Miraria da osorik heldu izana!

KALIMOTXO DENIK ETA ONENA

Bai, ulertzen dut. Hau galdetuko duzu zeure artean: “Nork preziatu dezake egiaz horrelako edabe bat? Inork ez du esaten denik eta gozoena dela. Haren ekosistema txosna da, haur moxkor koadrila, pintore burukoarekikoa eta plastiko belaxkako edalontziarekikoa, izenez basoa, txanbila edo -adur hondarretan- “katxia”. Asko jota errukiz maitatzera heltzen zaren gauza horietako bat da. Haren izen onaren galera nabariak samurtasuna baino ez dezake eragin. Azken batean, nola gorrotatuko duzu? Parrandatako laguna izan da, gaztaroko oroipen ona (oka saioaren bat tarteko), sexu usaineko gerturatze baten eragile nagusia. Gaizki? Kalimotxoa irudikatzen dugu galerna betean bezala, olatu bisdunak airean saltaka eta zintzurretan behera banatzen ponposo. Pote bezala eskatzen baduzu esango dizute amaitu direla jaiak. “Kopa” bezala eskatzen baduzu guarda batek disko-pubeko irteera adieraziko dizu. Zure otorduan lagun degizun nahi baduzu, edozein jatetxeren kategoria minduko duzu. “Udako ardo beltzak” bakarrik disputa liezaioke kutretasunaren podioa, baina duen izaera familiarrak ematen dio ondradutasun bat, ospea ez izanik ere. Azken batean bi edari herrikoi horiek logika bera dute ardatz: -Ustezko- ardoaren ekoizpen ugari susmagarria, zeinak konpainia inozente bat eskatzen duen bere mikaztasuna leuntzeko. Alondegietatik ateratzen den ardo txepela, sartzen denaren bikoitza ateratzen baita,

soilik edan liteke –borondate ona izanez gero- beste zerbaitekin nahasian. Ardo kaxkar bat zintzurretik behera sartzen duen baten irudia errealismo zikina da jadanik.

Behinola irratian entzun nuen konpartsako kide zaharren koadrila batek jatorrizko izendapena eskatzen zuela. Izenak, bazuen, antza, inisial konbinaketaren bat eta haiek ziotenez, ardo mindu partida bati aterabidea eman beharretik sortu zen guztia. Joan eta jakin.

Neure bizitzan bi bider probatu dut kalimotxoa. Lehen aldia oso aspaldi izan zen, ahaztuta eduki nezakeen lasai asko, baina, huraxe da ene oroipenik maiteena. Kalimotxo errekek edan nituen, mundu guztiak hori egiten baitzuen, festetan geundelako, abuztua zelako, gaztea nintzelako eta, batez ere, zuregana gerturatzeko beharra nuelako.

Tira, aspaldi utzi nion maitasunaren mekanismoak miatzeari. Izan liteke artea eta literaturari kutsua ematen dion erromantizismo hori guztia desira sexualaren sublimazioa bakarrik izatea, gure aitaz mendekatzeko modua edo inork beti defenda dezakeen azalpen errespetagarri edo xelebrea. Historia zaharregia da nik ezer berririk aurkitzeko. Azkenean, agian, inporta duen bakarra, norberak nola sentitzen duen da. Gaztetan maitasuna puru eta goia sentitzen ez baduzu, izan liteke sekula ez sentitzea. Gaztea den norbaitek, ligatzeko orduan, interes materialak neurtzea oso arraroa da, nola baiten aita bat bere -eman dezagun- alabari aholku ematen, bakarrik pentsa dezala “ea benetan maite duzun”.

Nik orain berriz irakurtzen ditut gaztetxotako eguneroko haiek eta ez dago zalantzarik: maiteminduta nengoen itsuturik neska batez, egiaz ezagutzen ez nuen neska batez. Nahi gabe, Anak urduri jartzen ninduen, hor izate hutsarekin, mugitu behar zuen moduan mugitzen zen, berariaz niri gustatzeko diseinatutako zapiak buruan eta kamisetak zekartzan eta begiratu hain bizi hark kontraste egiten zuen aire despistatu delizioso batekin. Bera zen, antza, munduan bakarra, bonbilla pizteko behar zen kontaktua egiten zuena.

Ez, ez ni irudikatu maitasun eriz dagoen gizagaixo ez oniritzitako gisa. Neure aukera apurrez sinetsita, gutxienez banuen aski argitasun ez itsutzeko. Ana neure bizitzan zegoen, baina baita ere futbola, Frantziako Tourra, mendiko txangoak, abandonatutako etxeetan sartzea eta nola ez, “bizitza honetan zerbait izan” nahi banuen jasan beharreko unibertso akademiko astun guztia. Garai hartan mindulinkeria zen nagusi, neska eta mutilen arteko harremanak ezjakintasunez eta elkarrekiko errezeloz beteta zeuden. Emakumeen unibertsora hurreratzea gauza konplikatua zen. Mundua, gure mundua, koadrilatxo itxietan eratua zegoen, elkarri disimuluz begira parkeko paseo amaigabeetan. Dibertigarri oro murriztea oinarri zuen aldi baten azken hondarrak hartu genituen oinordetzan. Eskerrak aldaketa garaiak ere baziren eta askatasun olde bat sartzen ari zen lehertzeaz zegoen sistema baten zirrikituetan.

Ezer gertatzen ez zen amaigabeko urte batzuen ostean, 73. eta 77. urteen artean hainbeste gauza gertatu ziren, ez zegoen nork aurreko astea ezagutu. Franco hil zen, kaleak

bizitasunez bete ziren eta debekatu oro interesgarri bihurtu zen.

Anarekiko neure aurrerapenak ez ziren ikusgarriak, baina gutxi-asko eragindako egoeretan trukatuak genituen esaldiak folio erdi betetzeko adina. Gure itxura ere aldatuz zihoan. Berak hartu zituen forma eta osagarriekin, mutil aukera zabalagoari erakargarri zitzaion eta nik, aldiz, estanpa lodikote eta alprojatsua nekarren, disimulatzen oso zaila. Nahi eta nahi ez, lehia sortzen hasi zen eta gordinena izan zen egiaztatzea nola baten batek, aukera handiak ere bazeuzkala.

77ko festa haiek itzulerarik gabeko puntua markatu zuten. Aurrera urrats bat ematen ez banuen, aurea hartuko zidaten. Hilabete gutxi batzuk lehenago, ikusia nuen haren burua sorbalda arrotz batean pausatzen. Eszena laburra, flash sinple bat... neurri handiko disgustua.

Institutuko ekitaldi aretoan itxialdian geunden. Ikasle talde ugari bat, greban zeuden irakasleei sostengua ematen, sakonean natura-kontrakotzat neukan hura, baina bazeukan bizigarri estrarik: bokatak, lozakuak eta ordu asko titidun izaki estrainio horiekin partekatzen. Aukera ezin hobeia zen elkarrizketa folio batekoa, folio eta erdikoa izan zedin. Gauzak ezin okerrago joan ziren. Dibertsio hoberik ezean, abesti herrikoiak jabetu ziren itxituraz eta trobadoreetan batek bereganatu zuen ia arreta guztia. Oscar zuen izena eta haren “gizatasuna” hasierako “O” horren araberakoa zen. Gizen madarikatu hark ereserkiak kantatzen zituen, neskak ahozabalik uzterainoko grazi eta engainuz. Kantatzen zuen artean, begiak ixten zituen

indarrez eta amaitzean, beti estasi giroan, atseginez irekitzen zituen, txaloen artean flotatzeko eta bere hortz handi dirdaitsuak erakusteko bizar sarri haren erdian. Nik ere amorratzen egiten duen txalo, hura lepotik heldu eta itoko zuten esku berberekin. Anak liluraturik entzuten zituen Che Gevarari, VICTOR MANUELen aitonari, ITZIAREN semeari eta emakume izen luze-luze bati -Amanda, Yolanda, Adela...- egindako kantuak, eta hori alibi zuen neska honi edo hari inpunitate osoz begia kliskatzeko.

Bai, ziurrenik gorroto nuen. hala agertzen da, bai, lehen eguneroko haietakoren batean. Baina egiaz tipo inportantea izan zen ene bizitzan. Sekula ikusi ez banu burutxo hura ia amoroski pausatzen sorbalda haren gainean, segundo hamarren hartan, seguru asko ez nion sekula erasoari ekingo.

Jai gaindiezin haietan guztia lehertu zen. Jainkoaren arduratasunak -estrategia apur batek lagundurik, bai- nahi izan zuen jaitsiera, Portugaleteko aldapak jauzika jaisten dituen gazte olde jendetsua, elkarrekin egitea. Bata bestearen ondoan, lehen aldiz, bizkarretik helduta lagungin, fanfarreen erritmora lauhazkan. Kalimotxoa ari zuen eta nik nabaritzen nuen, edo nabari uste nuen, nire esanek bazutela erantzun eskuzabal samarra eta gauza guztietan onena... ni bera zer zen seguru nekiena, huraxe zela bera. Haren zintzilikario, diadema, plaiera,... arrantzale arroparen isla leiala, beren gonazpiko eta puntillekin, neuri arnasa eteteko eran geratzen zitzaizkion. Dena gera zitekeen hartan. Baina egun hura neure egutegian seinalaturik zegoen.

Ezer falta ez zedin eta giroak behera egin aurretik, poliziak kargatu zuen. Urte haietan gutxiren faltan ez zuten jarri jai-egitarauan, entzierro moduko bat. Minutu batzuen buruan, dena bete zen kez eta oihuz. Tiro-hotsa heltzen zen bazter guztietatik eta jende-sakabanatzeak aldendu egin gintuen Portugaleteko arterietan. Capitan Trueno mahoi jantzian bezala, eskutik eraman nuen kale eta kantoietan zehar, barrikadak saltatuz eta pilotakadak saihestuz, ausarten suertez. Hainbeste urte kalerik kale ibili ostean hor nuen ordain gozoa. Nik banekien zein atarik zeukan atzeko irteera, ezagutzen nituen patio eta lorategien arteko pasadizoak eta erremate gisa, babesleku seguru bat sumatzen nuen. Haietako polizi karga orokortu batek lor zezakeen halako prodijioa: munduan gehien gustatzen zitzaidan neska nire eskutik sartu zen hilerri batean eta arindua zirudien, ia alaiki, jatea asko zeukan gizenak bere gitarra, behingoz destinoa taldekide nuen.

Mozkortuta, bihotz-pilpira biziz, gerrako pelikula bateko heroi sentituz, hilobien artean makurtu ginen harrabotsak isildu arte. Iluntzen ari zuen eta lanbro fina hasi zuen. Urak unetik unera erakargarriago egiten zuen, inguruko farola batek dirdai eragiten zien haren uztai belarritakoei. Oso astiro hasi ginen musuka, ia nahi gabe. Laster elkar jaten geunden atzeratutako antsiatz. Arnasestu artean esaldi etenak entzun nituen, amets bat berresten zutenak antza. Berak ere begia botata zidan neuri.

“Mozkortuta” diodanean ez naiz poesia egiten ari. Benetan mozkortuta geunden. Zalantzarik gabe horrek lagundu egin zidan super-heroia paperean, erraztu egin zuen gure bat-bateko irakinaldia eta amaiera bikaina eman zion, bion

okaldia Segurola-Dominguez familiaren panteoira (bisitatu ohi dut, begira ze txorrada). Edozein behatzailek ikusiko zituen bi gazte moxkor jaietan, bere animali sena askatuz dorpeki. Baina, guk -eta barka itxurakeriagatik- hilarrien gainean dantzatzen genuen gure valsik goxoenetakoa. Errealitatea ez da izaten zinematografikoa.

Hurrengo egunean ohetik altxa nintzen bi asmo sendoz, sendotasun berdinekoz: kalimotxorik berriz ez edatea eta Ana maiz-maiz ikustea.

Hainbesteko zortea hain garaiz putada ere izan daiteke. Izan liteke zuk uste izatea gauza naturala dela, gerta daiteke autoestimua goratzea ere, hori merezi duzula susmarazteraino. Elkarrekiko aurkikuntzen uda deliziosoan izan zen. Dena zen garbia, kitzikagarria, oso-oso samurra. Neure gurasoek txantxa pixka batekin begiratzen zidaten, jakinik ni txepel bat bezala adurra neriola jartzen nintzela hura usaindu hutsarekin, eta lagunek, nola ez, nitaz barre egiten zuten gaizki disimulatutako inbidiaz. Nago erreproduzitu egiten genituela lehen maitasunaren topiko guztiak, hazi zirela betirako promesak eta gure erromantze sendoaren baieztatze etengabekoak. Soilik laino bat-edo zegoen ostertzean, baina hain geunden lelotuta, biotako inork ez zion jaramonik egiten. Udaren amaieran bera kazetaritza ikastera zihoan Madrilera eta ni Bilbon geratuko nintzen, psikologia egiten. Aldez aurretik erabakitako zerbait zen, eta ez zirudien hain gauza larria. Bera sarri etorriko zen eta nik neure ihesalditxoak egin ahal izango nituen. Madril eszenatoki ezin hobea izango zen gure filmari eszena berri interesgarriak gehitzeko. Bai zera, kaka.

Udazkena oldartu zen eta guztia itsustu zen. Madril, egiaz, urrunegi zegoen eta konturatu nahi izan nuenerako aldatua zegoen. Alarmak oso azkar hasi ziren pizten. Karta bateko lerroen artean zegoen, telefonoko isilune batzuetan, ongiatorri batean beroan kendutako energian. Asteburu bakar bat Madrilen aski izan zen iratzartzeko. Ana denbora guztian bere jendearekin egon zen, eta haien aurrean “lagun bat” nintzela esanda aurkeztu ninduen, eta hori, egia zen, bai. Ni lagun puta bat nintzen, ez genuen sekula besterik sinatu. Urtu eta bat egiteko gutxiren faltan egon ginen uda hura, horixe zen, hormona leherketa uda, egiaz oroipen bat bakarrik.

Madril ere irakiten zegoen eta berak ere pozik zirudien zurrumbilo haren erdian. Bazter aldenduenetatik etorritako ikasleekin batera mugitzen zen, era guztietako buhameekin nahastuak hauek, errebelde izatera jolastuz gurasoen diruarekin. Bai, jakina, nabari da erresumina ezta? Berak asko irribarre eginagatik edo besoa bizkarretik pasatuagatik, bistakoa zen ni nintzela sobran zegoen pieza. Hilabete pasatxoan, begi urdin eta ele ederreko argentinar batek nire lekua hartua zuen eta hainbesteko konfiantzaz egiten zuen, ez zuen jeloskor agertzeko lanik ere hartzen. Hasteko hogeita bost urte erabateko zeuzkan eta bizi-ibilbide egundokoa. Ez, ez zen ni igo nintekeen ringa, neure buruaz beste egiteko ez bazen. Montoneroa izana zen Buenos Airesen, indiar metropolitarra Erroman, bertatik bertara Portugalen krabelinen iraultza ezagutzetik zetorren, zenbait hizkuntza lardaskatzen zituen, poeta zen eta aditua astrologian, MORIS eta TEQUILA lagun zaharrak balitu legeaz aipatzen zituen, musua gorritu gabe aipatzen zituen Borges eta Jack Kerouac eta trebetasunez armonika jotzen

zekien... asteburu batean horrenbeste luma zabaldu bazituen, ez dakit nik zer izango zen sarriko tratua. Anak artean nahiko preziatzen ninduen eta edozein umiliazio saihesten zuen, baina bistakoa zen beste lilura baten pean zegoela. Zer esan dezaket, neuk ere mutil hura aukeratuko nukeela. Autobus hartan igo nintzenean, ia errukizko musu baten ostean, azkenik gabeko errusiar-mendi batean igotzea bezala izan zen. Irratiak hainbat estadiorekin igandeko konexioak orroz botatzen zituen. Egun hartatik beti lotu dut “Carrusel Deportivo” erorialdirik sakonenarekin. Neure baitan jaio zen maitasunen aurkako “asegurua”, babestuko ninduen hura berriz pasatzetik eta horrela egin nion aurre neure bizitzako aldi berri bati, sinesgaitzak eraginda eta -zergatik ukatu- erresumin moduko batek ere bai.

Qué tiempo tan feliz, cuando en la facultad, hacía de todo menos estudiar, geniala BERRONES taldea. Hala igaro ziren ondorengo urteak, unibertsitate ikasle itxurak eginez, era guztietako ibileretan katedra ateratzeko. Lortu nuen karrera amaitzea, nola edo hala, eta behin betiko sinetsita psikologia iruzur bat zela. Aktiboki militatu nuen nuklearren aurkako mugimenduan eta okupan, denboraldiak pasa nituen Holandan eta Bartzelonan, punk-rock talde baten “manager” gisa aritu nintzen, taldea deliratzen hasi zen emanaldi bategatik kobratu zuten bezain laster... eta batetik bestera ibili ostean etxera itzuli nintzen eta aspaldiko kide batzuekin argitaletxe “alternatibo” bat jarri, zein oso ongi ibili baitzen, lotsa ere sortzeraino. Ezer gutxi edo batere ez nuen zutaz jakin urte horietan guztietan. Hainbat iturrik bateko eta besteko berriak, kontraesankorrak, ekarri zizkidaten: baten batek esan zidan Buenos Airesera joana

zinela, beste batzuek zure familiarekin Valentziara joana zinela. Izan zen esan zuenik sekta batean zeundela, sexua (eta ume-sail handia edukitzea) predikatzen zuena erredentziorako autopista gisa.

Denbora horretan guztian beste erromantze batzuk egon ziren, ia sinistu nuen berriro nengoela maiteminduta, behin baino gehiagotan. Egiaz ez nuen sekula kapitulu hura gainditu. Gehiengo ageriko batentzat, gaztetako maitasunak samurtasunez gogoratzen diren buruko nahasmendu iragankorrak dira. Neuretzat, zoritxarrez, maila gaindiezina izan zen. Inongo emakume ez zitzaidan hainbeste gustatu, etorkizunaren ozeanoetan berarekin ontziratzeko. Denak nazkatuta geratu ziren berehalakoan ondotik ihes egiten zuen gizonaz, bizitzan beste bizigarri batzuk bilatzearen sintoma argiak erakusten zituenaz. Lagun psikoterapeuta sinisturen batek esan zidan diagnostiko ezaguna: “Konpromisotik ihesi zabiltza, berriaz abandonatuko zaituzten orein-izuz”. Interesgarria. Baina egiaz ezein neskak ez zeraman zapi egokia buruan, eta ez zeukan koadrodun abrigo jakin hori, ez zidan begiratzen modu inozente eta aldi berean, itogarrian. Inor ez zen Ana, baina zin degizut bazirela oso ederrak, argiak eta are aberatsak ere.

Bi milagarren urte mitikora hurreratuz, mundu guztia mintzo zelarik ordenagailu guztiak saltaraziko zituen efektuaz, ni ezkondu egin nintzen. Allison iparramerikarra zen, ingeles eta mexikar baten alaba, harea-erloju tipoa zeukan eta egiaz, zen -da- pertsona gozagarri bat. Bera bezalako bat nire zama hartzeko prest egote hutsa, loteria zen jada. Ordenagailuei ez zitzaien ezertxo ere gertatu, baina ni,

milurteko berriak ospitaleko ohe batean etzana hartu ninduen, min zerrenda oso kezkarri batekin, bizimodu alderraiegi baten ondoren zuzena. Ordurako KAYAren ardura neukan, jendetza ekartzen zuen disko-puba, beste bazkide batzuekin altxatzea kosta zitzaidan negozioa, baina azkenean modan jarri zena XX. mendeko azken esprintean. Argitaletxearekin bezalaxe, ez zen miraririk izan. Militantzia alternatiboaren lezio guztiak ideial ez hain nobleen zerbitzura jarri ziren eta denetan bat izan zen benetan eraginkor: lehen lerroan lan egitea. Bai, “lerro” askok lagundu zuten tentsioari gudaldiko gau luzeetan. Bezeroek atsedean hartzen zuten biharamunean, ni lubakietara itzultzen nintzen, asaltorako armamentu guztia neurekin hartuta, lurralde handiagoa konkistatzeko pronto, neure soinak txartel gorria atera eta anbulantzia batean larrialdietara bidali ninduen arte. Kontriziozko egunak heldu ziren orduan. Nire hauskortasun existentzialaren kontzientziak ukitu gozoa eskatzen zuen oldeka eta neure ama gaixoa ez zegoen han neuri emateko. Allison, klubean bilatzen ninduen jada, neurekin egon zen orduan eta mimoz bete ninduen, nik gehien behar nituenean. Hori bai dela maitasuna, pentsatu nuen suhar. Ni erdi-gorpu kirasdun bat nintzen, zarpaildua, flotatuz pijama itsustu -guziak bezala- batean eta bera printzesa lurrindun bat zen bekokian toallatxo hezeak pasatzen zizkidana eta laguntzen zidana komunerraino heltzen, lotuta neuzkan aparatu guztiekin. Bi urte baino igaro ez zirela, gure argazki familiarra osatu zen haur samur batekin, Julian jarri genion izena. Neure bizitzako fitxak berriro antolatuxeak zeuden taula gainean. Kontua zen neurritz jokatzeko aurrera, buru-hezur edo leotzaren gelaxkan erori gabe, erne. Medikuaren esanak goitik behera bete nituen, seriotasunez

betez ariketa taula eta elikagai dieta. Barran lanean pasatzen nituen orduak oso neurtuta zeuden, beti une estrategikoetan eta inolako laguntza psikotropikorik gabe.

Eta orduan gertatu zen.

-“Kalimotxo bat, mesedez”.

Hostia. Hogei urte eta gehiago pasatuak ziren. Logikoena GARDELen abestia errepikatzea zen eta nik zu ikustea *fané y descangallada* edo SABINAk dioena, non printzesa izan zenak zuen soinean *sucia camisa y, en lugar de sonrisa, una especie de mueca*, zeina azken batean BOB DYLANen Rolling Stone horren berdina den. Zer nolako suertea izan zuten kabroiek, egun batez berriz topo egin zuten burutasuna hartu zien neskarekin eta baldar-zikin aurkitu zuten: *Ja, mira ahora, tú hecha un harapo y yo rico y famoso, jódete*. Ez zen hura niri gertatua, hau zoritxarra. Neurea askoz gehiago gerturatu zen tangoaren estrofa mikatz hartara: *Volver, que veinte años no es nada, que febril la mirada, errante en las sombras te busca y te nombra...*

-“Ana”

-“Kaixo”

-“Hostia”

-“Ba bai”

Ni kasik izan nintekeen Casablancako Rick eta bera nire Ingrid Bergman partikularra. Baina une horretan Sam ez zen ari pianoan. JULIETA VENEGAS zen goxo entzuten zen guri bidea erakutsiz: *Quiero estar a tu lado, a tu lado y ahí me quiero quedar/ Quiero estar a tu lado, a tu lado/ Es ahí donde yo quiero estar*.

Luxuzko bi kalimotxo atera nituen dedikazio arretatsuz elkar isiltasunean begiratzen genuela. Bat zenbakia izaten segitzen zuen. Bere estiloa aldatua zen, baina haren detaile guztiek berritu egiten zuten nire amestutako emakumea. Zaharra, histua, negargarri egon behar zuen... Erakargarri zegoen. Haren aurpegiak denboraren oinatzak markatzen zituen. Denak zeuden antza hura desiragarriago egiteko. Hunkitu egin ninduen ikusteak mantentzen zituela bere keinu distrituak. Neure piztia-zulotik atera nintzen eta haren ondoan jarri nintzen. Ez nuen egin behar, baina ez naiz sekula aditua izan egin behar den hori egiten. Beste hitz bat esan aurretik elkarri musuka geunden. Zerbait liturgikoa izan zen, segundo hamarren bakoitza biziz, izan behar zuela genekien bezala. Kalimotxoaren zaporea izango zen, ordutik probatzen ez nuena. Beti pentsatzen nuen atzera eragingo zidala. Hirurogeita hamazazpiko gau urrun hartan bezala, neure nerabe idatzi-moldean egunerokoan idatzitakoa sentitu nuen: Anarekin musukatzen naizenean, ez da zutitu egiten zaidala... da neure izate guztia lehertuko balitz bezala korrida basati batean, neurrigabea, uzten nauena puxika zulatua legez, korronte elektriko bat da zentzumenak menderatzen dizkidana, da... loria".

Geure lehengora etorri ginenean, edo antzeko zerbait, behatu nuen bere begi-arkatza zirriborratua zuela, euri egun hartan bezalaxe. Haren espresioa behatuz ispilu aurrean nengoela iruditzen zitzaidan. Inongo elkarriketarik hasi aurretik, oso astiro altxa zen eta ilea konpondu zuen doi, dibinoki. Nik zerbait esan behar nion, baina haren hatza pausatu zen deliziosoki nire ahoan eta ez zen izan. Lokaletik atera zen berak bakarrik dakien eran oinez, poltsa zintzilikatu zuen (zoragarria, berdingabea) beti egiten duen

mugimendu graziosoarekin eta atean begiratu arin bat egin zidan itzalen artean galdu aurretik.

Allison emakume praktikoa da eta berriak hegaldatu zirenean ez zidan inolako eszena pasionalik egin. Aste batzuen buruan kanpaina sotil baina indarrezko bat hasi zuen norabide bakarrean: Bizitzera estatu Batuetara joatea.

Pittsburgh, Pennsylvaniako estatuan, historiaz kargatutako lekua da, eraikin dotorez eta iragan industrial bikain baten hondar malenkoniatsuz betea. Inguruan duen izadiak edertasun basatia du, bereziki negu gordinetan. Julianek eta Suzannek ederto batean pasatzen dute hemen erori ohi den elur ugarian.

Nire esperientziari eta neure emaztearen kontaktuei esker, laster aurkitu nuen lana barman gisa klub sozial batean, non ibiltzen den handikeriazko bikaintasuna duten tiburoi gazteen klase goranzko handigura. Leku bat da munduan, beste edozein bezala. gauza askotan, zalantzarik gabe, leku pribilegiatua non nire bizitzak, gutxienez, agortzen doan duintasun onargarritz.

Ez dut ukatuko, baina, neure ametsik aitorrezinena -eta baita ere mingarriena- hau dela: berriz elkarrekin edatea, hil aurretik, denik eta kalimotxorik goxoena.

PIANO ETA OLATUETARAKO KONTZERTUA

Ivan maitea. Orain hilda nagoenez zuk karta hau letzeko/irakurtzeko unea iritsi da. Hasieratik ohartarazi

behar dizut garrantzizko kontua dela eta zuri eragingo dizula, zalantzarik gabe.

Guztia nik asmatu bezala gertatu bada, zuri helaraziko zizuten kartazala, testu hau barruan duena, nire desagerpenaren ondoren. Oharrak jarraitu badituzu, bakarrik zaudela irakurtzen irudikatzen zaitut, aski denbora hartuz irakurketa astiro egiteko.

Ezer baino lehen, seme, zuk jakin dezazun nahi dut beti saiatu nintzela zuretzat aita ona izaten. Erdizka lortu nuelakoan nago. Nik ez nuen sekula bokazio handiegirik izan. Nire arimaren barrenean beti pentsatu izan nuen inork ez daukala eskubiderik mundu makur honetara bizitzak ekartzeko eta askoz gutxiago inor behartzeko bere akaberaren ezezagunaren aurrean jartzera. Gogorra egingo zaizu akaso aditzea, baina niretzat “onartutako” seme izan zinen, desiratua baino gehiago, garai hartan zure amaganako neukan amodioaren ondorioa, eta neurri batean, gure urruntzearen arrazoietako bat. Kontuz Ivan, ez dizut errurik egozten. Esan nahi dut zu han egoteak gure arteko aldeak handitu zituela, baina alde horiek gure maitasuna zapuztuko zuten lehenago edo geroago. Ez, nik ez nuen zu mundura iristea desiratu, baina gertatu eta gero beti izan zintudan bihotzean eta gogoan. Oso bizi daukat itsatsita oroimenean minez maite izan nuen nire aitaren gomuta eta egia esateko, harreman zail hura hobetuko ahal nuen sikiera.

Jakin ezazu, aldezturik, sekretu bat zuri agertzea dela eta beraz zuri barkamena eskatuz hasiko naizela. Irakurketa amaitzean, nago, ulertuko duzula zergatik gorde

nizun dena nire heriotza eguna arte. Beste kontu bat da, oso bestelakoa, kontatuko dizudana barkatu ahal izango duzun. Zure lekuan jartzen naiz eta aitortzen dut nik neuk ez nukeela jakingo nola erreakzionatuko nukeen zure egoeran egonda. Baita ere aitortzen dizut xehetasunez neurtu dudala, urte hauetan guztietan, betiko gordetzearen aukera, azken batean atsekabeak saihesteko era litzateke. Azkenik horrela kontatzea erabaki dut. Batek daki, patua traidorea da eta beti dago aukera, txiki-txikia izanda ere, gertaerak modurik ezustekoenean agertzeko, zuk neure ikuspegia ezagutu gabe. Horrek barru-barruan estutzen nau gogor eta hori ere bada finean idazten hastearen arrazoi sakona. Esango dizut halaber sekretuak, itxura denez, iraunkorrak direla nire familian. Neure aitak amodio harreman bat izan zuen zenbait hamarkadatan eta amonak ez zuen jakin hura hil ondora arte.

Esango dizkizudan gertaerak orain denbora asko gertatu ziren, zuk hamasei urte zenituela eta zure ama eta biok bereizi berri geundela. Aldi gogor penagarria izan zen guztiontzat. Ez dakit oso ongi zenbat oroipen dituzun aldi triste hartaz, utzidazu girotzen.

Banandu eta gero ni kostaldeko gure apartamendu zaharkitura joan nintzen bizi izatera. Ilbeltz kabroi bat zen eta ni unibertsoa azken kaka sentitzen nintzen. Egun amaigabeak izan ziren, oporraldi malenkoniatsuak, pijama eta zapatilak jantzita (hobe kenduta). Nire lagun bakarra pianoa izan nuen. Musika tresna hura altzari bizigabe mutua zen, zuk ikasteari utzi zenionetik. Udako zure gela izan zen hartan hura ager-agerian egoteak porrotari egindako monumentu bat zen. Jakin ezazu, agian

horrexegatik jotzen nuen haren alboan esertzera eta haren teklekin jolastera. Badakizu nik ez nekiela askorik notei eta armoniei buruz, baina senaz neure melodiak eginez nindoan. Zuk uste ez arren, beti izan dut belarri zenbait musikarako. Lehen hezkuntzan zenbait urtez aritu nintzen koruan kantatzen eta nire gaztaroan ahalegintxoak egin nituen ene osabarengandik hartutako Hammond organo zahar batekin. Oharkabe egun batzuk endredatzen pasa ostean, sendotasun apur bateko zirriborroak ateratzen zitzaizkidan, badakit bai, hori ez dela “pianoa jotzea”, baina sinfonia handiak ez izan arren, emaitzek bazuten edertasunik eta gutxienez arindu egiten zuten denboraren joan geldo barru-zulatzalea. Olatuen marmarrak, bizi nintzen apartamendu eraikinaren ondoko itsaslabarren aurka segundo batzuen tartearekin jotzen baitzuten olatuek, eta nire hastapen-konposizio haiei lagun egiten zieten negu latz hartan.

Horrela, zeregin utziezinezko batzuk egiteko indarrak biltzen nituen: neure egunak igarotzen ikusten nituen etxebizitza madarikatu hura saltzea, hirian pisu merkeren bat alokatzea eta lanerako itzulera erabakitsu baikorra prestatzea, gehiegi luzatzen ari zen depresio baja hura amai zezan. Negu pasa nengoen zulo bera ere, familian han uda iskanbilatsuak igarotzen genituen aldiaren arrasto penagarria zen eta pianoa zen altzari bakanetako bat -pisuzko arrazoiak zirela eta- maitasun hondoratze luze mingarri hark arrastatu ez zuena. Ez neukan ez, telebistarik ere...

Gorabehera handirik gabeko izate-goibeltasun batean bildurik –nago medikazioari esker izango zela- saiatzen

nintzen nire egunek beti zeregin sinple berehalakorik/ak izan zitzaten: Erosketa egitera jaistea, jateko zerbait berotzea, dutxaraino arrastaka joatea, irratitik zer edo zer entzutea, edozein ordutan lo egitea, higiezin agentziara deitzea...Egiaz, landarearen moduko bizitza hura azkenean ia eramangarri izaten bukatu zuen eta negatik izan balitz, sine die luzatuko nukeen, baina zu ere bazeunden Ivan. Zuk aita bat behar zenuen zure nahasmen hamasei urte haiekin eta ez txingote zarpail bat, noizbehinka harekin nabarmen aspertzeko. Gehiegitan nik uko egiten nien zurekin bakarrik egoteko neuzkan egunei, ez bainuen ikusten neure burua nire konpainia hutsaren hurrengoa eskaintzeko baino.

Etortzea tokatzen zitzaizunean, legeak behartuta eta seme onaren erantzukizunez, nik bizarra kentzen nuen astiro eta neketsu, benetako otorduak prestatzen nituen eta jantzi batzuk plantxatu ere egiten nituen, Alpe d'Huez igotzen duenak bezalatsu. Etxea pixka bat itxuratu ere egiten nuen, aski ondorengo galdeketan zure ama agurgarriak nire egoeraz ondorio kezkagarriak atera ez zitzaizkidan.

Baina dena alferrik zen. Gure elkarriketak topiko trukaketa, hitz gutxikoak ziren, denbora astiro igarotzen zen, dentso, jasanezin eta bistakoa izan arren elkar maite genuela, bistakoago zen aurkako norantzkoan ihes egin nahiago genuela. Despedida bakoitzean, berriro neure burua bakarrik ikustean, nire gaztelu-karta arimako hauskorra erremediorik gabe jausten zen behera. Gutxi balio zuten orduan pastillek eta mediku aholkuek, tristura min bihurtzen zen eta izatea bera zigor. Noten kadentzia astiro gogaikarri errepika zitekeen orduetan eta orduetan.

Baina egun batez zerbait aldatu zen. Bat-baten igande arratsalde goibel batean, gure bazkalosteko solasak ezusteko gonbidatu bat izan zuen. Olatuen orroa nahastu egin zen beheko solairutik zetoze la ziruditen arnasots asaldagarri batzuekin. Kostaldeko apartamentuak ez dira harro beren barne-hormaz. Hura gauza ageri-agerikoa zen. Han sexu-jardun irmoa zebilen, amodioa egiten zuten atzeratutako gosea duten maitale oldartuek soilik egin dezaketen gisan. Nik kontzientzia lauso bat neukan, etxebizitza hartan oraintsutik bizi zirela, inoiz topo egin nuen eskaileran emakume gazte batekin, seguru asko atzerritarra, baina hau zen haren presentzia nabaritzen zuen lehen aldia. Ez dut uste gogoratuko duzunik, baina gu bion artean, orduan, bat-bateko elkarkidetzak korrontea sortu zen eta gure ahoek irribarre egin zuten batera. Bai, badakit gauza handia ez dela baina arratsalde hura hobeki joan zen. Arnasestu espiral bakoitza, malguen kirrinka erritmikoaren gorakada bakoitza, berriro ere arrazoi zen gure ospakizun intimoak.

Ordu batzuen buruan errezel artean ikusi ahal izan genuen nola urruntzen zen, isilpeko keinuz, ustezko maitalea, gizon sendo txikia, adin ertainekoa, biboteduna eta ilea urdintzen hasita zeukana, txaketa bakero batean sartuta, lepoak gora altxatuak.

Hura lehen serie luze bateko lehena baino ez zen izan. Antzekoak gertatu ziren ordutik maiztasunez. Batzuetan, ohiko zarataz gain baziren jatorri zehaztugabeko soinuak. Karraska arraroak, kolpe lehorrak, alarau motelak... nire kontzientzia ez zen gai haiek deskodetzeko eta nire irudimenak kendu aukerak zerabiltzan ni neroni ere izutera

iristen zirenak. Antzeko zerbait gertatzen zen lantuekin. Hauen kokapena, plazer-intziri artean erantsita, hondogabe sailean geratzen ziren. Saioak benetan azkengabe izan zitezkeen eta akidurak haiek mendea hartuak zituela pentsatzen nuenean, nire harridura gaitasunari beste goraldi batek egiten zion erronka. Zenbait denbora igarota, ez asko, bibotedun gizon trinkoa presaka ateratzen zen ataritik eta itzaletan galtzen.

Goiz batez emakumea dendan ikusi nuen. Nik uste nuena baino gazteagoa zen. Top-modela izan gabe ere, osotasunean edertasun narea zerion. Irribarre adeitsua zuen arren, iruditu zitzaidan haren begiradak ezin zuela disimulatu malenkoniaren bat. Txandaren zain geunden eta harritu egin ninduen zuzen neuri mintzatzeak:

-“Zeu izan behar duzu neure bizilaguna, pianoa jotzen duena, ezta?”

Nire ustezko tasun hark barruan bero asaldagarria eragin zidan. Loli dendariari denbora falta izan zitzaion hartaz jabetzeko. Nire bizilagun berriarekiko lehen adeitasun truke hartan, jakin nuen Olga zuela izena, Georgia urrunetik zetorrela eta biolina jotzen zuela. Bi urte baino gutxiago eginak zituen herrialdetik kanpo eta halere ederto egin zuen gazteleraz. Dendatik irten zenean, Loli, alarguna, bereizi zenetik apenas hitz egiten zidanak, bere zenbait ondorio adierazi zizkidan:

-“Nire ustez tipoak denbora-pasakotzat dauka, badakizu, neska gaixo hauek esku hutsik eta non etzanik gabe ailegatzen dira-eta”.

Loli, hau da, Dolores andrea eta biok, ez genuen sekula elkarrekiko begikotasunik izan. Honen senarra, bizi zelarik, urbanizazioko mozkor ofiziala edo zen, eta urte askotako nekaldiaren ostean, bazirudien emakumeak barne-erresumina zeukala gizaseme guztiekiko. Gure maitasun kataklismoaren egunetan hura konfidentea zen Juliarentzat. Haren begiradan zerbaitek ttu egiten zidan sotiltasunez. Halabeharrak, baina nahi izan zuen biok neguko bakardadeak elkarrekin igarotzea udako apartamendu jende-gabe eta menostu haietan, urbanizazio ahul bat baitzen itsasertzean, hirurogeigarren hamarkada urrun hartan egina, hura galarazteko legerik ez zegoenean. Burla-haizea agertu zen haren begirada unatuan:

-Ez nekien musikaria zinenik.

-Ez naiz eta.

-Ja.

Esan behar dut, ordudanik, saihestezin, pianoan jartzen nintzen bakoitzean Olgaz gogoratzen nintzela. Nire ezagupenik ezak mugatuta nengoenez eta bilbatzen nituen piezak nahitaezko bakunak ziren eta nahiko errepikakorrak, baina asetzen zuten nire iheserako beharra, beste ezerk ez bezala. Sekula ez nengoen seguru entzuten ote zidan, bera maiz ateratzen zen etxetik. Batzuetan eskaileretan gurutzatzen nintzen, oso prestatuta ikusten nuen irteten, elegante eta sexy batera. Hura suertea zeukana txaketadun morroi hark.

Egun eskasak etorri ziren orduan. Haize izoztu altxakorra sartzen zen paperezko horma haietatik eta olatu oldartuak fatxadaraino bertaraino altxatzen ziren. Irratiak errekor historikoak aipatzen zituen tenperatura jaitsieretan eta berehala zetorrela hotz eta elur ekaitza. Etxe madarikatu hartan, neguaren berri jakin gabe diseinatua, ganbaratik erreskatatu nuen plaka elektriko zahar bat baino ez zegoen berogailu. Nire burua ikusi nuen arropaz josita, belarrietaraino sartutako artile txapel batekin eta eskularruak jantzita pianoa jotzen saiatuz. Orduan txirrina izan zen.

-“Barka molestatzeari, ez dut estufa jartzea lortzen, lagunduko didazu faborez?”

Olga etxera lagun niezaion eskatzen ari zitzaidan. Zapatilatan egiten zuen eta koadrodun bata soil bat soinean zuela. Disimulatzen saiatu zen arren, nire eskale itxurak harritu egin zuen.

-“Hotz egiten du, ezta?, nik sekula ez nuen uste hemen halako hotza egingo zuenik, nire herrialdean bai egiten du hotza, handia”.

Ni nintzen heldua eta bera gaztetxoa. Ni bertakoa eta bera atzerritarra, berak arazo bat zeukan eta nik –agian- soluzioa, zentzuzkoena nik lasaitasuna eta berak urduritasuna agertzea zen. Bada ez. Egoitza hartan sartzea, hainbesteko amodio jardunen eszenatokira, edertasun eslaviar harekin batera, eskale baten jantzian, takikardia izateraino asaldatzen ninduen. Nire baitan eskertu nuen hotzak nire dardara esplikatzea.

Haren pisuak gutxi zuen ikustekorik nire piztia-zuloarekin. Altzariak ere gutxi ziren, baina gustu fin-bikaineko alfonbra eta tapizek zoruak eta paretak janzen zituzten. Sukaldea modernoa zen eta goxoa eta bainugelak egonaldi luze patxadako bat egiteko gonbita egiten zuen. Xehetasun horiei guztiei erreparatu ahal izan nien, hain zuzen, berogailua martxan jartzeko prozesuari esker. Berak “estufa” esaten ziona propano gasezko instalazio osoa zen eta aski zuen ukitutxo bat egitea martxan jartzeko: galdara erabat hoztua piztea. Pizteko mekanismoa martxan hasi zenean, temperatura goxatuz joan zen pixkanaka, bizitzeko/bizigarri moduko giroa iritsi arte. Haren begietan heroi txiki bat egina nengoen. Kafea hartu genuen elkarrekin haren sukaldean. Georgiaz mintzatu ginen, komunismoaren porrotaz, haren haurtzaro zoriontsuaz eta gaztaroko penurie/gabetasunaz, haren familia etsi-etsian oroituz, musikaz eta honen ahalmen baltsamikoaz, hotz-giro hartaz... jakina ez genuen ukitu haren amodio saio burrunbatsuen konturik.

Jainkoa, zenbat samin gordea haren hitz ahalegintsuetan, haren begien urdinean, haren irribarre-erdietan. Bulkada lelo batek bultzatzen ninduen etengabe hura besarkatzera, haren buru politta nire bularrean pausatu eta laztan amaigabea. Uneren batean, ontziteria hartzen hasi zen eta bere keinuek ohartarazi zidaten ni han geratzea zuhurgabea gerta zitekeela. Haren maitale sendoa gogoratu nuen orduan eta zirraraz eragin zidan, bat-batean ager zitekeela pentsatzeak. Zezel aitzakiaren bat bota eta alde egin nuen.

Elur iragarriak heldu ziren kostalde bertaraino eta hondartzaraino zuri-zuri berun koloreko zerupean, eta ustezko itxura hartu zuen. Sofan uzkurtuta, plaka elektrikoa sudurraren aurrean neukala, telefonoak amets sakon batetik esnatu ninduen. Haren txirrin sarkorrak amorruz jotzen zuen nire garezur horma artean. Julia zen.

-Alvaro?

-Bai Julia, egun on.

-Arratsaldeko zazpiak eta laurden dira.

-Eskerrik asko argibidearengatik. Besterik?

-(Hasperena) Bai, jakingo duzu noski elurrak dena hartua duela, gaur ezin izango du Ivanek joan, gaur tokatzen zitzaiola jakingo duzu, ezta?

-Bai jakina -esan nuen gezurra-.

-(Hasperena) Beste gauza bat. Bizilagun berriak dituzu azpiko pisuan, ezta?

-Ee... bai.

-Tira, arren eskatzen dizut mutikoarekin sexu kontuekin txantxan ez ibiltzeko. Gai horretaz hitz egiteko behar den heldutasunik ez daukazunez, gutxienez egin dezakezuna...

Aski da. Eseki egin nion, kontenplaziorik gabe. Buruko mina nuen presioz hura bete izan balute bezala. Bi lasaigarri disolbatu nituen uretan eta soluzio eferbeszentea edan nuen. "Gosaltzeko" arrautza batzuk prestatzen nituen bitartean, nire subkontzienteak kemenak hartua neukan piano melodia errepikatzen zuen. Bai, jasan berri nituen amets aztoratzaileen ondorena zen, artean goiari eutsi nahi zion zakil-tentetze erdizkako hura bezalaxe. Kristalak pitzatu guran bezala jotzen zuen orduan haizeak. Irratiak behin eta berriz esaten zuen lasai egoteko, eta aldi berean

larritu egiten zuen hotzez hildakoen eta istripuen zerrenda emanez. Groenlandiako farozaina edo sentitzen nintzen. Gogorik gabe gosaldu nuen, arrautza horiek ez zeudela beren onenean susmatuz, eta zeregin neketsu bati heltzea erabaki nuen: "Butater" plaka herdoildua pianoaren gelaraino eramatea.

Han denbora asko eman nuen kadentzia itsutzaile hura birsortzen. Ez dakit mendebala zen orkestrari lagun egin nahi ziona edo zure amaren dei madarikatua ahanzteko beharra, baina egun hartan gitarra bat bezain afinatua sentitzen nuen neure burua eta gorputz eta arima sartu nintzen nota haietan. "Musika da gizakiek jainkoekin mintzatzeko duten lengoaia" esaten zuten grekoek. Bai, ba zuen erlijiosotik zerbait nik tresna desafinatu harekin komunioan bizi nuena eta agian horrexegatik gertatu zen miraria. Hasieran ez nuen lortzen gertatzen zenaren jatorria, baina laster ederretsi ahal izan nuen, emozio garbiz, nola egiten zuen bat nire notekin biolin urrun baten doinu goxo ingurakor batek. Hasieran izutu egin nintzen, pilulen eragina izango zela pentsatu nuen edo nire pixkakako degradazio psikikoarena. Bat-batean utzi nion jotzeari eta pixkatera/berehala biolina mututu zen. Laster ulertu nuen. Olgak jarraitu egiten zidan. Berriz ekin nion emozionatuta, kitzigarriagatik dorpe samar baina. Nire bizilagun abilak atzetik segi zidan eta estasira bidean eraman nazaten utzi nuen neure burua, sekula gertatu ez zitzaidan bezala. Orduan ez zegoen miseriarik munduan, ez eta nire bizitza deitoragarrian. Berez ez zegoen ezer, pianoa, biolina eta haize erauntsia biraka besterik.

Ezin nuen zehaztu zenbat denbora egin genuen zehatz biraka egitura beraren inguruan. Modu naturalean marrazkiak aldatuz zihoazen emeki tonua galdu gabe. Haren biolina bereziki librea eta ederra zen eta aurreratzen genuen ahala, lan hura berez zebilen, gu interpreteak ez bagina legez, Jainko baten borondatea baino egingo ez bagenu legez, edertasunaren Jainko, elkar hartzearen eta zergatik ez esan, maitasunaren. Bizitza ironikoa agertzen zen berriro ere: kolpe berezi anker batetik sendatzen ari nintzela, hiltzeko ausardiarik ez eta koldarkeria hutsagatik bizirik irauten nuela, bat-batean, nahita egin gabe, besoak zabalik zetorkidan esperientzia bortitz mistiko bat.

Baina gorena eta arruntetan arruntena ezarrita egon ohi dira. Hotzak azkenean nire hatzak gogortu zituen eta uneren batean magiak alde egin zuen. Nire hatz hotzak estufa zaharrari hurreratu nizekion eta egiaztatu nuen dardarka neuzkala, delirium tremens batean bezala.

-Neska, puta bat da, eta, beharbada trafikatzaileria gizona. Administratzaileari esan behar zenioke.

-Oso egozpen larriak dira, ez al zaizu iruditzen?

Loliri kiskali egiten zen zuka hitz egiten nionean, azken batean ez zen ni baino askoz zaharragoa. Baina egiaz nik ezin nuen hura saihestu.

-Dena zen oso arraroa. Tipo horrek beti uzten du autoa etxetik urrun, gune diskretuetan, zergatik?

Dolores andrea Fletcher doktorearen jarraitzaile sutsua zen. Behin eta berriz ziharduen bertsio nobeleskoa eta zinez sumingarria berregiten.

-Ni naiz bere bizilagun bakarra eta ikusi dudana bakarra da, bakarrik bizi den emakume bat eta harremana duena.

Emakumeak ikasia dirudi...

-Eta oso goapa. Gizonezkoak itsutu egiten zarete horrekin. Hona etortzen diren errusiar gehienak putak dira edo antzerako zerbait. Han oso txarki pasatzen dute gaixoei. Gizonak ere errusiarra izan behar du, ba dakizu?

-Neska Georgiakoa da eta biolina jotzen du- esan nuen, hura lepotik heldu eta ito ordeztu-.

- Bai, nik esango dizut zer jotzen duen, "txirula ezti" jotzen du horrek.

Bi arrazoi sendo zeuden maltzur harekin desatsegin ez agertzeko: Lehenik, guzti hartatik zerbait egia izan zitekeela, eta bigarrenik, ni trazu zahar bat eginda nengoela. Sukarra izan behar nuen, baina ez nintzen gai izan termometroa aurkitzeko. Izatez, ekaitzaren erdian dendaraino txangoa egin behar izatea, etxean gordailu txiki bat ere ez izatearen ondorioa zen.

Bi tableta hartu nituen eta estalkien artean bildu nintzen, aurkitutako estalki guztiak hartuta. Nire transistore zaharrak entretenitu egin nahi ninduen burukopean. Babes zibilak autorik ez hartzeko gomendatzen zuen eta bideak ez atzera eta ez aurrera geratutako gidariei infernuko kaos haren berri ematen zuten. Gogoan dut bortizki berrindartu ninduen musika tarteak: Beatles taldearen *Girl*. Orduan begi urdin urrun batzuk agertzen zitzaizkidan urruneko historiak kontatuz/tzen. Inolako erreferentziarik ez orainari, ezta bibotedun gizon harekiko harreman grinaz beteari. Tarteka lo hartzen zuen eta nire ametsak nahastu egiten ziren irratiko hitzaldiekin eta pertsianen zirrikitueta haizearen

txistuarekin. Telefono txirrina entzun nuen aldiro jo eta jo, baina ezin nuen bildu indarrrik oin bat higitzeko ere.

Irratia hiltzen zihoan eta nik harekin egiten nuen bat.

-Har ezazu zukutxo hau, maite, C bitamina behar duzu eta. Ez, nire ama gaixoa ez zegoen han ni zaintzeko eta denbora astuna eta mingarria egiten zitzaidan. Tarteka etxeko oihartzunen bat aditzen nuen beheko pisutik zetorrena. Komuneko ponpa, sukaldeko lapikoak, telebista. Bat-batean, lantuak ere entzun nituen. Errusiar hizkuntza gogorarazten zuen hizkuntza batean egindako telefono elkarrizketa labur asaldagarri baten ostean. Tarte txikietan egiten zuen negar, etsipen handi baten aztarna utziz eta tristura hura bularrean itsatsi zitzaidan. Berriro egon ginen sinfonia bera interpretatzen, baina oraingoan haren borondaterik gabe.

Ongi, Ivan. Orain arreta guztia jar dezazun nahi dut esango dizudanaz. Funtsezkoa heldu da, kontatzen ari natzaizun nahasmen honen guztien azken arrazoi sakona eta, seguru asko, nahastu samar edukiko zaituena. Gizaki ororen bizitzan badira uneak ibilbidea markatzen dutenak zirt eta zart. Niri dagokidanez, kontatuko dizkizudan gertaerek zakarki hautsi zuten gidoia eta markatu zituzten ondorengo nire bizitza guztiko egunak. Berehala jakingo duzu zergatik hainbatetan harrapatzen ninduzun pentsakor eta aurpegi serioz, zergatik beti eta beti ixten nuen atea barrutik eta, batez ere, zergatik arduratzen nintzen horrenbeste zure segurtasunagatik. Ohartarazi nahi zaitut irakurriko duzunak zirrara eginarazi diezazukeela, eta baita shock bat eragin ere. Zuk ulertzea nahi dut nik gorde ahal izan nuela eta

neurekin hilobira eramanean, aitortzen dizut ordu asko eman ditudala hausnarrean, egunak osorik, baina zu ezin zaitut engainatu. Beti sartu nahi izan dizkizut zintzotasuna eta leialtasun balioak. Gertaera hauek beste bide batzuetatik iritsi balekizkizu, Jaunak/Jainkok daki zein irudi osagabe egingo zenukeen buruan gertaeraz eta non kokatuko zenukeen nire jokabidea. Hau baino ez dizut eskatzen, astiro irakur dezazula kontatuko dizudana eta behar beste denbora har dezazula hau digeritzeko.

Ataritik irteten ikusten genuen gizon ezezagun hartaz, gogoratzen al zara? Bada, gau hartan Olgaren etxera oldarka sartu zen haserre bizian. Nire minezko ohetik ezindu entzun ahal izan nuen emakumeari nola egiten zion oihu eta kolpatzen zuen deabrutu balitz bezala eta nola neskak alarau egiten zuen, nik sekula entzun dudana alaraurik zaurtzaileenak. Ni izerditan nengoen eta bihurtzen nintzen estalki artean eta nabari nuen nire bihotza abiada bizian, hainbesteko indarrez, nire soin guztia hartzen zuela zirudien. Gogo onez jaitsiko nintzatekeen eta hustuko nion kargadore bat osorik basapizti nazkagarri hari, baina zuk ezagutzen nauzu. Sekula ez dut arma bat eskuan izan eta sekula ez naiz izan tipo bipil bat, esan ohi denez. Gainera, nor nintzen ni haien artean sartzeko? Dakizunez, haiek maiz izaten zituzten haragi grina erakustaldi amaigabeak eta ordura arte ziur nengoen bizi maite zutela elkar, harremana edozein zutela ere. Iskanbilaren erdian nabaritu nuen bat-batean nola hausten zuten zurezko zerbait. Eteten ari ziren soken erresonantzia iltzatu zitzaidan bihotzean, labankada sartu balidate bezala. Biolina zen. Astakirten puta hori txiki-txiki egiten ari zen instrumentua, loriarantz egin genuen bidaian Olgak niri lagun egin zidan tresna.

Ezin izan nuen gehiago eutsi. Zoramenak aholkaturik, aurkitu nuen lehen jantzia jarri eta izarpe ilunera oldartu nintzen ezereen axolarik gabe. Ez dakit zenbat denbora eman nuen jende gabeko paraje haietan alderrai batetik bestera. Badakit denbora puska batean uharriak inguratzen ibili nintzela, amildegiaren sakonetik deika neuzkan olatu haserretuak sorgorturik. Ni ez nintzen deus ere, substantzia puska bat baino ez, elurrezko galarren haren erdian. Nire ustetan, une hartan aitarik gabe geratu ez bazinen, honegatik izan zela, hau da, bizitzeko senak eta nire berezko koldarkeriak, eragotzi zidatelako azken jauzi sinple hori egitea.

Ez zen hori, beraz, idatzita zegoena. Geratzen zitzaizkidan indar ahuleziaz saiatu nintzen nire gordelekura itzultzen. Kotxearen ondotik pasatzean, ia osorik geruza txuri batez estalita, barruan babes hartzea erabaki nuen. Martxan jarri nuen motorra, berogailua jarri eta oreinkume zauritua bezala uzkuritu nintzen. Kontzientzia-gabetasuneranzko bidean zehar, itzaletako mulko bat deigarria egin zitzaidan. Hantxe zegoen berriro putasemea, itzulera bizkor hasita erruduntasun zipitzik ere kenduta? gabe, “Hor geratzen haiz puta, jo ezan biolina hain gogoko badun”, esaten ari zela zirudien bere pausaje airosoan eta bere judo keinuan. Nire parean pasatzean, esan liteke, motorraren zarata antzeman zuela doi-doi, baina ez zuen izpirik ere aldarazi. Eta hemen dator mamia.

Egiten nuenaz oso jabetu gabe, minutu batzuen buruan autoa jarri nuen martxan eta zenbait distantziara segi nion. Oinez zihoan itsaslabarrak inguratzen dituen bidera. Zer demontre egitera zihoan? Tren geltokia juxtu aurkako

noranzkoan zegoen eta ez zen frogagarria bera haraino kotxez iritsia zenik. Erantzuna harrigarri bezain eskasa izan zen: tipoak hantxe bertan hustu gura zuen maskuria, amildegiaren ertzean.

Gogoan al dituzu nobela beltzaz egiten genituen solasaldiak? Nik beti esaten nizun krimen perfektua guztiz posible zela. Zuk argudioa argudioaren gainean, nik gau hori baino lehen egingo nukeen gisan: “Beti daude lits solteak, hiltzaileak ezin du bere baitan gorde hilketa eta azkenean bere burua salatzen du era batera edo bestera, gorpuek badute justizia egiteko sena esplikaezina” fantasiak, Ivan maitea. Hilketa perfektua ez posible bakarrik, batzuetan halabehar hutsez ere gerta daiteke. Batzuetan, eztabaidetako batean hasten ginenean, aurrez aurre zuri muturrera botatzeko tentazioa izaten nuen: -Seme maitea, nik hilketa perfektua egin nuen eta ez zitzaidan ezer txarrik gertatu. Aitzitik, nire bizitza hobea izaten hasi zen orduz geroztik.

Jakina zuk ere bazeneukan arrazoi puska bat. Hildako hark bai jarraitzen nau oraindik eta sekula ez dut uxatu ahal izan guztiz haren mendekuaren beldurra. Edozein arrazoi dela medio polizia bat inguratzen zaidanean edo baten bat telefonoz deitzean erratzen denean, ezin dut eragotzi ikaraldia. Hura gertatu eta hilabete gutxiren buruan gertaera zentzugabe bat bizi izan nuen butano banatzaile batekin. Eslaviar itxura zeukan eta ziur nengoen nire bila zetorrela. Haren aurpegi punpatuak behin eta berriz eskatzen zidan irekitzeko atezain automatikoko monitore txikitik. Norbaitek atea ireki zion eta nik hiltzaile begitartez sartzen ikusi nuen. Ikaraturik poliziari deitu nion, esanez lapurtzera zetozkidala.

Hainbesteko sinesgarritasunaz egin nuen, berehala bidali zidaten patruila bat. Pentsa dezakezu zer nolako egoera zentzurik bakoa. Ez dut sekula berdin begiratu bibotedun pertsona baten aurpegiari.

Bai, seme. Ni izan nintzen zorioneko “hilketa perfektua” egin zuena eta planik egin beharrik ere ez nuen izan. Berezko bulkada izan zen, ni ia zoratzeko zorian nengoelako agian. Ez nuen ausartu beharrik izan. Ez nuen egoera segundo bakar batez ere neurtu, azeleratu eta aurrean eraman nuen. Autoak haren atzetik amildegian behera jarraitu ez bazion zentimetro batzuen gorabehera izan zen. Balaztada hori zure aitarekin batera bizi izan da bere bizi guztian, egun guzti guztietan, motora arrankatzen nuenean, oheratzean, altxatzean, pentsa nezakeen bakoitzean, beti seme, beti.

Oraindik ez dakit indarrak nondik atera ahal izan nuen, baina hala ere lortu nuen berriz aparkalekuraino gidatzea, arrastaka apartamentura igotzea eta larrialdi zerbitzuari deitzea.

Zuk badakizu, seme, ni ez naizela sekula sinesteduna izan. Hala ere, ordudanik sekula ez naiz ausartu naturaz gaindiko eraginen bat ukatzen, gure gainetik dagoen zerbait, inurriei gizakien ulermena gailentzen zaien bezala. Egun batzuk geroago etorri nintzen neure onera zainketa intentsiboetako unitatean. Oso bizipen arraroa izan zen, nire jaiotza bizi izan banu bezalaxe. Badakit zenbait denbora pasa nuela kontzientzia maila arin batean. Bizirik iraunarazten ninduten asmakizun haien ertza guztiak oso astiro joan ziren zehazten, niri denbora tarte hura amaigabekoa egin

zitzaidan, baina gero egiaztatu nuen ez zela nonbait hainbesterainokoa izan. Erizain ahaztezin hura niri laguntzera lasterka etorri zenean ni hunkiortasun sakon egoeran nengoen, malko bizitan barrez, deabrutua bezala dardarka, zoriontsu murgilduta nire erraiek erakutsi nahi zuten bizi leherketa hartara. Baina laster egin nuen jauzi beste aldera. Bizitako azken gertaeren pixkanakako kontzientziak seko geratu ninduen eta zin degizut izu-ikara bat jabetu zela nire izate ahulduaz. Bat-batean jabetu nintzen galdeketa izugarriak neuzkala zain eta seguru asko espetxealdi luzea, agian bizi guztirako.

Ez zen hala izan. Inguruan atzematen nuena ez ziren susmoak edo tirabirak, zuon guztion giza berotasuna zen. Bai zuk eta bai agertuz joan ziren lagun eta senitartekoek, zure ama ere bai, ni oneratua ikusteko gogo bizia adierazten zenidaten eta horrek eragin zuen ni bizirik irauteko. Han ez zegoen polizia arrastorik eta ospitaleko zaindarien adeitasun berebizikoz tratatzen ninduen. Hor ustezko hiltzaile bat baldin bazegoen, ez zirudien hura ni nintzenik.

Handik onik atera nintzen, Ivan maitea, oraindik ez dakidan arren nola. Egun zoriontsu batean ospitaleko ate narrasgarriak udaberrirantz ireki ziren irribarrez hartzen nindutela. Hilabete gutxitan apartamendua estreinatu nuen, jada metropoli betean, eta nire ohiko lan jardunean sartu nintzen, eta berehala berreskuratu nuen pultsua. Nire autoa ere ez zen berdina. Nire eginkizunen aurrenetako bat delituaren proba ageriko bakarra desguazera bidaltzea izan zen: antza inork ez zion erreparatu aurreko kapotean zegoen mailatu arin hari.

Eta hildakoa? Ezagutzen zaitut Ivan, horrek jaten zaitu barrutik, ez al zuen ezer “esan” hildakoak?

Hildakoak apenas xuxurlatu zuen. Mundura itzuli ostean lehen lanetako bat udal hemerrotekara maiz joatea izan zen. Periodiko metak begiratu nituen arrasto txikiena edo bilatuko ote nuen eta bai, azkenean zerbait topatu nuelakoan nago. Hotz denboralearen biktimen balantzean, egunkariren batean, ez guztietan, zekarren identifikatu gabeko gizon baten gorpuaren aipamena, atzerritarra izan zitekeena, hondartzan aurkitu zutena. Itxura batean, bertako agintarien arabera “ekaitzak harrapatuko zuen arrantzan ari zela, kostaldeko puntaren batean, non, seguruenik, Itsaso kolpe batek jo zuen”. Horretan ere suertea aldeko. Elurrak eragindako trafiko istripu arranditsu batean familia oso bat galtzeak, arreta guztia desbideratzen zuen. Iraulitako monobolumena eta tapakiekin estalitako zenbait mulkoekin batera ateratako argazki izugarria, ilunpean geratzen zen tipo gris bakartia “gaueko arrantzan jarduten zuena”. Ezin dut seguru jakin ere, gorpu bera den, hura agertu zen hondartza gertaeren lekutik kilometro batzuetara dago.

Sekula ez nuen jakin Olgarekin zer gertatu zen. Ikusi zuten azken aldian bere etxetik irteten ari zen maleta bat hartuta geltokirantz. Lolik esan zidan etxearen jabeek “txerri-korta” bat eginda aurkitu zutela etxebizitza, lurrean gauza asko botata, eta biolina mila puska eginda pusketa eginda.

Haren helmuga zein izan zitekeen, arrastorik ere ez daukat. Aitortzen dut bilatu nuela hura, baina jakina, polizia eta

detektibeekin batere mintzatu gabe. Berriro hura ikusteko
gogoak itsutu ninduen, bilatu nuen orkestretan,
kontserbatorioan, alturnerako tabernetan. Georgiako
enbaxadarekin ere hitz egin nuen, baina beti zegoen langa.
Ba al dakizu ezkontuta zegoen edo bikotekidea zeukan?
Galdetu zidan egun batez enbaxadoreak. Arranpa hark
ulertarazi zidan heriotzako zepoko gaztara doan sagutxo
samurra izan nintekeela neu.

Ez dut sekula gehiago pianorik jo. Ez naiz gauza... baina
melodia bilgarri hark noranahi segitu dit, egunero. Melodia
hura entzunez hilko naiz eta badakit, seguru-seguru nire
mundualdi apal honen plazerik handiena piano, biolin eta
olatuetarako kontzertu ezusteko hartan izan zela.

Destinoak barka bekizu, seme.

Ez nazazu zorrotzegi juzgatu,

Zure aita, beti maite izan zaituena.

Ivanek paperak utzi zituen mahai gainean eta une
batzuetan pentsakor geratu zen, burua ohe-lumardian
pausatua eta laino-artean begirada galduta leihoan zehar
aurreratzen ikus zitekeen artean.

-Zer zen hainbesteko interesarekin leitzen ari zinen hori?
Galdetu zuen ondoan lokartuxe zegoen neskak, ahots lotiz.
-Familia kontuak, maitea.

Ivanek musu eman zion Olgari goxoki, belarri ondoan.
Honek laztan irribarretxo bat erakutsi zuen.

MAITAGARRIEN HAUTSA

Kaixo, liburu bat naiz eta erre egingo naute. Inork eragozten ez badu, ale xume hau kiskaliko da segundo batzuetan, azalean dauden hitz bakan horiek salbu hura irakurtzeko asmorik erakusteke inork; hitz horiek ematen didate izenburu labur bezain arrunta: *Azkazalak zaintzeko era*.

Une honetan pilatuta nago azken orduaren zain pazientziaz dauden beste izakide harat-honat ibilien artean, noiz iritsiko txanda, su aseezin horren garretan hasteko, aldiro-aldiro erregaia behar baitu. Denok gaude berdin hautsez eder jantziak, baina *ALBATROS Entziklopedia Ilustratu Handiko* liburuki batek behinola esan zidanez, haiek badute gainera erabilgarri izan den lanak ohi duen “maitagarrien hauts” atzemanezina; aura moduko bat, antza, helarazten diotena eskuetan hartzen dituen orori; nik, berriz, uger belzkara lirdinga hori dut neke-minez ugari, zeina pilatzen baita burugogor astiro, balio ez duten gauzen gainean. Bai, zenduko naiz grazia egoera mitikoa ezagutu gabe. Tipo bizardun eta tripadun hori, periodikoa leitzen duena lasai atzera jarria, uste handiz, Vazquez Montalbanek idatzitako gaizki hausnartutako nobela horiek bezala egingo du, non protagonistak tximinia pizten duen, egun batez gurtu zituen klasikoekin. Neure kasuan ez da sikiera etsitutako irakurle zorrotza. Kondenatu guztiok huskeria baten truke erosi gintuzten, eginkizun ahalkegarri hau betetzeko. Orain ordu erdi bat basatiki zatikatu dituzte eta garretara bota hauek:

Sedukzioaren gakoak, Heriotza bidean da eta Euskal bidegurutzea. Musika erdi itzali hori, irratikoa, aierua da aierua denez.

Badakit, guztiak du bere azkena, eta nire gaiaren destinoa errauts bihurtzea da, jabetzen naiz. Baina... hain da etsigarria hala egitea! Onartzen dut, ez naiz inuzente bat, “obra txiki” deitzen duten hori naizela, premiaz idatzitako eskuliburu bat, zeinaren publiko potentziala inork ez lukeen inolako elite kultural batean ezarriko. Egia. Baina ez naiz, ziurtatzen dizuet, erabateko kokolokeria bat.

Manikurarekiko interesak ez du zertan eskasago izan behar, beste afizio estetiko batzuen aldean, arropa edo ilearen aldean esaterako, eta neure igualak diren liburuek zerbitzu bikaina eman diote azkazalen itxuraz kezkatutako pertsoneri, aholku erabilgarriak emateaz gain arlo bateko profesionali, dentista edo ile-apaintzaileen arloa bezain errespetagarri den batekoei. Ala ez?

Baina ez, ez da soilik nire ustezko erakargarritasunik eza. Utz iezadazue koka zaitzatedan. *Oinarrizko Aholku-saila* izeneko serie batekoa naiz, *Biblos* argitaletxeak atera zuena garai hartarako ezohiko publizitatez, bilduma dibulgaziozkoak puri-purian zeudenean. Astero-astero beste zenbaki bat ateratzen zen, oso izenburu desberdinekin, *Haur baten jaiotza* edo *Drogak, hippyak eta gaurko gaztedia*. Entrega bakoitzak elkarriketa bat dakar gaian aditua den nazioarteko solaskideren batekin eta testu bat gaizki ordainduta beste espezialista batzuen eskutik, hauek etxekoagoak, lupaz bilatu beharrekoak aurkibide nahasian. Estetikan lan egokia naiz. Couche paperezko ene orriak gainezka daude kolorezko ilustrazioz, estreinatu

berriaren itxura ematen itsututa zegoen hamarkada baten gustura; nire lehen edizioa dezente ongi saldu zen. Zergatik orduan nire existentziaren ustela? Samurra da erantzuten: Akats lelo baten emaitza naiz.

Asmakizunaren arduradunak, hasierako arrakasta harrigarria ikusirik, berehala atera zituzten titulu guztiak ezer ukitzeke. Modu erraz tentagarria inprentako kostuak murrizteko. Ekimenak, euforia diruzale batek agindua, porrot egin zuen nabarmen. Beste argitaletxe erneago batzuek, atzerrian erabakimen handiko guneen jabe, antzeko argitalpenak atera zituzten, merkeagoak eta eguneratuak, eta hauen aurka lehiatzerik ez zen izan. Kioskoan alferrik erakusgai egun batzuk pasa ostean, berrargitaratutako gehienok biltegian pilatu gintuzten, eta han hasi genuen multzoka saltzeko ibilbide neketsua. Bai, etengabe balioa gutxituz azokaz azoka doan liburu askotako bat naiz.

Asmatuko duzuenez, era guztietako ibilbideak ezagutu ditut eta nahiz eta arraro iruditu, ez naiz ni arrastan dabilenaren adibiderik larriena. Badira testu liburu ohoratu mamitsuak, urtero egundoko tormentuak jasaten dituztenak, “ikasle” hordiek astintzen, barruak ateratzen eta erretzen baitituzte “ikasturte amaierako” zeremonia oligofrenikoetan. Beste batzuk badira, zuek uste baino gehiago, gogo biziz erosiak eta handi gutxira ahanziak. Erabat zokoratuta hamarkadak eman ostean, haietako asko soto ilunen batean geratzen da marraskari gosetien elikagai.

Hementxe nago, zuen aurrean, bete ditut hogeita hamar urte. Ez dirudidan arren, neure itxura egokia da eta nire

koloreek bizitasun guztia dute, funda garden bati esker, orain jadanik opakoa, oraindik inguratzen nauena, eta nire izakide guztiei jartzea erabaki zutena. Moda? Estetika? Higienea?: Ja! *Argaltzea erraza da* liburu usatu batek, zeina nire familiakoa baita, QUIMIPLÁSTICA,S.A. enpresakoa, esan zidan kontu txikiaren arabera, plastifikazioaren kontua negoziatu zuen editorialeko zuzendari erne batekin; honek komisia hartu zuen eta ideia saldu zuen “Europara begira modernizatzeko ezinbesteko urratsa” zela esanez. Usteltxo horri esker, nire orrialde eta azalak estalita egon dira kanpoko erasoetatik, eta balizko erosle askok azkenean baztertu egin ninduten, barruan neukana ikusterik ez zutelako. Horra hor nire nahigabeko birjintasunaren azalpena.

Pentsa zein puntutaraino iritsi zen neure ezinegona, egun hartan, entzun nuenean garbi, nola neska morena polit batek, unibertsitario bixi itxurarekin, galdera botatzen zuen: -Ezer ba al daukazu manikurari buruz?

Liburu-saltzaile desastre haren, zeinari etengabe lapurtzen zioten, ipurdi dorpe neurrigabea, nire posiziorantz zuzendu zen, bere hatz erakuslea jarri zuen nire bizkarrean eta salto eginarazi zidan neure apaletik esku gazte delikatu haietan pausatzeko; esku horiek antsiaz zeuden, zalantzarik gabe, nire baitan eskainitako arretak berenganatzeko. Nire izatea ez zen artean bi urtera heltzen. Begi berde oso goxo batzuek aztertzen zituzten nire azaleko elementuak: azazkalak hainbat kolorez margotutako emakume oin baten irudia eta obraren titulua behatzen artetik bihurkari.

Asmotxo “psikodeliko” batzuk ziren, sekula harridura handiegirik sortu ez zutenak. Baina betaurreko antzinako

haiekiko tipo hanka-baldarra ez zen gai izan produktua duintasunez saltzeko. Aitzitik, kretino zaharraren ahots flauta kutsukoak estalitako errieta hura bota zuen brast: -Prezintua hausten baduzu eraman egin behar duzu, badakizu... bestela, gero, kaltetu egiten dira. Kaltetu egiten dira, kaltetu egiten dira... Purtzilari ausarta!

Izaki delizioso hura artean niri beha geratu zen agonia une batzuetan, nire hermetismo zentzugabearen aurrean ezinean. Hurrengo galdera hilgarria izan zen: -Eta ez al daukazu orriak pasa ditzakedan bat?

Bazeukan. Mamarratxo hark beste liburu bat zeukan diziplina berari buruz, itzulpen zaharkitu bat 1957ko liburu frantses batena: *Manikuraren sekretuak*. Liburukote ulergaitza zen, eta berak bazekien, baina nik kariñoa hartua nion. Azken batean denbora asko zen bata besteari itsatsita geundela. Aitortu behar dut, nire gazte harrokerian, nire burua askoz erakargarriagotzat neukala liburutzar zahar hura baino. Haren ilustrazio guztiak oso txikiak ziren eta zaharkituak. Meritu handiko luma-mutur marrazkiak, baina ez gai nire kromatismo bizi-biziekin lehiatzeko. Ergelki konbentzituta nengoen nik abandonatuko nuela egoitza ilun hura, eta bromak ere egiten nizkion neure adiskideari haren destino beltzaz. Baina edertasun hura, baina, liluratuta geratu zen nire kidearen “grabatu dibertigarriez”, “zirrargarria” iruditu zitzaion obraren jatorri “gabatxoa” eta arrazoizkoa iruditu zitzaion dirutza bat ordaintzea xarkote harengatik, zeina baitzeturren, neure gisa, rastroko mahietako gauza zaharren trapitxeo ilunetatik.

Izukaitz behatu nuen neure altueratik nola hatz haiek, ukitu jainkozkoz segundo loriatsu batzuk eman zizkidatenak, nire laguntzailea hartzen zuen grazia berberaz eta laztantzen zituen altxor bailiran. Handik gutxira, ile kizkurrekiko printzesa dirdaitso irten zen handik, neure konpaia bilduta erregalu paper ikusgarrian, gazte altzo samur bozkariatu hartan babestua. Hura inbidia! Bai etsigarria, garratza, ez-sanoa, mingarria sentitu nuen inbidia, espekulatzaile zekena ikusiz neska despeditzen bere irribarre berdearekin! Munduan inork ez daki zer nolako hotza sartzen den, liburu lagun batek uzten duen hutsunetik.

Horixe hain zuzen, liburu lagunak eta bidaiako kideak, horixe izan da bitrina eta oholtza artean alderrai ibiltze haustu eta antzuan izan dudan gauza kitzikagarri bakarra: beti orrialdeak falta zitzaizkien bakeroetako nobela merkeak, bideojokora iltzatuta dauden munstrotxoen belaunaldi berriak erakartzeko gai ez diren haur ipuin atsegin xaloak, historia tratatuak non lehen mundu gerra artean *Gerra handia* zen, komiki usa-usatuen bilduma hebainduak, orrialdeak ipinkiz jositako aldizkari erotikoen albumak, klasiko harroak eta ziztrinak, begiratzen zidatenak bizkar gainetik *Volvoreta* edo *Erlauntza* izenburua zutelako, izanik haien destinoa nirea bezain tamalgarria edo gehiago.

Ez dut ukatuko batzuk, are dibertigarri izan zirela. Azken urteotako ibilbide arrastatu nekagarriak harremanetan jarri ninduen esan ezin hainbat ametsarazi zidan atlas antigoaleko batekin. Beldurti zer suma dabiltzanen eskukatze eta eskukatze artean, urrutietako jakintsu hark Madagaskar-eko nekazaritza esplikatzen zidan, tuaregen egitandiak edo Ekuador-eko batez besteko hozberoa.

Suerte kaskarragoa izan dut Bibliekin, ugariak baitira aspertzerraino eta beti prest sermoia egiteko agintza eta maxima kontraesankorrekin. Bai bitxia! Liburu sakro horiek guztiek asmatu zuten hirugarren aurreikuspenean: Infernuko sutan erreko zara!

Eta hemen da, nire estalkiaren aurrean, nire zain bere mingain aseegin suntsitzaileak dituela: Infernua. Nabari dut haren berotasun mehatxagarria. Beste bi metro aurrerago, fundi nezake hainbeste estutzen nauen plastiko belztu hau.

Bata eta zapatilatan dagoen pizti nabar horrek, laster nabarituko du haren oinek beroa galtzen dutela eta sua bizitu beharko du. Gerta daiteke periodikoa erabiltzea, edo arrazoi txororen bategatik piloko lehen liburua ez hartzea. Agian nitaz urrikalduko da. Atzo bertan absolbitu egin zuen, *in extremis* nire jakingura piztu zuen perretxiko pozoitsuei buruzko liburu bat. Daniel Boone igandezalearen jolasa egiten duen hiri-kume lotsorra izateko itxura guztia dauka. Ez dut uste nire gaiak edo gorputzaren itxurari buruzko beste batek atentzioa emango dionik hazka egiteko makina koipetsu horri. Baina agian salbatuko naiz oraingoan ozta-ozta eta ondoren, gu berriz gordetzean, atzera azken postuetara. Gerta liteke halaber giro oneko egunak etortzea eta aldi batez beheko sua ez piztea...

Baina zer axola dio! Onenean ere zain geratuko nintzateke heldu den neguan gatibu armairu ilunen batean, hainbeste kide jan dituen pipiaren edo arratoiaren mende. Egiaz, nekatuta nago batetik bestera ibiltzeaz letren kirasdun gisa eta urteak igaro ahala, galtzen noa irakurria izatea zer den jakiteko ilusioa.

Zalantzarik gabe, izango da pentsatzen duenik nire ibilbidea ez dela hain terriblea. Katixima trentoar hark hala botatzen zidan sermoia: “Inork ezin du harro nahi izan zerua lurrean”, zahar okitu haren arabera, liburu batzuk jaiotzen dira alderik alde belaunaldiz belaunaldi irakurriak izateko, beste batzuk zati bat gozatzeko, eta beste batzuk, antza, zokoak betetzeko eginkizuna betetzen dugu, beste batzuk eror ez daitezen eta “haiei lagun egiteko”. Baina, horiek, oso txepel eta umiliagarriak izan arren, ez dira izan, zoritxarrez, nire zeregin bakarrik. Nire izate okerraren azken aldia ezagutu ditut azpiratzearen egoerarik minenak.

Agatha Christie-ren intriga entretenigarri bati hiltzailea aurkitu nahirik nenbilela, nire saltzailearen hutsegite batean, begi irteneko tipo batek, itxura gaiztokoak, liburu sorta bat harrapatu zuen eta haien artean ni, eta korrika irten zuen zoroaren pare, ihesaldian galduz neure zenbait azio-lagun. Orduan haietaz urrikaldu nintzen. Inozoa. Ez nekien nik asko, berehala zer zetorkidan. Nire orri estutuekin zulo kirasdun batean agertu ginen, hango irakurgai bakarrik geu eta telefono gida ginen. Mende luze iruditu zitzaizkidan hilabete batzuetan, egoitzaren alde batetik bestera ibili nintzen, erasotzeko arma gisa erabilia neu bikote baten liskar izugarrietan, plataforma izan nintzen hauts euforia-emaileak hartzeko plataforma gisa, eta azkenik, eman zitzaidan sekula eman zaidan jokatzeko paperik umiliagarriena. Arasa herren oso astun bati eusteko oinarri jarri ninduten. Hura zen hura, zeregin zapalkor hura izan zen neure izate guztian erabilera praktiko eztaba daezineko eginkizuna bete nuen aldi bakarra.

Ez dakit batere zerk bultzatu zuen kinki hura beragandik hain urrun zegoen gauza bat oster, baina kontua da aldi txar-txarra izan dela gangster ikasleen leize honetan jasan dudana. Haritzezko puska trinko sendo haren hankak bere oinatz biribila utzi dit markatuta eta orain bloke belzkara bat naiz, aurreko taparen bihotzean zirkulu txepel bat daukana, eta bertan ikusten da azkazal berde bat eta letra solte batzuk. Itxura eskas-eskasa dut eta halere nire esentzia ukigabe dago. Hilko naiz jakin gabe pilako kideen oso usatuaren itxura zein den; liburukote horixken fauna askotarikoa da, harrokeriaz beren aurreko jabe ospetsuak aipatzen dituztenena.

Nire posiziotik ikus ditzaket, baita ere, nire ustezko berdugoak bere liburu-apal negargarrian dituen liburuak. Aski litzateke neuri azal hau erauztea, egiaztatzeko edozein altzari apain dezakedala, izadiaren bizitzako entziklopedia horrek bezainbateko prestutasunez edo hobeagoz, izan ere bibliotekaren bihotza hartzen du entziklopediak, jakintzaren muina bailitzan. Eta zer esan, gutaz barre egiteari uzten ez dion Jane Fonda-ren “aerobic” tratatu leloaz, aurrezki kutxaren opari arrunta da. Jakingo ez banu bezala zuen orrialde hanpatu asko ez direla sekula ireki eta ez direla izango, zuen patua nirea ez bezalakoa balitz bezala. Hainbeste aldiz eman dit arrazoia denborak! Oraindik gogoan dut garai neketsu hura, rastrotan marxismo-leninismoaren teorikoen “obra handiak” hasi zirena erruz agertzen. “Ez duzu lotsatu behar” esaten zidaten kirten haiek, “denbora-pasa apal burges txikia zara, baina zure azazkal finduek ere lagun diezaioke kausa iraultzaileari”. Bizkarretik hartzera bidaltzen nituenean lotsagabe harroxko jartzen ziren: “Zientifikoki dezifratu

daitezkeen erritmoetan mugitzen da historia, iraultza
saihestezina da eta alde edo kontra egin beharko duzu,
nahi eta nahi ez. Inuzenteak. Oso urte gutxitan, tesi
irentsi-ezin oldeak geratu ziren esnobistek pausaturik
urgentziaz birsalmentetan, izan ere antza nabarmen egiten
zieten enbarazu. Ikuskizun egundokoa zen eztabaidan
ikustea *Etengabeko Iraultza* eta *Kapitala*, eta aldi berean
menpeko eskasek, *Sovieten lorpenak* edo *Hirugarren Adina*
Mao-ren Txinan-ek esaterako, beren maisuak txalotzen
zituzten auzo lotsa eragiteraino. Urduri zeuden eta bazuten
arrazoirik. Tratatu haietako bakar bat ere ez zen berriro
zirkulazioan jartzen. Haien jabe izanak gure inguruan
zebiltzan orrazkera berriekin eta traje eleganteekin, zientzia
ezkutuen, erlijio exotikoen edo azterketa heraldikoen
testuen bila. Hainbeste dira batek jasan behar izan dituen
astakeria eta ergelkeriak! Eta gauzak nola diren,
handipuzkeria editorialeko kasurik jasanezinena berdin
batengandik sufritu nuen. Lehen tirada garaipentsu hartako
ia neure berdin zen batengandik. Kirten hura, Bilboko liburu
merkearen azokan toparazi baininduten harekin, harroputz
zebilen industrial oparo baten apaletan egon izanaz bost
urtez. Bi orrialde, alabarik gazteenaren azazkaletako
esmaltez zikinduta zeuzkan, eta zikinkeria hura erakusten
zidan pedigree gisa. Baina ez zen hori okerrena. Kabroi zikin
hark mila eta bat argudio ematen zizkidan, erakusteko
berak, hau da, nire klonazioak, bazuela meriturik aski
nigandik eta nire zoriagandik bereizteko. “Ikus nire
orrialdeak”, esaten zuen burgoi, “ zurearen berdin-berdinak
dirudite baina ez, beste ukitu bat dute, beste tonu bat,
lodiera pixka bat gehixeago ere bai, ezer ez da kasualitatez
anaia”. Zikin hark torturatu ere egiten ninduen adieraziz ni
ale akasduna izan nintekeela... “akatsak, tindatzean edo

agian kolorean”, botatzen zidan zeharka berak, argazkiak hain hits zituelarik oilasko hanka ziruditenak zeuzkan hark. Kontua da bere egoerak ni baino merkeagoa egiten ninduela eta horrek erraztu egin zuen bera lehenago aukeratzea. “Zuk prezio altuagoa duzu”, oihukatu zidan jabe berriaren besapean estu urrunduz zihoala, “baina nik balio handiagoa dut, anaia”.

Beraz, lagunok, hontara helduta, ez dakit salbatu nahi dudan edo behingoz sutan erre nahi dudan. Nahi nuke, hori bai, nire garretako batek oihu eginaraztea oinazez nire berdugoari, azken mendeku gisa, hainbeste mespretxuren ostean. Orain bertan zutik dago, txingarren egoera aztertuz lastaira eskuan duela, batoi trakets hori bular parean korapilatuta duela, horixe baitu perimetro bakarra halako koipe bola inguratzeko. Beste enbor bat behar duela konbentzitu aurretik, beste errauste kultural batzuk egingo ditu. Lotsarik ez ote du, faxista nazkagarri bat bezala liburuak erretzen aritzeko. Hara, gure aldera begiratu du. Ez digu begirik kentzen. Hauxe da amaiera. Agur mundu ankerra. Sekula arte, txiste liburu hain tarte politikak ematen saiatu zinetenok, ulertu gabe txiste on bat ezin dela idatzi, inork irakurri ez zituen “best sellerrak”, lagun abenturero zaharrak: *Ivanhoe*, *Ricardo Lehoi-bihotz*, *Gezi Hautsia*. Agur Gillermo maitea, debekatu gurtuok, *Maloryko dorreak*, eta hauen abentura beroak: *Estefania*, *Koiotea*, *Azeria*, *Tarzan*. Errauts bihurtuko naiz zuen “maitagarri hauts” madarikatua ezagutu gabe. Jadanik haren eskuetan nago. Ni behartzen ari da bere behi-begi adimentsuez, zerbait du nire azalarekin... Jakina, “nagoen horretan” botatzen banau sutara, kiratsa jasanezina izango da. Zalantza barik ni lau puska egiteko modurik azkarrena zein den aztertzen ari da

tontolapiko halako hori. Zerbaiten bila dabil, artazi batzuk agian. Oso arraro sentituko naiz erantsitako plastiko hau gabe. Biraoak esaten dabil, madarikatu du bere andrea, eskuak gerrian jarrita begiratu du egoitza, antza bilatzeari utzi nahi dio, zerbait asmatzen ari da. Baina nola!, norbaitek gera dezala bidegabekeria hau! Anker honek azazkalez kendu nahi dit birjintasuna!

-EEEZZZ! KAKA!

-Zer gertatzen da Armando? Zer dela eta oiho horiek?

-Joder! Sekula ez dakit non sartzen dituzun artaziak!

-Artaziak sartu dituzu haragian?

-Ez, letxe! Baina hiru azazkal hautsi ditut plastiko nazkagarri hau atera nahian, nik ez dakit zergatik jartzen dioten funda bat liburu txorrada bati. Joder! Kristoren mina daukat.

-Non dago liburua?

-Mala letxez harantz bota dut, baina tira, ez al duzu ikusten odoletan nagoela? Zer arraio axola du horrek?

-Begira, banuen horren beldurra! Landareen aurka jaurti duzu!

-Nahi gabe izan da, jakin ere ez dut jakin norantz egin dudan. Ikusten dut, bai, zer axola zaizun nire mina!

-Hara!

-Baina zer! Zertaz egiten duzu barre orain?

-*Azkazalak zaintzeko era!*, eskerrak ez duzun erre, gainera suertea daukazu, zakil-mokoa!...

ZALANTZATSU

Zalantzatsu nengoen. Autobus geltokirantz nindoan, lanerako bidean. Euria hasia zuen eta horrexek gogorarazi zidan aterkia ahaztua nuela. Etxetik irten aurretik zalantzan egon nintzen, hartu ala ez hartu. Irratiak “euri arriskua” aitatu zuen erabat *busti* gabe eta azkenean aterki-ontzitik atera nuen konbentzimendu txikiz, hain txikiz ezen nire lehen kafeina dosia hartzen dudan kafetegian utzi bainuen. Lainoek, orduan, zamari eusteko gai ziruditen. Aterkiaz ahaztea, agian, nire subkontzientearen baliabide bat zen mehatxuari konjurua egiteko.

Berriketak. Egiaz, soil, batzen dira neure ohiko deskuidua eta ez zaizkidala aterki madarikatuak gustatzen. Traba bat da jende artean ibiltzea, etengabe burdin eta oihalekin tupust eginez, eta azkenean zer eta, oinak berdin bustitzen dituzu eta soinaren gainerakoa, haize pixka bat baldin badabil...

Kontua da blai egiten ari nintzela tonto baten gisa. Zalantza egiten nuen, kafetegira itzuli eta galdetu, aurpegi ezinbestez lerdoz, eta lanera berandu heldu edo neure ibilbidea oinez bukatu autobuseraino. Esan nuen neure artean: “Tira, polita da euri jasaren pean paseatzea, ur tantak masailean behera sentitzea, putzuetan plisti-plasta ibiltzea Gene-happy-Kelly *Singing in the rain*-en bezala”. Hori guztia esan nuen neurekiko eta aldi berean itsutu egiten ninduen aterkia hortik zehar abandonaturik zegoela pentsatzeak, lokal konkurritu baten barratik zintzilik, hari erreparatuko zion lehen ernearen eskura. Kaka. Beti zalantza madarikatua. Minutu batzuetan markesina eskas baten azpian buru-hauste latzean egon ostean, bustitzea

saihesteko ezgai, berriro abiatzea erabaki nuen. Zalantza olde batean nengoen, jakina, neure buruari esanez, agian, sakonean, gustatzen zaidala aterkiak ematen duen babes sentsazioa, tantonak zipriztinka amoroski oihalaren gainean, eskuko kupula gozoak ematen duen anonimotasuna. Horretan nagoela, puska estu-estuz betetako autobus batek adeitsuki bidali zidan putzu bateko ur guztia. Laster, nik antzeko tormentu batera igo beharko nuen. Minutu gutxiren buruan, urrutian ikusiko nuen etortzen eta bidaiari gainkargak eragotzi ezean, ateak irekiko ziren neure muturren aurrean, ni gonbidatuz borrokatzera sail arra bete batengatik, puska heze eta aurpegi mikatzen artean. Asmoak berak hotzikara eragiten zidan: Bidaia zakarra, ez eroso, kezkaz eroriko ote zen, balaztadaren batean. Une horretan bertan, destinoak neure erabakimen ahularekin jolas egingo bailuen, eszena tentagarri bat ikusi nuen: Andre bat airosa sartu zen taxi batean. Zergatik ez? Hura zen aukera kolpetik egoera hura amaitzeko.

Neure hezur kastigatuak egokitu egingo ziren jarleku eroso batean, berogailuak neure nerbio zakarrak naretuko zituen, lanera garaiz helduko nintzen eta azken batean, egun bat egun bat da... ba horixe, taxian. Erabaki azkarra izan zen, gurutzatzen ari nintzen semaforoan kotxea bat batean agertzeak eragindakoa. Batzuetan hobe da zirt-zart erabakitzea, bihotzari agintzen uztea, burua gehiegi ez haustea. Batzuetan. Egia hau da, taximetroa bere lasterketan hasi orduko, autobuseko jarlekuan hobe nengokeela otu zitzaidan. Beharbada bi paradetan, erne samar egonda, lortua izango nuen. Bidaia merke eta beroa, asentupeko motorraren burrunbak urrumatua, trafikoa behatuz leihatilako ganduaren artetik, busek ematen duten

altuera pribilegiatu horretatik eta batez ere... solasik gabe. Ez dago tortura okerragorik, desio ez den elkarrizketa bat edukitzea baino, auto-ilara betean, artean gizakitik % 10 ere ez duzunean. Itsutua bainengoen, ahaztua nuen euri egunetan, zehazteko zail diren arrazoiengatik, auto kopuruak gora egiten duela asko, eta baita garraio publikoaren erabiltzaileak ere, pertsona talde bat balego bezala da, kuartel zehaztugabe batean, prest kaleak hartzeko, gehien amorrarazi dezaketen egun horietantxe.

Taxilari hori tipo alaia izango zen, pertsona interesgarri bat ere bai beste edozein egoeratan, baina egia esateko, ahopean esandako bi ohar nahikoa izan ziren haren desintegrazioa desiratzeko. Hasieratik neuregana zuzendu zen, uste izanik nik beraren zerbitzuen bila jo nuela beste erremediorik ez neukalako. Bere tonua zerbait guztiz zuria zen, narritarazlea eta nik ez nekien pantomima segi hari, ahalik eta buru lan txikienarekin, edo zakar erantzun, esan asaldagarri batekin. Nire aurpegiak gogaita adierazi zuen nonbait. Tipoak bere jario demagogikoa eten zuen, galdera hilgarri bat egiteko:

-Presaka al zabiltza? Nahi baduzu saiatuko gara itzulinguru bat emanaz.

Berriro zalantzan.

Egiaz, su txikian zegoen infernu hura uzteko edozein aukera aztertzekoa zen.

-Bai, badut presa pixka bat, egia.

-Begira, azalduko dizut, oso erraza da...

Ondoren datorrena, estra-radioko ibilbide exotikoetan barrena egindako zeharbideen jarraipenaren kontakizuna da, itxuraz guztiz logikoa, zeina entzuten nuen adieraziz

ondo baino hobeto ezagutzen nituela bazter haiek, ohar ez zedin inozo aurpegia eta abusatzen saiatu... baina egiaz, une batez neure buruari galdetu nion ez ote zen ari pantomima hura guztia asmatzen, egiaztatzeko, nire baiezkiko sendo bakoitzarekin, ez nintzela ezertaz ohartzen ari. Nik neuk erantzuna erabaki aurretik, taxia hasia zen bere martxa zail egiten bide gehiegiz, malkar gehiegiz, ilun gehiegiz eta okerreana: desertuz barna guztiz.

Gizon hark sistemarekiko zuen gorrotoa, lehenago interpretatua, hura benetako kabestru bihurtzen ari zen. Proposatutako ibilbidea, antza, ohi ez bezalako egoera txarrean zegoen eta gizonak ez zeukan aurreikusia. Berekiko amodioa zauritua zuen. Lokatzak eta urak kastigatu egiten zuten hainbat frontetatik bere lan tresna higatua, zalantzarik gabe gehiegi balioetsia. Ordu bete ez zen etxetik irten nuela ibilbide aurreikusgarri baterako, eta bi erabaki okerre bide urak hartu batera eramanez ninduten, paraje ezezagun batean zehar, bor-bor zegoen tipo batekin, geroz eta ezgauzago bere ontzia jagoteko. Egoera txartzen zihoan azkar batean, iritsi zen une bat non, soilki, autoak ezin zuen aurrera egin. Hagunek, ezinean, orro egiten zuten zitalduta, lohia para-brisetara botaz, faroetara, mundura. Zenbat eta gehiago tematu, orduan eta hondorago eta zenbat eta hondorago, are txikiago trakzio ahalmena. Beldur izatekoa zenez, heldu zen unea guztiz lokatzen sartuta geundena, segitzeko inolako aukerarik gabe, leku-denbora batean kokatuak, neuri munduaren ipurdia iruditzen zitzaidana.

-Hemen geratuko gara, ezin da segi.

Horixe esan zidan. Besoak gurutzatu zituen, ostertzeko puntu zehaztugabe bati begira geratu zen, larritasun makur keinuz eta horixe bota zidan. Ez zidan barkamenik eskatu hain aukera burugabea proposatzeagatik eta erantzunik ere itxaron gabe abiatzegatik, ez zidan zin egin esanez saiatuko zela arazoa konpontzen irratitik deituta, ez zidan sikiera esan biok jaitsi eta bultza egin edo laguntza bilatzeko. Ez. Zer da eta, erabatekotasun txundigarritz esan, ezin zitekeela segi, eta ez zuen lanik hartu taximetro eroa geratzeko ere. Beste erabaki bat. Laguntzaren baterako neure burua eskaini? Ideia zentzudun samarren bat iradoki?, ordaindu eta handik ziztu batean irten? Bitxia da nola ni haren ideia bikainaren biktima nintzen eta aldiz nola bere jarrerak errudun sentiarazten ninduen. Jakina, ez hainbeste, are oieskeria harrigarriago bat jasateko:

-Ez dakit nola egin dizudan kasu, bide hau ez dago ibiltzeko moduan!

-Barka- ausartu nintzen esaten aditzen nuena sinetsi ezinik-gaizki oroitzen ez badut, zeuk proposatu duzu lasterbide hau.

Neure harridura erabatekoa sortu zen, jaunak, bere mingostasun tonuan gora eginez, ezetz esaten zuenean, argudiatuz bera soilik ni informatzen saiatu zela, baina erabaki negargarria –nola ez- neurea zela, eta ez beste inorena ibilgailuan gertatutako kalteen gaineko erantzukizuna. Tira. Atun-buru haren lotsagabekeriak beste erabaki zorrotz bat hartzera bultzatu ninduen, baina, baita ere, harritzekoa ba, okerra. Handik atera nintzen atea kolpez itxita eta duro bakar bat ordaindu barik. Neure urratsak bideratu nituen euri jasaren pean harrokeria

suminduz, neure ibilbideari oihuka irain eta mehatxu sail batek lagun egiten ziola. Urrutian bereizi ahal izan nuen azken esaldi zentzuzkoak, baina, bi segundoko ezbaia eragin zidan:

-Ez zaitez zentzugabea izan, itzuli hona, garabiari deituko diot!

Bai zera, kaka! Uste baduzu neure harrotasuna pitzatuko dela zentzu kolpe batek eraginda, ederra zaude, zalantzatia naiz, baina ez koldarra. (Ala bai?)

Eta hala, modu hain patetiko horretan, behin betiko koroa jarri nion zalantzaz betetako bizitzari. Neure hanka nekatuak lokatzen mugitzen saiatzen nintzen bitartean, baso bide geroz eta ilun-beltzagoetan, giza arrastorik gabe eta bidegurutze bakoitzean neu galduz, neure bizitzaren filma errepasatuz nindoan, zerutik zerion ur pelikula tupituaren gain proiektatua.

Lagunarteko neure izena Neme da eta horrek berak asko esaten du. Nemessio izena baduzu eta “Neme” izenarekin ezagutzen bazaituzte, berrogei urteak atzean utziz doana zara, Cola Cao-ren abestia dakiena eta dauzkana geroz eta ezezagunagoak diren haur erreferente batzuk: “El Capitán Tan”, “Autos Locos”, “El Super Agente 86”, “Karina”, “Franco”... izan zen garai bat non guraso batzuek ume bat izan behar zuten eta erabakitzen zuten pozik “Nemessio” izena jarriko ziotela, lasai asko. Errege-erreginen saileko batengan erreparatuko zuten akaso, edo aktoreren batean, edo akaso Nemessio aurpegia ikusi zidaten zuloatik atera nintzenean, ez dakit, egia zera da gogoan dudala arrazoi xebrereren bat, omenaldi bat neure amaren lehengusu hil

bati edo horrelako zerbait, ez dio axola, kontua da orain izen arraro bat dudala eta belaunaldi jakin batekoa. Zer esanik ez, maiz pentsatu dut aldatzea, baina ez dut erabakirik hartu. Denboraren iragatearen erakusgarririk onena hauxe da, geroz eta gehiago direla aurpegi arraroa jartzen dutenak nire izena esaten dudanean: “Ne...zer?”. Nik aitona ikusten nuen egoera berean nago, haren “Anastasio” aro kuaternarioko fosil atsegin bat iruditzen zitzaidan.

Zenbait gorabehera izan dituen aldikoa naiz baina, egia esateko, askorentzat nahiko eramangarria. Gure gurasoek bizitako horroreak ezin dira alderatu neurearekin: gerra, gosea, izurriteak... zineari eta literaturari esker dakit nolakoak izan diren, edo hobeki esan “zeren antza duten”. Neure belaunaldiko kiderik gehienok denbora eta aukera izan genuen pentsatzeko, pelikulak ikusteko eta Ornella Muti edo Sandro Giacobbe-z enamoratzeko.

Hori bai, diktadura bat ezagutu nuen. Konta dezaket zein gogorra izan zen Europako azken diktadore faxistaren oinpean bizitzea. Asko ahalegintzen banaiz gerta daiteke agian sinistera ere heltzea. Baina nik ezagutu nituen hondarrak, erregimen baten agoniakoak dira, zeinak lotsaz begiratzen baitzuen bere burua munduko ispiluan eta soilik baitzen gai “bakea” eta “aurrerapena” guri saltzen sinesgarritasun handirik gabe. Nik bizi izan nuen frankismoak artean izan zuen gertaera odoltsurik, goiz-alban egindako fusilamenduak, kalean erantzundakoak hauek, matoi bandak bere gisa han-hemen, abusuak eta mespretxuak egunerokoan. Bai, hau guztia egia da eta ilunago ere jar nezake, baina praktikan, balio izan zidan

baita ere borroka egun emozioz beteak bizitzeko, asanblada beroak, trobadore bizardunen errezital emotiboak poliziaren sarrerarekin. Trantsizio betean, Francoren gorpua artean bero zegoela, borra-kolpe bat jaso nuen sorbaldan eta balantza eragin zidan. Ubeldura zenbait egunetan izan nuen eta egiaz ematen zuen minik, bai, mugimendu batzuk egitean... baina “gris” anonimo hari zor diot neure birjintasun berantiarraren galera eta promiskuitate “iraultzaile” aldi gozo baten hasiera. Ez, ea, zer ari zara ulertzen? Esan nahi dut agintearekiko ene desafioak -egiaz garaiz alde egiteko ene ezgaitasun dorpea- heroitasun aureola bat eman zidala... haragitan errentagarria.

-Ezin duzu medikuarengana joan”- esaten zidan beldurrez pontxo andetarrarekiko dontzeila eder hark, alkoholez igurzten ninduen bitartean- “galderak egiten hasiko litzateke eta arriskutsua da”.

Ezpain nerabe haiek poliki pausatu ziren, samurtasunez beteak, gerrako neure zaurian. Neure bihotza samurtu egiten zen, eta bitartean ene luzakin arrak alaitasun jauzi bat egiten zuen -kabroi horrek sekula ez du zalantzarik-.

“Arriskutsua” zen gure hitz gogokoenetako bat. Perspektibaz begiratuta, pentsa daiteke gehiago zela guk geuk geneukan beldurra. Gure militantzia troskistak zeukan arrisku objektiboa baino. Frankismo osteko urte zoro haietan, polizia lanpetuegi zebilen. Gurea bezalako taldetxo txiki komunistak ez dut uste buruhausterik txikiena ere izango zirenik haientzat. Baina guk oso gogoko genuen hala pentsatzea. Teorizatu egiten genuen sistemarentzat ginen “arrisku” objektiboaz, larunbateko kartelada

“arriskutsuaz”, bilera klandestino “arriskutsuez”... edozer, gure ustezko ideologiaz teorizatu ezik. "Manifestu Komunista"ren komiki bertsio dibertigarria eta hitzaurrean abandonatutako hiru edo lau totxo aski euskarri baziren” gure konpromiso argirako. Errepresio eta “arrisku” maila handi horrekin nola ba galdu guk denbora Trotsky izeneko baten burutazioekin, aski genuen txintxo sinistea haren “Iraultza Iraunkorra” kristorena zela eta Stalin maltzurari aurre egin ziola, hau errudun izanik SESB herrialde totalitario izateaz. Zein denbora zoragarria, segurtasun erabatekoena.

Kriston martxa zegon sasoi ilun hoietan, kantatzen zuen HERTZAINAK taldeak. Astiro irakurtzen bada, ia kontraesana da, baina onena hau da, egia dela. Franco eta honen sistema zapaltzailea etsai komuna genuen, baina etsairik komunena besterik zen: ezkerreko gainerako alderdiak; sigla arranditsuen nahasketa bat, nahasmenerako itsugarri, txinatarzaleak, albaniarzaleak, sobietarzaletak, anarkoak, birbateratuak, bereiziak, berdetuak eta oso bereziki gainerako troskistak, zeinak baitziren, jakina, zazpi Franco baino mehatxu handiagoa.

Tira, nork bizi duen bezala kontatzen du bizimodua. Nik, honez gero, ez dut tintarik kargatuko alderdi errepresiboetan, nahiago dut ziniko izan hipokrita baino. Trantsizioko urteak ez zitzaizkidan batere aurkako izan. “Arte Ederrak” ikasten nuen fakultate adeitsu batean, beteta irakaskuntza gorroto zuten irakasle gorritz, erakunde egokian militatzen nuen eta harreman sexualak nituen, garaia hartan, zin dagit, hori sinesgaitza zen garaian. Baita ere irakurtzen nuen eta “Arte y ensayo” pelikulak ikusten nituen, izen txepel hori jartzen baitzion frankismoak,

ulertzen ez zuen guztiari. Gure irakurketak ez ziren teorikoak. Aldizkaririk ausartenak irensten genituen batez ere: “Triunfo”, “Ajoblanco”, “Star”, “Disco Express”, “Vibraciones”... mundurako leihoak, beste alde batzuetan gertatzen ziren errealitate liluragarriei buruzko kontakizunak, erritmoa markatzen zuten gazteak, edozer esperimentatzen ausartzen baitziren, historia aldatzen ari baitziren.

Paradoxikoki dena hasi zen izorratzen gure legalizazioarekin. Halako egun batean Adolfo Suárez-en gobernuari gogoak eman zion, onartzea, igitaia eta mailua paisaia politikoan. Lista ireki zuten PC Erekin eta hilabete gutxitan, inperialismoaren gaineko astindu guztiak eltxo amorragarri bihurtuak ginen. Gure aitortza legalaren mozkor kolektibo hura, (“gobernuak ez du izan jendetzaren presioaren aurrean amore eman beste erremediorik”) hura izan zen ospatzeko zerbait izan genuen azken aldia. Ondorengo hauteskundeetan murriztuz gindoazen ia ikusezin izateraino. Zita klandestino haiek “kontaktu batek, bizar eta ore-betaurrekoekikoak, panfletoak eta kontsigna pasako dizkizu” haiek, inork emango ez zigun boto baten eske egindako “kartelada” gatz gabe eta nekagarri bihurtu ziren. Karga polizialen ordeztu, murru puta baten gaineko eskubidea erreklamatzeko zuten beste eransle batzuekiko gau tirabira etsigarriak sortu ziren. Koadrodun alkandorak zeuzkan lodi batengandik jasotako erratz-kadak askoz mingarriagoak eta infinituki umiliagarriagoak izan ziren, borra-kolpe polizial epiko eta errentagarri hura baino.

Ziurtasun hautsiezina zeuden lekuan, etengabeko dudak sortu ziren edo are tamalago: erabaki okerrak. Ongietorri laurogeiko hamarkada zoro, libre eta sinesgogorrera.

Nonbait lan egitea erabaki nuen, ikasketak bukatu ordez -lau urteren buruan enpresak kiebra jo zuen-, ezkondu nintzen nire bi aukera bakarretako desegokienarekin –ez baitut argi nire joera sexuala ere-, soldaduska egin nuen -Ceutan jakina- objektzioa egin ordez, kanpoaldean bizitzea erabaki nuen hirigunean izan ordez- horrek aurreztuko zidan taxiaren gertaera hori guztia-, beti aldatzen nuen *ideologiaz*, nire antzinako kideek boterea eta influentziak lortu aurretik. Okertzen hasita, neure erlijio aukeran ere okertu nintzen. Txikitan oso sinestuna nintzen, beste denak bezala, gero agnostizismoa deskubritu nuen, oso eroso gertatzen zitzaidan, aukeratu behar ez izateagatik, eta azkenik ateo egin nintzen, norbaitek konbentzitu ninduelako agnostikoa izatea ateo-light izatea zela funtsean.

Tira ba, egun txar hartan harrapatu nuen pneumoniak azkena ekarri zidan. Hara, hara, zer da eta, zeru, infernu eta purgatorioaren ustezko astakeria hori egia dira! San Pedrok primeran pasa zuen bere pantailan neure bizimodu mundutarraren ibilbidea errepasatzen eta une batzuetan neuri begiratu eta gero, bere santu esku goxoa jarri zidan sorbalda gainean eta bota zidan:

-“Laguna, zeure bizitza etengabeko akats egundokoa izan da. Zeure ateismo deklaratu eta egintza bertutetsu eskasak aski lirateke betiko sutara kondenatzeko, baina bistakoa da zeu ez zarela gizon txarra izan, oso suerte txarra izan duzu, soilki, eta horrek merezi du aukera bat. Nahi baduzu, ehun urte eman ditzakezu purgatorioan eta

ondoren zure kasua berrikusiko da, zeruko erreinuan sartu ote zaitezkeen aztertzeko, non betiko egongo zaren airean Jainkoa ikustearen zorion betean. Aurkakoa gertatzen bada, batetik bestera ibiliko zara noragabe infernuan, gizateria zanpatzen duten bekatu beldurgarrienak etengabe berregiten diren lekuan, eta atsedetik gabe egingo duzu, gizaldi eta gizaldietan amen. Hausnar ezazu”.

Eta horretan gaude. Ia bi bosturteko egin ditut itxarongela honetan neure egonean, ez naiz gai minutuz minutu jaten nauen asmakaria argitzeko. Badakit errazena nirvanarantz irekitako pista hori baliatzea dela, mende bateko purgazioen ostean, baina jakin ere badakit erabakia hartu eta bi minuturen buruan, oso damuturik egongo naizena, beti bezala eta gainera ezin dut ukatu irudikatze iradokor honek itsutzen nauena: “Gizateria zanpatzen duten bekatu beldurgarrienak etengabe berregiten diren lekua”. Hau zoritxarra, egingo nituen bekatu bakan horiek ez zuten ezer “beldurgarritik”, izan ziren, asko jota, lege-hauste txikiak bizitza errazean, zeru seguru bat ere ziurtatu ez didan bizitzan. Zein bekatu izango ziren horiek? Zenbateko ditxa emango du egiaz Jainkoa etengabe behatzeak? Nork esaten dit niri lekuri onena ez dela itxarongela hau, non gutxienez, tarteka jende interesgarria agertzen den solas pixka bat egiteko? Zer gertatuko ote zitzaion neure aterkiari?

BILBO, 2002-2-22

Bagoia erdi hutsik doa arratsaldeko ordu tonto horietan. Egunsenti gandutsua izan da, iluna, baina zerua mugitzen da, oraindik erabakitzeke dago egunaren kolorea. Goizak ekarriko du bai. Bideoa jasotzea, LOU REEDen kontzerturako sarrerena begiratzea, akaso praka batzuk erostea, armairuan daudenak lagun eske baitaude, baina hain da amorragarria aldagelatxoetan biluzten aritu beharra! Geltokiek publizitate kanpaina estreinatzen dute gaur. Toscanik leotzetatik atera ditu hiltzera kondenatuak guri pentsarazteko eta abar. Lehen planoan beltz bat betaurrekoak buruan dituena. Mimo-eske eta logura itxuraz begiratzen nau, RUBEN BLADESek honela esango luke: *Con cara de yo-no-fui*. Aurpegian ez du xehetasun bakar bat ere, doilorkeria kutsurik txikiena emango duenik. Neure aurrean oraintxe eseri den gizona hura baino kabroiagotzat hartuko lukete askoz. Ultzeraren bat izango du. Haren mapa fisikoa hertsatu egiten da ozpin keinu batean, nazka emango balio bezala irakurtzen ari denak. Begira nagokiola ohartu denean, ezeroso sentitu da eta eztula egin du. Ustezko jubilatua etxeko misioetan hiriburuan, agian soilik tarifa murriztua baliatu du jira bat egiteko. Goizak gizon horienak dira orain. Gogoan ditut umetako pira ernagarri haiek. Parkea langile eremu handi-handi bat zen gure eskura, inoiz edo behin zeharkatzen zuelarik emakumeren batek, janari poltsaz betetako emakume isilpekoren batek. Jubilatuak orduan agure heroiak ziren, beren zorigaitza aparkatzen zuten eliza-atarian. Orain parkeak beteta daude paseoan dabiltzan gizonez, arrastora jokatzeko, periodikoa leitzen, bilobak zaintzen dituzten gizonez. Eguzki erre estimulatzailerik bat agertzen da argitsu, etorkizun oparoko. Pintadak murru luze hondagarri batean Lamiako industrial eta dekadentean. Kutsu politiko-soziala dutenak histu

egiten dira, berrienak puri-purian dauden hip-hop
estetikakoak dira. Horietako gehienak ondo sartzen zaizkit
begitik, baina hainbeste hieroglifikoren esanahia ezezagun
zait. Hiri-multzora hurreratu ahala, bagoiak berriz betetzen
dira jendez. Giri egonean egonekoak, zer suma.

Berritasuna Bilboko paisaian, orain oso gutxi arte apenas
ezagutzen zituen portuko itsasgizon alderrai etsituak beste
atzerritarrik. Hauek beste historia bat dira. Hasteko
emakumeen kategoria dago, moiletan ikusezina, eta ez
dirudite triste. Oporretan daude. Zer irudituko ote zaie hau?
Londres txiki moduko bat gertatuko zaie ala gorantz doan
Bukarest bat? Ahaztezina Errumaniara egindako bidaiak
goiztiar hura, Euro-Este-ren sustapena. Alderdi komunistak
agintzen zuen herri goibel, koldartu, paranoikoan. Opereta
herrialde bat, ematen zuen rolo txarragatik ez balitz.

Gidariak, erregimenaren aldeko, esplikatzen zigen:

“Ikasketetan emaitzarik onenak lortzen dituztenak soilik izan
daitezke alderdikoak”. Ikusi nituen. Siviuko hotel hartan,
zenbait ordezkari dotorek amerikanoa erretzen zuten,
frantsesa edaten eta PINK FLOYD entzuten. Non ote daude
orain? Ez dut uste Ceaucescu senar-emazteen zori gaiztoa
jasango zutenik. Ikastun axkarrek agintean segituko dute,
seguru. Horrek argudio on bat eman lezake ipuin baterako.
Inori interesatuko ote litzaiokeen galdetzen diot neure
buruari... Turista gazteetako bat beltza eta ederra da.

Elegante eta moderno luzitzen du larru granatezko txaketa
gurutzatuarekin. Oso begi irekiekin hitz egiten du hiru mutil
horail eta luzexkekin. Kosta egiten zait hizkuntza
ezagutzea, alemana agian? *Bill's dancehall in Bilbao,*
Bilbao, Bilbao/Greatest in the world. Esaten dute Bertold
Brecht sekula ez zela hirian egon. Bada ziurtzat jotzen
duena Bilbao izena hartu zuela piezarako, belarrirako oso

musikala egiten zitzaiolako. Susan Sarandon-ek esan zuen KURT WEILLen partitura zela bere erreferentzia bakarra Guggenheim iritsi arte. Kanta oso ederra da, bereziki MARIANNE FAITHFULLen bertsio dramatikoa. Bill-en dantza aretoa leku mitikoa da, non elkartzen diren gaztetasuna, nostalgia, euforia, dibertsioa: betetasuna. Denok daukagu *Bill's dancehall* bat armairuan, ala ez? Bilbon ez da oso ezagutua. Ez dago taberna bakar bat ere balizko tiroi komertziala baliatzen saiatzen dena. Bada ziur dioenik Bertold Brecht-ek bazekiela honen berri, Bizkaiko golkoan klub builoso betetako portu pletoriko bat zela eta bere *Happy End* operako argudioan sartzea erabaki zuela. Batek daki. Horrek bai balio lezake argudio on baterako oinarri gisa: “Ikerlari amerikar bat, edo hobe, alemaniarra, Bilbora dator dantza areto legendarioaren arrastoren bat bilatu nahian. Iritsi bezain laster hunkituta behatzen du ilargia, *that old Bilbao moon* eta sumatzen du ezin daitekeela besterik izan. Egunak pasa eta ezerk ez du gerturatzen bere Doradora. Azkenik, etsitzeko zorian dagoenean, zerbaitek itxaropena berreskuratzen dio, argazki zaharren batek?, altxatu susmagarri batek Cortes kaleko putiklub zaharkitu batean?, amets batek? Ideia ona izan daiteke. Beste geltoki bat. Beste hobendun bat. Hau zuria da, gihartsu dago eta desafio puntu batekin begiratzen du. Heriotza-zigorra ez da defendagarria baina... eta honek zerbait egin balio zure alabari? Hil egingo zenuke, zuzenean. Agian horrela pentsatzen dugun artean ez da ezer egiterik izango. Ez duzu inor hilko. Begi-bistakoa dirudi. Agian lerro etikoa hor egongo da hain zuzen. Justiziak berak ere onartzen du “defentsa legitimoa”, ez dakit. *He visto morir/Y al asesino correr*, kantatzen zuen Josuk bere ESKORBUTOren abesti agonia-egoerako

hartan. Elkarrekin geunden hura gertatu zenean, hirurogeita hamaseiko "sardina egun" hartan. Jai giroko euforia, amnistiaren aldeko manifestazioa, politika pil'pil giroa. Tira. Ez gara sartu baino egin, hura gertatu zenean. Tiroak, oihuak, bultzadak. Entzun ditugun lehen benetako tiroak dira. Ez dira zinekoak bezalakoak. Danbateko lehorrak dira, zirrargarriak, hiltzaileak. Flashak bata bestearen atzetik kaosaren erdian. Aurpegia estalita duen tipo bat aldatz beheara doa korrika pistola eskuan duela goian, sartu da kotxean eta ihes egin du. Jende olde desesperatu bat ahal duen lekuan babesten saiatzen da. Sartu dira jeep berdeak ziztu batean. Baten batek jipoi bat jaso du lurrian. Baten batek erakusleiho bat hautsi du buruarekin. Atari hartatik irten genuenean, anbulantzia joan-etorria zegoen, gero jakin genuen bazirela bala-zauritu batzuk eta emakume bat hila. Orain Josu eta Juanma ere hala daude. *Vive rápido, muere joven y tendrás un cadáver agradable*. Ba al dira gorpu *atseginak*? Josuk sufritu egiten zuen. Kezka eragiten zion auzoak, ezker aldeak, Euskadik, rockak, gazteriak, munduak. Azkenean guztiak egiten zion min. Beti saiatzen zen ni konbentzitzen "zerbait" egitearen beharraz. Egunero akordatzen nauk hitaz, Josu, kabroia. Konboi dirdaitsua hirian sartu da. Azkarregi ere ez zihoan eta, joan. Orain lurpean goaz eta badirudi azkarrago goazela. "Hemen ez da sekula metrorik izango. Lurra oso gogorra da eta oso hezea, ez mendizerran bezalakoa". Oso seguru esaten zuen neure osaba Luisek eta nik sinistu egiten nion. Teman hasten nintzen neure lagun dezepzionatuen aurrean, zeren neure osabak ez zuen deus ere jakin gabe hitz egingo. Agian, bera ere, engainaturik zegoen. Agian denok gaude, azken batean orduan nik ez nuen ulertzen metro bat kanpoko ibilbidearekin, hau da, hori, bizitza puta guztian,

trena izan da, eta hori bageneukan. San Inazio, geltoki handi-handia. Dena berri-berria, estreinatzekoa. Urte gehiegi metropolitarrarekin ametsetan. Itxura denez, luzitu egin behar da. Egun batean, denbora pasata, agian hartuko du metro madrildarrak duen hats malenkoniatsu eta higatua: Elkarri begiratzen ez dioten aurpegi adierazpenik gabeak, asmamen handiko anonimoek aldatutako oharrak - “cuidado con las puxxtas”-, oso tunel luze itogarriak non kiratsa dagoen eta non han bertan hazitakoak diruditen musikari hezur eta azalek, gogorik gabeko melodiak auhendatzen dituzten. Madril. La Elipa. Bada garaia Pacorro eta abar ikusteko. Gaur bertan deitu behar diot. Neure ondoan eseri da ile lisoko eta itxura kalamastrako mutil bat. Periodikoko gizona berriz kokatu da amorrazio ondo agerikoz. Mutilak ingeles ariketa liburu bat jarri du bernen gainean eta bere bonber poltsikorik atera du eskuko irрати-kasete oso txiki bat. Asmamena ekinean hasi denean bereiz dezaket, aurikularrek iragazia, bera entzuten ari den abestia: Hil da Jainkoa, PI-L-T taldearena. Halako soinu bonbak ez du batere aldarazten haren begirada behiena. “Jainkoa hil da”, errepikatzen da nazkatu arte, uxuala-kutsuko ahotsez. Jainkoa hil da, hil da, hil da...

Moskuk mendebaldeari ohartarazi dio ez duela onartuko inor sartzerik txetxeniar gatazkan. Titularra ilustratzen duen argazkiak erakusten du herritar sustatu talde bat belaunikatuta eta eskuak buru atzean dituztela. Gehienak zaharrak eta gazteak dira, eskale itxurakoak. Eskuineko beheko ertzean fusil baten kanoia antzematen da. Agian irudi hori lekukotza bat da denentzako hobeia izan den iraganarena. Zozketa bat bezala da. Zozketa hilgarri puta bat bezala. 1936, erruleta bueltaka dabil eta bolatxoa gure artean geratzen da: gerra zibila. 1939, espeziala tokatu da:

bigarren mundu gerra. 1999, suertedun gertatu da -besteak beste- herri txetxeniar urrun ezezaguna. Txikiegia eta ezdeusegia errudun izateko. To-katu zaizu. Eta zeinek eragiten dio erruletari? Jainkoa hil da. Txetxenia gaixoa. Periodikoa zalapartatu da astindu lehor batean eta handik erauzi nau zakarki. Hortxe. Orain segi dezakete Txetxenari atzetik ematen. Erruletaren beste aldean egotearen abantailak. Oraingo. Periodikoa tolestu da. Keinu mingotsa duen ustezko jubilatua altxatu da. Alde Zaharra. Hemen jaitsiko naiz.

Nasan rau sartu zait taldeko giritako bat. Zerbait jateko leku merke bat? Neure burua eskaini dut lagun egiteko. Ez zegoen gidoian, baina aukera ona da Juancar-i bisita egiteko. Puntu bat da lagun tabernariak izatea. Taberna batzuetan hainbeste ibiltzetik beti dauzkazu batzuk zerrendan. Juancarri eta beste dozena erdi bati eskerrak, beti dakizu non aurkitu konpainia ziurra eta atsegina tarte bat pasatzeko. Bizi bitez luzaroan barman enrollatuak. Geltokitik MUGArainoko ibilbide laburrean neure bost duro ingelesa praktikatu dut turistekin. Hala da, alemaniarrek dira, Dresdekoak. Ez zaie gaizki joan erruletarekin. Orain hamabost urte kosta egingo zitzaien Ekialdeko Alemaniatik irtetea. Luxeena, aker-bizarraz eta tirante kamisetaz, zutabe luze baten gainean dagoen Miguel de Unamuno-ren irudiaz interesatu da. Azkar haizatu dut: It's a very famous writer who was born here... Aski delakoan nago. Hobe ez saiatzea hari esplikatzeko, aipatua atzera jarri dutela bere lekuan, orain hilabete batzuk ostu eta itsasadarrera bota zutelako. Hobe ez kontatzea urpe sakonetik jaso dutela, ordezkoa jarria zegoela. Bera, ulertzen saiatuko zen eta nik,

egia esan, ez dut ezer ulertzen. Emakume beltz irribarretsua, ezker bekainean *piercin* txiki bat duena, eskutik doa oinez elementu ondo ario batekin, *grunge* trazakoa eta beisbol kapela duena alderantziz jarria -zenbat irauten duen moda izugarri honek-. Ez naiz isildu eta galdetu diet ea *Bilbao Song* ezaguna zaien, ez daukate ideiarik ere, baina ezagutzen dute Bertold Brecht. Trukean, haiek proposatu didaten izen zerrenda guztiz ezezaguna zait. Antza Techno-aren maisuak dira. Azkenean beti dira norbera baino modernoagoak. Bizi legea dela, nago. KRAFTWERK eta TANGERINE DREAMi buruzko nire aipamen lausoak atsegin errukitsuz hartu dituzte. Haien begiratuak beren anai-arreba zaharragoen altueran jartzen naute, gutxienez. Akaso paranoia hutsa da. MUGAn ez dago jende askorik. Gazte pare batek, itxuraz gehiago izatez baino, hartua dute gogogabe barra, zeinarekin egokitze ergonomiko bikain bat garatu duten. Juancar-ek irribarre egin du ni ikustean eta bere gizatasun osoak ere hala egin duela dirudi. “Gizona, ez iezadak esan orain gida turistiko egin haizenik”. Sei hilabete edo gehiago izango dira elkar ikusi ez dugula, baina elkarrekin biziko bagina legezt mintzo zait. MUGA, etxekoa eta gazi-gozoa. Hainbeste barre, hainbeste gosari *gaupasako*. Baita asperdura eta rollo txarrak ere, baina batez ere jendea. Batzuk jada hilak, beste batzuk urruti, bizitzak aldendutakoak, emigrazioa, maitasunak... Juancar-ek dena bizirik mantendu nahi duela dirudi. Musika ere beti ezagun egiten zait, burrun gitarrazko hori, zeinak tabernako zaratekin nahasita, ateratzen duen amalgama lauso bat, non ezinezkoa den abesti bat bereiztea. Teutoiek hanburgesa saihestezinen alde egin dute. Suerteak daukate. Hemen jango dituztenak benetako txahal haragi

txikituarekin eta benetako ogiarekin egindakoak dira. Juancar-ek eguneratu nau. Berea bezalako lokal bat eramateak arrisku asko dauzka. Pixka bat lasaitzen bazara *kolgatuta* daudenez eta eskalez betetzen zaizu, bezero *normalaren* arrasto oro desagertzen da eta salaketak hasten dira eta poliziaren bisita desatseginak. Lan gogorra. Haria galdu gabe kontatzen dit, garagardoak zerbitzatu, harrikoa egin, musika aldatu eta ohikoa duen tik batean betaurrekoak igotzen dituen bitartean. Bere jarduna gazitzen du txistez eta gertaerez, sekula irribarrea galdu gabe, zeina irekitik sardonikora pasatzen den, mikatzetik dirdaitsura. Hain gustura nago, denbora bukatzen ari zait. Amaitu dut kaina. MUGA eta bertako egoiliar goizekoak abandonatzeko ordua. Laster arte Juancar, eskerrik asko kainagatik; bale, etorriko naiz berriz, hainbeste denbora baino lehen. Agur, zonbi apaingarriak, betira arte, giri tripontziak. Destinoak elkar gaitzala egunen batean zeruetako erreinuan, beltz zoragarria. Bilbo zaharreko kale estuak bor-bor daude otsaileko egun jada eguzkitsuan. Punk musika aditzen da balkoi batean. Pedigritik batere gabeko bi txakur elkarri usainka daude biratzeari utzi gabe. Unamunoren buru harroi eta pixka bat irrigarriak krispazio pixka batekin begiratzen du. Metroa adierazten duten uztaiak, Audi-ren hain antzekoak, are gorago daude. Bi neskatila barrez lehertzen daude usoak ostikoka uxatzen. *Heavy* malenkoniatsu bat, beira-ale rocker-en ustezko bere dendaren sarreran jarria, gogorik gabe dago zain, ea norbait sartzen den. Sinestezina: Lemoiz gelditu. Pintada higatu bat sprayz egina. Zazpi Kaleen bi zaharberritze jasan beharko zituen, laurogeita hiruko uholdeak eta hogeit bat neguren eguraldi txarrak. Ni alkate banintz hura kontserbatzeko, kristalpean jartzeko, enbalsamatzeko...

edozer, eskatuko nuke. “Lemoiz gelditu”. Mani erraldoi haiek, jaialditzar hura Aixerroetan. Barruan lehertu ziren bonbak, akabatu ziren enplegatuak eta baita aktibistak ere. Ryan ingeniariaren bahiketa eta exekuzio sumarisimoa, Gladys ekologistaren hilketa, sekula epaitu gabea eta azkenean: “Lemoiz Gelditu”. Beste era batera izan ote zitekeen? *De sus entrañas brotan sin cesar flores carmesí*. Hori kantatzen ari da, bere betiko izkinan, inguruan ezaguna den gizon bat. Arraza beltzeko abeslari birika oneko bat, aste nagusian txosna inguruan ibili ohi dena eta tarteka-tarteka bertako telebista showetan erabiltzen dutena. NINO BRAVO da haren espezialitatea. *Como el ave que escapó de su prisión y puede al fin volar*. Libre. Giroko alamen horietako bat, sekula abandonatzen ez nauena. Auto txokeetan zegoen, haurren irradian, Lazarov psikodelikoaren telebistan, tabernetako makinetan. Beti sortzen da baten bat haren bertsioa eginez, berreskuratuz, birziklatuz, telefono mugikorrak iragartzeko, berriz zirkulazioan jartzen duena txokorik ezusteenekotik entzun ahal dezan. Astunak benetan bat *Libre* eta bere *flores carmesí* putak.

Zazpi Kaleen labirintotik atera naiz eta agertu da Bilboz daukadan irudia laburbiltzen duena: Arriaga antzokia, platanoak, trafikoa, fenix hegaztiaren estatua eraikin dotore bat koroatuz. Areatza, urteetan neure lehen ikuspena ezker aldeko tren geltokitik irtetean. Santurtzi baino zerbait finagoa, garrantzitsuagoa eta are hantusteagoa egiten zitzaidan. Itsasadarrak berdintzen gaitu. Duen itxura lupetsua berdina da arrantzale portuko arranpak bustitzen dituen itsasoarena. “Bilbo: Londres eta Barakaldo nahasketa amultsua”: Juan Carlos Eguillor eta bere Mari

Aguirre ahaztezina. Itsasadarra eta honen zikina umiltasun bainua da, errealitatera itzultzea, urak hazi eta alubioia gertatzeko mehatxu iraunkorra, bata bestearen atzetik datozen korporazio entusiastek erremediorik gabe gainditzeko ez duten ikasgaia. Oraindik ailegatzen da oihartzun lotsarizkoa, alkate harena, zin egin zuena bertako uretan bainatuko zela laurogeita hamabirako. Sartu naiz arteria handian. Lurrin kosmopolita moduko bat aditzen da, hainbesteko bloke ahaltsuko beroak babestuta: Burtsa, banketxeen egoitzak, *Corte Inglés* sakrosantua, altxatua hotz etaitsu, jesuiten eliza-egoitza gutxi-usteko eta beti irendua. “Zein da jaun eta jabe hemen, dilubio-aurreko kapera zaharra?, altxor artistikoa zarelakoan al zaude?, ez al duzu ikusten zein beneratzen duten denek egiaz? Neure eguberrietako apaingarrietan gastatzen dutenarekin behingoz konpon litezke zure dorre unagarriak”. Hiriko faunak beste garbo bat du zona honetan dabilenean. Ez nago seguru benetako estresa den edo inguruak ezartzen duen *Wall Street* irudia den. Aski da zehardura bat hartzea kale estuetara eta merkataritza familiarrera itzultzeko. Ledesma kalean partxiseko beste gelaxka seguru bat dago: La Universal. Komikiak, fanzineak, liburuak, bideo arraroren bat, disko antigoalen bat eta bera, Ilu, Iluminada, ezingo luke beste izenik eduki kizkur argitsu horiekin eta neska ernearen begi horiekin. Lokala sartua dago akiduragatik itxitako bizartegia baten eta formika gastatu eta pintxo atzeratuko taberna aspergarri baten artean. Iluk berehala asmatu du neure bisitaren arrazoia eta bere keinuak adierazi dit zaputzaz: ez dago sarrerarik LOU REED ikusteko. Kaka. Jaunak “formatu txikiko” bira bat egitea erabaki du, nazkatuta dago pabilioiez, eta espazio familiar eta erosoak nahi ditu. Izorra hadi. Tira, bera ere ez da

Transformer-ekoa, astuna bat izango da, seguru.

Kontsolatzen ez dena, ez duelako nahi da. Niri konpentsatu asmoz, Iluk mostradore txiki baten barrenetik atera ditu disko singlez betetako pare bat maletatxo berezi. “Atzo ekarri zizkidaten, ea zerbait aurkitzen duzun”. Singlearen urrezko aroaren bi bilduma arrunt samar dira. RAPHAEL negoziatzina eta bere *Tamborilero* dago, LOS TRES SUDAMERICANOS eta beren jarrera ordainezinak, KARINA hortzak erakutsiz zenbait portadetan, LOS CINCO BILBAÍNOS eta baita ezusteko gozo batzuk ere: *La Noche del Hawaiano*-ren jatorrizko bertsioa, PERET gaxte eta behe-auzokoa dela portadan, eta bitxi bat neure single euskaldunentzat: Kennedy, ERLAK bikotearena. Liburuen zona beste kontu bat da. Bolada txarra da azken aldikoa, on ustean hasi eta etsi. Hamabosgarren orrialderaino, nola edo hala iraun, eta ondoren liburutegia dekoratzeko eduki, horrela ezin da. Oraingoz aski da *aurkikuntzez*. Jaime Bayly-ren bila nabil eta Nick Hornby-ren zerbait berria topatzen dut. Ez dut pentsatu. Iluk etsimenduz begiratu du: “Pinoi finkokoa zara eh?” Inor ez da perfektua. Agur Ilu, hor uzten zaitut zure babeslekuan, zure zurezko fatxada gorri apainarekin, Bilbo nareago eta eskulangintzadunago baten hondarra agian. Indar zentripetoak atzera ekarri nau presaka dabilen hiri-kume serio izatera, newyorktar kutsuko. Sentitzen dut, Foru Aldundia, ezin dut orain zurekin geratu, zuk zupatu iezadazu nomina gustura, hori da-eta zurea. Bai, badakit beste gauza batzuk ere egiten dituzuna, baina zer nahi duzu, beti gogoratzen naiz gauza berdinez ikusten zaitudanean. Ea lantzen duzun artea, eragozteko hainbeste espekulatzaille zigorgabe egotea eta hainbeste aberaskume iruzur egiten. Barkatu, pikoleto, erreta nabaritzen zaitut, guardia eginez jauregitzar honetan

non *nazionalek* erabaki zuten gobernu zibila jartzea. Akaso zuk ez duzu izango hain garbi erruletarena. Hilabete batzuk pasatu dituzu lasai, “mugagabeko suetenarekin” eta orain berriro du zentzua “arriskuaren plusak”. Elkarrizketa interesgarri bat izan genezake. Hobe uztea. Ez daukat denborarik zuekin geraldari bat egiteko, ordu bietan sartzen naiz lanera, apenas dut ordu erdi bat zerbait jateko.

Juancarri egindako bisita ez zegoen gidoian eta eskemak apurtu dizkit. Bideoak eta jantziak berritzeak itxaron egin beharko du. Sota eraikin dotorearen baxuetan sartu naiz. Aukeratzeko zenbait giro gastronomiko ditu aukeran. Bide azkarra hartu dut: bokata beroa jabugo urdaiazpikoarena eta errioxatxo bat. Jainkoa bada. Irakurri ahala irensten dut. Berriro hor da foto txetxeniarrak. Nazioarteko eta politikako orrialdeak saltatu ditut. Titularrek izutu naute nahikoa.

Pinochet-ek eta Lizarrako hitzarmenak tinta kilometro gehiegi dute jada. Sentitzen dut, ez nago prest urdaiazpikoa eztarrian katiga dakidan. *Paul McCartney-k liburu bat iragarri du Beatles taldeari buruz. Nagia. Madonnak lehen postuak lortu ditu salmenta zerrendatan American Pie-ren bertsio batekin.* Hori da hori, buah. *Hainbat ataritarak batera egindako erasoek erakusten dute Internetek daukan urragarritasuna.* Begira iezaioke. *TELE5ek iragartzen du “Bigbrotherhaus”en bertsio espainiarra, Alemanian polemika handi bat izan duen telebista esperientzia.* Hamar pertsona etxe batean sartuta hiru hilabetez, komunetan ere kamerak dituztela? Ezin du izan. *Fernandezek kritikei erantzun die, berriz ere Guerrero eserlekuan uzteagatik.* Guztiak nekatzen du, adiskidea. Informazio hori osatzeko hor da azterketa xehe bat Luis Fernandezek ligari zehar ateratako hamaikakoei buruz. Erreportajearen buruan dago Athleticeko entrenatzaile tarifarra airea toreatuz

ikurrinarekin, San Mames pil-pileko batean. Argazki-oina edozein harritzeko modukoa da: *Champions League-rako sailkapena Fernandez aldi irregularraren lorpen bakarra da*. Ihes egin dut beste eremu inprimatu batzuetara. Orrialde erdialdean hor oldartu natzaio Pedro Almodovarri egindako elkarrizketari, hau Oscarretarako izendatu baitute berriro. Irakurri dudan gehienak axolagabe utzi nau, heldu da paragrafo bat zer pentsa eman didana: Bizitzak ez du “zaindaririk” behar, bera aski da zuri lezioak emateko. Neure hausnarretik atera nau, irribarrez lore bat eskaintzen didan ekialdeko batek. Mekanikoki ezetz esan dut, nik ere irribarrez. Ez, eskerrik asko, ez dut lore bat nahi, eskerrik asko halako atseginez eskaintzeagatik, argazki eder bat eratu dugu, orain utzi nazazu bakean. Nik segi dut nire jabugo bokatarekin eta nire errioxarekin eta zu segi zure *lanarekin*. Zalantzarik gabe bulego atsegin ondo egurastutako batetik ateratzen zara, non nagusi ulerkor batzuek saiatuko diren zuk behar baino ordu gehiago ez egiteko lanean, eta jakina, zure paseo loretsuak behar bezala ordain dakizkizun, langileen estatutuaren arabera eta zure -zalantzarik gabe- hitzarmen kolektibo bidezkoaren arabera. Zer kostatzen zait hori pentsatzea? Ez naiz hain artaburua izango susmatzen hasteko immigrante ilegal bat zarela, gau eta egun lan egiten duzula, irribarre hori mehatxuz eraikia dagoela, zulo zikinen batetik irteten duzula non lekua partekatzen duzun beste *geisha* batzuekin, ez duzula ulertzen inguratzen zaituen ezer eta kasik nahiago zenukeela miseriara bueltatzea, seguru asko han baituzu jatorria. Zerbitzariaren keinu digital txiki batek kanporatu egin du epelkeriarik gabe. Neskak azkar ulertu du. Hori da, jakina, erritual errepikatua. Begiratu dut erlojura, ordu erdiko *bizia* geratzen zait. Ordu bietan fitxatu

egin behar dut. Ez da denbora airean doana, aisialdia baizik. Etsia hartuta eta beltzak eta bokatak emandako indarrez bideratu ditut ene urratsak azken zuzengunera.

Jesusen Bihotzak, oinarri neurrigabe baten gainean
-Bukaresten Lenin eusten zutenen antzeko- markatzen du atzean neure goizeko ibiliaren amaiera. Gran Via orain erlauntza bat da, ihesi doazen enplegatuak, gainezka doazen autobusak, automata presatuz betetako zebrabideak eta gidari ezinegonak.

Ordutegi honek sentiarazten dit munduaren alderantziz nabilela. Eraikinaren zaindarien ordu asko daramate txandan ni agertzerako. Nekatuxe agurtzen naute, apenas igartzeko moduan. Telefonistak ere bere keinuan agertzen du deiez jositako goiza, posta ematen didanean. Erredakzioa eguneko unerik jende-gabeenean dago. Apenas dozena erdi lankide dabilta patxadatsu mahaien artean non orain hogeit hamar minutu irakiten zegoen ordu bietako albistegia. Laster batean martxan jarriko da arratsaldeko makineria. Cristina, kasko batzuetako soinu unibertsoan murgilduta, ez da ohartu ere egin iritsi naizenaz. Disimuluz goratu dut bere apartuaren bolumena jauzarazi dudana arte: "Hau sustoa eman *diak*, kabroia!". Azkenean norbaitek agurtu nau gogotsu. Crisek aurikularrak ezarri dizkit buruan, entzungo dudana goraipatuz eta nola. Merezitakoa da goraipamena. Kadentzia buenosairestarra duen ahots bat adrenalina zabalduz doa pixkanaka, gorroto irakin goxoki-orkestratuan lehertzeko, gitarra gurutzatuen kaos batekin. BERSUIT du izena eta esplikatzen didanez, emisore argentinar guztietan

debekatu dituzte ditxosozko abestiagatik: *Señor Cobranza*. Ordenagailua konektatu dut, zuzenean noa korreora. Kontzertu zerrendak, musika berritasunak, Ernestoren mezu bat eta beste bi kontsulta itxurakoak. Ernesto adiskidearena ireki dut eta espero zitekeena, haren aurkikuntza ganberro bat da: Atxikita jarri du artxibo bat “oso guapa” dioena, non, bi bider *klik* egin ostean Laetitia Castaren argazki bat agertzen den mainak egiten. Erantsitako oharrak adierazten dit: “Ez zaitez ordenagailutik aldendu *tapiza* aldatu gabe”. Esandako horretara noa eta neurri handiko sinbolo nazi bat aurkitu dut pantaila guztia hartuz. Putadatxo bat. Esaten ez badizute, oharkabean luzitu dezakezu. Kontsultak arrazoizkoak dira: Entzule batek apustu bat dauka lagun batekin ea MIGUEL RÍOS inoiz *Mike Rivers* izan zen, eta beste batek, hau emakumezkoa, interesa du palindromo zaleekin harremanetan jartzeko: ezkerretik eskuinera eta alderantziz berdin irakur daitezkeen esaldiak dira palindromoak. Arratsaldeko magazineko ene lankideak beren lekuetan jartzen doaz. Nik estudio batean itxita geratu behar dut gehien gustatzen zaidan atala grabatzeko: *Ahinko a 45*, hirurogeita hamarreko musika arrakastatsuaen saioei omenaldia da, neure *alter-ego*ak zuzendua: “Lisergio Lau-Bost” izenekoak. PERET eta ERLAK bikotearen singleek garaipena izango dute gaur. Erloan lagun izango dituzte FORMULA V-EN *Cenicienta*, ROLLING STONESen *Angie* eta jokoa ematen duen koplazar zirraragarria: *Y sin embargo te quiero*, JUANITA REINArena. Gordeleku dudan estudioan sartzen naizenean, erredakzioak badu jada Washington Post itxura edo. Zinta bat jarri dut Revox-ean oihartzuna eragiteko, lokalizatu dut sintonia ordenagailuan eta jarri ditut lehen bi diskoak beren plateretan. Grabatzen

hasi bezain laster ni ez naiz erabat neu. Binilozko *xerra* zaharrak aldarrikatzen dituen disc-jockey frenetiko bihurtzen naiz. JUANITA REINA aurkeztu dut eta haren koplazar lazgarria. Gogoratzen dut abestia, baina berriz entzutean emozioa berritzen zait. Susmatzen dut bere haurra sehaskan kulunkatzen duen emakume hori, goizaldean itxaronez aita txorigaldua irits dadin –“bere abizena eman ere” egin ez duena- ez dela fantasia bat. MARTA SÁNCHEZek oraindik orain orbitan jarri du melodia bera, baina ez da gauza bera. Tonadilla kantariaren bertsio dramatikoa aditzen da, patetikoa, saminki benetakoa. Gizonak emakumea puteatzen du, baina honek oihukatzen dio bere begiak baino gehiago maite duela, bere bizia baino gehiago, bere ama baino gehiago eta arren eskatzen du isil dakizkion bihotz-taupadak, gizona maitatzeari uzten badio. “Stockholmeko sindrome” bat da, beste edozein bezalakoa. Maltzur baten eskuetan dagoen emakumearen historia zaharra. Apustu egingo nuke Juanitak gertutik ezagutzen duela. Saiatu naiz neure iruzkinaren neurrian jartzen. Ez dut izan nahi azaleko ez demagogo. Nago nahiko orekatua geratu zaidala. Hurrengo abestiak arinagoa behar du. FORMULA V-en *Cenicienta* aukeratu dut. Konposizio xume xalo bat maitasun gezikada baten zerbitzura: *Si la verdad se hiciera cuento/Y realidad las ilusiones/Seguirías siendo siempre/Desde que te conocí/Cenicienta para mí*. Erabat zaharkitua geratu den lelo horietako bat da, eta lausoki kokatzen nau izan nintzen ume haren azalean, erromantzeen kontu hori artetegagarria zitzaidan garaian. “Nor maiteminduko ote da egunen batean nitaz, futboleko ondo jokatzen ere ez dakit eta?”. *Cenicienta*-ren giro atseginak neure baitan bildua uzten nau une batez. Zerbaitek, baina, errealitatera bueltatzen nau. Ateko leihoan

zehar bi lankide ikusi ditut pasatzen keinu urduriz. Hasiera batean nahiago izan dut garrantzirik ez ematea. Urduritasunak maiz gertatzen dira lanbidean, izan daiteke burtsaren beste erorketa bat, agian gonbidatu ospetsuren baten iristea. Joan eta jakin. Neure burua konbentzitzeko puntuan nagoela, kristalak beste irudi bat eskaintzen dit: bekadun bat agertu da presa keinuz. Keinu egin diot sar dadin, ireki du dorpeki atea eta bota dit: “atentatua Gasteizen... bi hildako daude, estudioa behar dut deklarazioak hartzeko”. Ez gaitezen gehiago mintza. Jaso dut neure armategi guztia ahal bezain pronto eta berriro zuzendu naiz erredakziora. Egundoko zalaparta dago. Talde ugari bat teleari iltzatuta dago. Sanitario itxura duen batek inolako konbikziorik gabe aplikatzen dizkio desfibriladorearen plantxak bultxo bati. Esataria, ezusteak gainezkatua, bonba-auto batez mintzo da, identifikatu gabeko bi gorputzez. Gasteizen gertatu da, gobernu autonomoko eledunak prentsaurreko bat ematen zuen lekutik oso gertu. Kamerak anbulantziak baino lehenago iritsi dira. Pantailan gertatzen dena behatzen dugu hitzik esan gabe. Kolpetik lankide baten ahotsa entzun dugu oihuka aurikularrari, mahai batzuk haratago: “Esadazu berriro, mesedez... nola diozu?... Fernando Buesa?... konfirmatuta dago?... hostias!... ezin du izan!... eta bestea?... eskoltakoa?...”. Inguruan ditudanen aurpegietan ikusten dut. *Ezin du izan* aurpegiak dira horiek ere. Baina ez du inork errepikatzen. Esperientziak dio, baietz, izan daitekeela... badela, nahiz eta -analista handiak baikara-ezinezkotzat joko genukeen ordu batzuk lehenago. Esatari gogoilunak laster konfirmatu du datua. Gertaeren kontakizun gordinari egiteko gehigarrik ezean, berriz hasi da hitz eta pitzaren ohiko errituala: espantua, kondenak,

auhenak, erru egozte lausoak, analisiak, balorazioak, lekukotza estuak... Hitzzen ketza, ezinbestean horrorea zirriborratzen, erlatibizatzen duena.

1972. OPORRAK SANTURTZIN

Oporrak Santurtzin. Neure lagun guztiak herritik joanda daude eta ni hemen nago oraindik. Abuztuaren amaieran nik ere bidaia egingo dut ene familiarekin batera Haroko lur-muga urrutietara (egun oso bat joateko, alditxartzeak gerta daitezke), baina orain uztaileko egun luzeek -amaigabeak hamabi urteko batentzat- beste zerbait eskatzen dute. « Handien » partiduak daude; kide askoren faltan izanik, onartzen dituzte errefortzu-destorbu batzuk, esaterako neu. Hautaketa arriskutsua. Derby horietan etengabe zozketatzen dira ukalondoko, baloi-kolpe eta sarrera basatiak, nik papertxo asko dauzkat. Adinez laburra izan arren, badaukat ene eskarmentuetan udaldi bat hanka igeltsuztatuta, akrobaziak eginez bainatzeko, eta puntua egiteko orratz bat erabiliz belaunean hazka egiteko. Ez, eskerrik asko.

Hala, kalea, esploratu beharreko lursail bihurtzen da. Eguneroko martxan bigarren mailako ziren pertsonaiek protagonismo ezustekoa hartzen dute. Hori gertatzen da «Toni»rekin, goiko bizilagun «exotikoa»rekin, *andaluzen* olde builoso eta polemikoko kidearekin.

Toni ez da ni bezalakoa edo nire koadrilako inor bezalakoa -izerditu egiten naiz hari ulertu nahian-. Hamabi urte ditu, eta nolako zirti-zarta, beti dirudi zehazki dakiela zer egin nahi duen eta nola.

Andaluzak heldu zirenetik, gure bizilagun etxearen (orduan denak alogereko) azken solairua okupatzen duten bi familia ugari iritsi zirenetik, ezer ez da berdin. Hamalau lagunek eta katu batek eraikineko eguneroko bizimodua irauli dute. Lehenengo egunetan alarma jeneral moduko bat izan zen eta eskailerako solasek juerga flamenkoak eta ohitura primario tolerazienak aipatzen dituzte, bizikidetza eta ohitura onak arriskuan jartzen dituztenak. Jaengo herrixka urrun batetik iritsitako familia horiek desberdinak dira gauza askotan, bai, baina hasieratik erakutsi dute bizilagunen estimua irabazteko jarrera argia, talde-lan guztietara beren jende ugaria bidaliz. Zaildutako jendea da.

Naizen haur harriberak itzalgaizka behatzen du Toniren eguneroko jokaera, ikusten duena sinistu ezinik. Neure bizilaguna, ugerdo samarra eta beti airosoa, trebetasunez moldatzen da kaleko zakurrekin, dotoretasunez kolatzen da zinean, goitibehera dominatzen du haren gainean jaio izan balitz bezala eta beti, beti dago zerbait egiten, zotz bati punta ateratzetik hasi eta lasto batekin kirkilak hartzea bitarte. Nik isilean miresten dut, baina ez dakit oso ongi nola gerturatu hari.

1972ko uda hartan, destinoak gure zoriak bateratu zituen azkenean. Begi bizi fidagaitz samarreko mutikoa zen Toni, katu baten zorroztasunaz dena behatzen zuen begiekikoa. Egiaz bera bezalako batek ez zuen ezertarako

behar ni bezalako hanka-baldar bat, baina hara, arma bat neukan berari oso interesgarri zeritzona: informazioa. Nik 12 urte gehiago eginak nituen Santurtzin, nonbait nabarmendu behar zen hori. Oporretako egun amaigabe haietan beraren gida bihurtu nintzen. Serantes mendiko forte aurriak erakusten joan nintzen, beren pasadizo usain txarrekoekin, superportuko kontainer sail zabala (non « atxikitze » ausartak egin baitzituen) eta orduan ugari ziren etxetzar antigoal hutsak, guztizko aurkikuntza.

Kapitulu hori gure galera izango zen azkenean. Toniren hatz erakusleak berehala adierazi zuen zein izango zen gure hurrengo helburua: Oriolgo jauregia. Nik ez nuen sekula ezagutu biztanlerik luxuzko etxe hartan. Haurraren irudimenak, gure zaharren historia batzuekin nahasturik, mundu ilun bat eratua zuen, misterioz betetzen zituena fatxada egundoko haiek. Eraildako neskameak, betirako desagertutako eskaleak, urkatu bat ganbaran azaltzea, Don Boniren mamua, urteetan herriko parroko beldurtzekoa izanarena, gela batetik bestera... Kontua da egun aspaldiko batean Oriol familiak utzi egin ziola bere udaldiak Santurtzin pasatzeari eta mantentze eta zaingorako aurrekontua txikituz joan zirela urtetik urtera.

Mende hasierako eraikin hark orduan zuen itxura benetan arduragarria zen. Santurtziko postal zaharrek eskailera bakarti batzuetatik jaitsita zegoen kalatxo bat menderatuz erakusten zuten. Hamarkada gutxi batzuetan hondartza eta sarbidea desagertuak ziren eta itsasoaren eta eraikinaren artean lursail bat beteta zegoen, eta hortik pasatzen ziren trenbideak eta errepide bat. Bere aldian orubeko villa bikain izana orain itzal belzkara bat zen huntzak estalia eta

egituran zenbait pitzatu zituena. Haren ondoan,
“Psicosis”eko etxea goxoa zen.

-Sartu egin behar dugu...

Jakina! Nola ez. Samurra zen. Aski zen trenbidea
gurutzatzea, aldapa piko-piko batetik, asunez beteriko
batetik gora igotzea, bizilekua bere osoan inguratzen zuen
hiru metroko murru bat gainditzea -kristal hautsiekin
koroatua- eta ate handia edo leihoren bat irekitzea lortzea,
itxita eta ondo itxita baitzeuden aspaldi handitik.

Tonik dena prestatu zuen xehetasunez. Geltokia
jendetsuegi zegoen egunez, ekinaldia gauez izango zen.
Eskola zaharretan aire librean ematen zituzten saioak
baliatuz, aitzakia ezin hobea baitzen ordu horietan irteteko,
disimuluz ihes egingo genuen eta misioari helduko genion.
Bakoitzak bere linterna eramango zuen eta bera arduratuko
zen atea gakorde batez irekitzeaz. Neure koadrilan guztiz
pentsaezina izango zena, gertatzear zegoen. Mutil hark,
oso bere buruan sinetsi arren, ez ninduen, ez, dardarka
ikusiko. Hura zoritxarra, neu nintzen “autoktonoa”, jauregia
neuri zegokidan hari baino gehiago, bion artean sherparik
egotekotan hura ni nintzen, ala ez?

“D egunaren” aurreko gaua, udako ondoezaren gaua izan
zen. Oheratu aurretik etxean zeharka aipatu nuen gaia,
oharkabea bezala, informazioa eskuratzeko. Neure
gurasoak, neure asmoetatik urrun, oso dibertitu ziruditen
elkarrizketan. Berriz atera ziren gurasoek hain maite duten
eta haurtzaroan atzematen hain zaila den trufak ukitutako
kondaira beltz guztiak. Hura errematatzeke, neure amak
ohar xalo bat egin zuen, neuri bereziki nahasle gertatu
zitzaidana:

-Jende gaixo horrek txistu batean irten zuen, hemen ez baitzuten disgustua baino izan. Leku horrek beti ekarri izan du balbea.

Baneukan artean esperantza izpi bat.

-Zaintzailerik badu?

-Orain urte asko gizon bat ikusten zen han, lorategia apur bat konponduz eta zainduz ere bai nik uste, beti zegoen erdi mozkortuta... baina gero murrua egin zuten eta denbora asko da hura ikusten ez dela...

Ene aitak jokaldia errematatu zuen:

-Ez al zuten esaten erlaitz zati bat erori zitzaiola gainera eta hil egin zuela?

Ondorengo polemikak, ea gertaera hilkor hura etxe horretan ala ondoko batean gertatu zen, ez zuen lortu ene ezinegon baretzerik. Gau hartan izarak izerdiz busti ziren. Neure transistore txikian hartzen nituen emisore guztiak artegarazle zitzaizkidan azkenean. Garbi-garbi gogoratzen dut neure subkontzienteak eratu zuen ametsa, ordu txikietan, jada akitua, Morfeok su-eten txiki bat eman zidanean: Tonik jauregiko atea irekitzen zuen eta gela argitu batek hartzen gintuen, altzari zaharrez beteak, dena oso urrekara, oso jauregi kutsuko. Koadro handi-handi bat zegoen sarreran, jaun dotore bat gala militarrez jantzia eta bitrina bat portzelanazko panpinez osatua, Toni zoratu egin zen kodiziaz eta ahal zituen gauza guztiak bere jantzien artean sartzen saiatzen zen. Nik neurritasuna eskatzen nion eta ezin nion begirik kendu olio handi hartatik iltzatzen zitzaigun begiratu zentsoreari.

Orduan hormako ordulariak, zeina baitzebilen zehaztasun osoz, soinua ateratzeari ekin zion, burrunba estutzailea:

cou, cou, cou. Seinale sekretu bat bailitzan, panpina beldurgarri haiek beren artikulazioak mugitzen hasi ziren eta bitrinak hausten. Toni eta biok, ikaragatik hautsiak ate handiaren bila gindoazen ahaleginean, baina hau itxi egiten zen gure sudurren aurrean “blam” gortzaile batekin. “Blam” horrexek itzularazten ninduen errealitate ez guztiz lagungarrira.

Bero zakarreko egun hartan, neure bizilagunak eguna eman zuen gure planaz akordatuko ez balitz bezala. Leihotik ikusi ahal izan nuen barre-algara artean bere katu gaixoa puteatzen eta eskaileretan behera arreba builosoari segika. Nik ez nekien jada zer aitzakia jarri. “Harrapatu egin naute linternaren bila nenbilela”, “orkatila bihurritu dut futboleant”... azkenik neure ahalegin guztia egin nuen gurasoak konbentzitzen gaueko zinera jaitsi zitezen... “Sentitzen dut, ezin dut ihes egin, neure gurasoak daude...”

Manolo Summers-en *Adiós, cigüeña, Adios* zegoen programatuta eta gogo apurrik ere ez zuten eskoletara jaisteko... zoriarena hurrengo hitza.

Hala, hamarrek pasatxoan, guraize-aulkietan iltzatutako pertsonal askotarikoaren ahoak pantaila handiaren aurrean zabaltzen hasten zirenean, Tonik keinu arin bat egin zidan, eta neure urdail mikroskopikoa are txikiago egin zuen. “Film honek oso itxura ona du, benetan joan nahi duzu orain?, ez duzu nahiago biharko utzi? pentsatu nuen behin eta berriro. Baina banekien erantzuna eta neure ahoak ez zituen berba horiek esan. Toni oso erabakita zegoen, morboa ematen zion inor ausartzen ez den lekuan sartzeak eta gainera, nahiz eta zuzenean aitortu ez zidan, nik atzeman nuen

haren ahapeko oharren baten bitartez, baliozko gauzak aurkitzeko esperantza zuela. “Hori ez eta ez. Ni sartuko naiz behar den lekuan, baina ez dut ostu gura, hori ez dago ongi” egon nintzen esateko, bai esateko zorian.

Hala, abiatu ginen. Egiaz, haren erabakimen miresgarria neure kontsolamendu bakarra zen egoera hauskor hartan. Gogoan dut linterna sartu nuela neure sabelaren eta gerrikoaren artean. Bihotzak halako indarrez egiten zidan taupa, taupa bakoitzean zilizio bat bezala iltzatzen zitzaidan. Tonik ez zirudien neure izuari erreparatzen zionik. Mutiko guztiz flematikoa zen, gai -neure begiekin egiaztatu ahal izan nuenez- auzoko ijitoei izu handirik gabe aurre egiteko. Berak ez zuen irudikatzen ene barrua nola zegoen, zeren ez baitzen bere eskemetan sartzen. Egiten ari ginena interesgarria zen, hunkigarria agian, baina arriskutsua? Zergatik?

Horrela, hasita geundenez, huts ez egitea zen neure asmo itsua. Umetasunaren helduleku zentzugaberen bat lagun, ni saiatzen nintzen bekokia zimurtzen berak bezala eta gure misioarekin zerikusirik ez zuten oharrak egiten, agertu nahirik, ez zuela neure kezken % 200 hartzen.

Nik nahi baino lehenago, askoz lehenago, neure lagun ausartegia eta biok Peñotako geltoki ilun bakartian geunden, gure ezohiko misioaren aurre-aurrean.

“Nik esandakoan, etor hadi”, esan zuen bat batean niri begiratu gabe. Tonik prestatua zuen ekintza plana eta ez zeukan antza itxaroten luzatzeko asmorik. Nik, neurez,

erabaki aitorrezin bat hartua neukan: “Ez pentsatu, Roberto, soil-soilik ez pen-tsa-tu”.

Ilunak difuminatuta, haren soslai bizia ikusi nuen igotzen sastraka artean aldapa pikoan hormara heldu arte. Erabaki ezinik segundo batzuk eman ostean, Tonik jauzi bat egin zuen eta trebetasunez heldu zien landare igokari batzuei. Minutu eskas batean murrura igoa zen eta gailurra iritsi aurretik kristal uxatzaileak hausten aritu zen, linternaren ipurdiarekin jota. Artista. Benetako haluzinazioa.

-“Venga, *vamo shá!*”

Bai, neu nintzen hurrengoa. Mehe-liraina, mehe-liraina esaten dena, ez naiz sekula izan eta neure igoera bestelakoa izan zen. Lehenbizi estropezu egin nuen baldar trenbidean, ondoren ubeldu nintzen gorakoan lar batzuekin eta azkenik plomuan erortzear egon nintzen, huntzek neure pisuarekin amore ematen zuenean, hori ez zen gertatu zeren Tonik erabakimenez heldu ninduen eskuturretik eta luma bat bezala altxa ninduen kristal mingarri batzuen gainean eseri arte. Ondo hasi zen abentura. Tonik “txist” zorrotz batekin isildu zuen neure min alarua eta pantera jauzi perfektu bat eman zuen berehala. “Ez pentsatu”, nik ere salto egin nuen. Haren teknikaren jakina egiten saiatu nintzen, baina ez zitzaidan irten. Neure lurreratzea edozer izan zen, biguna ez beste. Kolpeak egundoko mina eragin zidan hankartean eta nire linterna hegarazi zuen, eta honek lurra jo zuen eta hamaika puska egin. Une batzuetan pentsatzen egon nintzen ardatzetik hautsia nengoela.

Hala, biok geunden esparruaren barruan, neure amesgaiztoen etxe handia gure aurrean zegoen metro gutxitara. Tonik bere linterna piztu zuen, nik neurearen

arrastoren bat bilatzen nuen bitartean. Laster ulertu nuen sakabanatutako puskak biltzea ezinezko gauza zela, egun batean lorategi izandako nahasmendu haren ilunpeetan.
-“*Vamo*”.

Oso amets goxoak eginak zeuzkan Toni gizajoak. Agindu fidakor horren ostean gertatutakoek, justifikatzen dute gertaera hori egotea gure bizitzako gauzarik kontagarrienetakoen artean eta erakusten dute, denbora igaro arren, Tonik eta biok nonbait topo egiten dugunean, gure lehen agurra beti izatea irribarre konplizea.

-“*Otia!*”

Esan zuen ondoren. Nik ezagutzen ez nion afonia dardartiz esan zuen. Altxatu nuen begirada eta pizti aztoratuaren begi haiek ikusi nituen, geuri begira zabal-zabalik, linternaren argi biziak geratuta eta gure presentzia ezohikoaren hasierako ezustekoz. Lehen asaldatzea gaindituta, zakur pare hark gure aldera jauzi egin zuen, esango nuke, intentzio onik gabe egin zuela. Nola egin genuen korri! Pizti haiek gogo gaiztoz zaunka egiten zuten eta gu harrapatzen saiatzen ziren beren matrail hezur ikaragarri handiak guri eransteke eta zin dagit oraindik ez dakidala nola ez zuten lortu. Segundo frakzio baten buruan bi abenturazale ausartak espazio txiki-txiki batean geunden iturri zahar baten gailurrean, lorategiaren erdian. Elkarri besarkatuta geunden, dardarka, demoniatuak bezala garrasika eta pizti haiek histeriko salto egiten zuten, ezinean, gure aldera. Ez ziren “pitbull” edo “rotweiller” erakoak. Urte haietan ohi zenez, ez zen hainbesteko garbitasun etnikoa txakurretan, bi zakurrak ziren auskalo zer arrazatakoak. Horietako bat ez zebilen artzain txakur

alemaniarretik urrun, baina belarriak behera eta matrailezurra kaimanarena zituen, bestea mutur motza zen eta zatarra demonio bat bezala eta azal arre tigre-kutsukoa zeukan.

Bai, egiaz denbora soberan izan nuen xehetasunei erreparatzeko. Gau luze bat ireki zen gure aurrean, gu izanik destinoaren bromaren eraginez eskultura pieza dramatikoa, langabezian zegoen surtidore langabetu ponposo haren gainean. Lehen aldi batean, zakur amorratuek, profesional onen gisan, gu atzematen saiatzen ziren iraunkortasun inozoz. Alferrikako hainbesteko ahalegin egin ostean, bigarren aldi batean noizbehinkako jauziak egiten zituzten eta auhen antsiatsuak. Azkenik “baretasun urduria” heldu zen. Guk ezin genuen jaitsi arriskuan jarri gabe eta haiek ezin izango zuten sekula igo gure euskarri ugerrera. Hala, dena geratzen zen zoriaren eskuetan. Zorionez ilargi beteko gau epela zen eta pausatzen ginen zirkulua ez zen guztiz eskasa. Suerte apur batekin, zakurrak lo geratuko ziren azkenean, eta orduan... ausartuko al ginen orduan jaisten?

Gure jarrerak ere izan zuen aldaketarik. Hasierako shockean, izuak eragindako alarauen ostean, negar-zotin konpartitua zetorren, zeina zen, gehienbat, gure damurik handienaren adierazpena. Ondoren etorri zen urruneko etxeetara zuzendutako laguntza eskeko oihu tentel batzuk egitea eta erremate gisa, akidurak eta tentsio eramanezinak menderatuta, lokarturik erori ginen, bata bestearen sorbalda gainean, babesgabetasun hutsez auhentxoka. Zenbat denbora igaro zen? Batek daki! Gogoan dut, errealitatea eta fikzioa bateratzen dituen nebulosa batean, Oriol jauregia,

ilunean egundoko, gutaz barreka zirudiela, eta denbora igaro ahala, hotz sentipen batek menderatzen gintuela, posturaz aldatzeko mugitzen ginen bakoitzean, txakur madarikatu haiek alerta posizioa hartzen zutela berriro, eta berriro hasten zirela zaunkaka. Gau luzearen unereren batean hau esatea otu zitzaidan, fatxada goibelari begira: -Neure ama zuzen zebilen, etxe honek balbea dakar”.

Hark nabarmen zapuztu zuen Toni. Egunak ematen nituen aitzakia perfektuaren bila eta ez zitzaidan bururatu uxatzaile izango zena: “Etxe honek zori txarra dakar”. Zeren, hara nola, Toni, obratan zeuden eraikinetan gora teilaturaino igotzeko gai zena eta treneko pikei aurre egiten ziena kolaturik zihoanean, oso oso superstiziosoak zen. Ondorengo egunetan egiaztatu ahal izan nuen katu beltz batek aldartea aldatzen ziola, kilometroak egin zitzakeela eskailera baten azpitik ez pasatzeagatik eta beila-etxeko auto bat igarotzean egurra ukitzearena ez zela inolako txantxa.

Ez dakit nork eta nola ikusi ahal izan gintuen, baina neuri amaigabea egin zitzaidan denbora baten buruan, zaunka burrunba batek eta burdin kirrin-karranak asaldatu gintuen eta zer zen jakin nahi izan genuenerako, zenbait linternetako argi biziak gu itsutzen ari ziren, ahots gozaga batzuk gu zulatu nahian edo zetozen. Nekez bada ere, haiek bereiziz joan ginen. Udaltzainak ziren eta inguruko bizilagunak ustez, eta ez genien inolako errukirik eragiten. Batan jantzitako emakume haiek gu agerpenak bagina bezala adierazten gintuzten eta aguazil lodi bibotedun haiek oihiu egiten ziguten “El Lute”ren banda atzeman balute legez. Kuarteltxora eramane gintuzten mehatxu lausoen

artean eta han gure gurasoei deitu zieten, ordurako itxuragabetuak hauek. Kasuak izan zuen graziosoa da neuri etxean garbi utzi zidatela ez zitzaizkidala lagun horiek komeni eta harenean esan ziotela hemen aurkituko zuen jendearen artean ona eta txarra bereizten ikasi behar zuela.

Bitxia da. Oriolgo jauregi zirraragarri hura luxuzko hotela da gaur egun. Esan didate inaugurazioan arazo eta atzerapenak izan zirela. Benetan ederra utzi dute, egiatan. Ez dut uste han ostatu hartuko dudanik.

Into basque by bAst 2013

